

# Lezoko Ibilbide Pedagogikoak

*JOXE MIKEL GARMENDIA ETXANDI • LANDER ZURUTUZA SUNSUNDEGI*





Lander

Joxe Mikel

2002ko udaberrian "Lezok 800" izeneko egitasmoa sortu zen, 2003ko ospakizunak antolatzeko. Aurrikusitako ekitaldien artean, ibilbide pedagogiko batzuk prestatzea egokitu zitzaigun. Ondorioz, herria alde batetik bestera zeharkatzen duten lau ibilbide aukeratu genituen.

Hasierako asmoa, aipatutako ibilbideak herritarrentzat antolatutako lau txangotan gauzatzea zen, eduki guztiak *in situ* azalduz. Lan horren helburuak honako hauek ziren: Lezoko leku-izenak zabaltzea, iraganean gertatutako pasadizoak ezagutaraztea, bilakaera historikoa gogora ekartzea, ingurune naturala hurbiltzea...

"Lezoko Ibilbide Pedagogikoak" izenburuko txostena 2003ko martxoan amaitu genuen.

Orain, bildutako material hori guztia zabaltzeko asmoz, Lezoko Udalak liburu hau argitaratzea erabaki du, Euskadiko Kutzaren laguntzarekin. Zinez eskertzen dugun ekimena.

Uste dugu liburua egokia izan daitekeela, besteak beste, eskoletako irakasleek txangoak antolatzeko, gurasoek seme-alabei herriko bazterrak erakusteko eta kanpotarrek gure txokoa ezagutzeko.

Ibilbideak diseinatzerakoan, Etnogintzak Lezoko Udalarentzat 1999an egindako "Lezoko Mapa. 1/7.500" lanean oinarritu gara. Dena dela, ez dago zertan ibilbide horiek beti osoki jarraitu, aldaketak egiteko aukera asko baitaude.

Ea liburu honek, akuilu gisa, gure herriko txokoetan murgiltzeko balio dizuen. Bidaia on!

Lezo, 2005eko azaroak 19

JOXE MIKEL GARMENDIA (Biologoa)

LANDER ZURUTUZA (Historialaria)

# Lezoko ibilbide pedagogikoak

Joxe Mikel Garmendia Etxandi  
Lander Zurutuza Sunsundegi



Lezoko Unibertsitateko Udala



Lezoko Unibertsitateko Udala

© Testua eta argazkiak:

Joxe Mikel Garmendia Etxandi eta Lander Zurutuza Sunsundegi

© Diseinua eta maketazioa: Kolore

© Edizioa: Lezoko Unibertsitateko Udala 2005

Hizkuntza gainbegiratzailea: Joxe Luix Agirretxe Mitxelena

Inprimaketa: Gráficas Lankorpe, S.L.

ISBN: 84-932870-8-3

Lege Gordailua: SS.1581/05



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

# AURKIBIDEA

1. IBILBIDEA	7. orrialdea
2. IBILBIDEA	31. orrialdea
3. IBILBIDEA	55. orrialdea
4. IBILBIDEA	83. orrialdea
ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA	111. orrialdea



# Hirigunea

## Itsas iharduerak

Beko plaza  
Kale Nagusia  
Puntale  
Polentzarrene kalea  
Hipolito Gezala kalea  
Txerrimuño  
Markesane  
Goiko plaza  
Frantzisko Gaintza kalea  
Beko plaza

**IRAUPENA:** 2 ordu eta erdi

**ZAILTASUNA:** 0/5 (00000)


# 1.

## ibilbidea




### IBILBIDEA ZEHATZ-MEHATZ

Beko plazatik abiatu. Gurutze Santuaren basilikan sartu. Kale Nagusia osorik zeharkatu. Andreone etxea atzean dugula, Puntaleko parkera iritsi. Beheiti joan portuaren paretik, Polentzarrene kalea osorik zeharkatuz. Donibane kalea gurutzatu. Bekoerrotan eskuinean dugula, Hipolito Gezala kalea osorik zeharkatu. Lezo Herri Eskola eta Euskal Herria plaza eskuinean ditugula, Zubitxo kalera iritsi, hain zuzen ere Txerrimuño etxearen ondora. Jarraian, Markesaneko zuhaiztira igo (erdibideko bidegurutzean eskuineko bidea hautatu, alegia Zubitxo kalearen parekoa, eta Goiko plazara iritsi aurretik dauden eskailerak igo). Goiko plazara jaitsi (parrokiaren pareko eskaileretatik). Udaletxearen atzealdea eskuinean dugula, Goiko plaza gurutzatu eta parrokiara doazen eskailerak igo. Parrokiari buelta eman, Galardi etxearen ondotik, eta probalekuaren pareko atari nagusira iritsi. Parrokian sartu. Frantzisko Gaintza kalera doazen eskailerak jaitsi. Frantzisko Gaintza kalea zeharkatu. Azkenik, Donibane kalean barrena Beko plazara iritsi.



1.000 metro







Lezoko armario



Beko plaza

## [Beko plaza] UDALETXEA

---

XIII. mendetik XIX.era bitartean Lezo Hondarribiaren jurisdikziopean egon zen. Dena dela, beti nolabaiteko autonomia-maila izan zuen, eta baita urtero berritzen zen berezko kontseilu edo agintari taldea ere. Mendeetan zehar kontseilu horrek hainbat biltoki izan zituen. 1742an, ordea, gaur egungo udaletxearen eraikuntza lanak bukatu ziren, finantzaketarako ahalegin handiak egin ondoren. Bertan, biltzar-aretoaz gain, taberna, kartzela, armategia, gaixotegia eta agiritegia kokatu ziren.

Hondarribiko agintariak, beraz, beren barrutian justizia administratzeko ahalmena zuten. Hala, Lezon istiluren bat sortzen zen bakoitzean lekukoek jakinaren gainean jarri behar izaten zituzten Lezoko kargudunak. Hauek egoera bere onera ekartzen saiatzen ziren, eta norbait atxilotu behar izanez gero, herriko kartzelan sartzen zuten. Gero, hogeita lau orduko epea izaten zuten gertatutakoaren berri Hondarribiko justiziarari emateko; eta atxilotuak hiriko kartzelan geratzen ziren. Azkenik, prozesu baten ondoren Hondarribiko alkateak epaia ematen zuen.

Bestalde, Hondarribiko agintariak beren barrutiko mugarrak bisitatzen zituzten urtero. Eta helburu horrekin Lezora etortzen zirenean, bertako pisu eta neurriak ere ikuskatzen zituzten.

## [Gurutze Santuaren basilika]

(I. PASADIZOA) 1593.04.23

### **PEDRO DE ZUBIAURRE JENERALA** **Zilarrezko lanpara**

---

1593an Pedro de Zubiaurre jenerala Bordeleko itsasardarrera joan zen, hamabost itsasontzi bere agindueta-  
ra zituela. Delfin Dorado naon zihoan, eta Espainia-  
ko erregeren izenean dirua eta munizioak eraman  
zizkion Monsieur de Lusan-i, alegia, Blayako gaztelu-  
zainari. Berriz itsas zabalera atera aurretik, ordea,  
Frantziako eta Ingalaterrako laurogeita hiru ontziren  
erasoa pairatu zuen. Hain egoera larrian Lezoko  
Gurutze Santuari gomendatu zion bere burua, eta  
hainbat itsasontzi mendean hartu zituen, bereetatik  
bat bakarra galduz. Gero Zubiaurre bera Lezoko plaza-  
ra etorri zen eskerronez, kapitain, marinel eta soldadu  
askorekin batera. Meza ospetsua entzun zuten, arka-  
buz eta moskete salben artean, eta zilarrezko lanpara  
eder bat eskaini zioten Gurutze Santuari.

## [Gurutze Santuaren basilika]

### **ELIZA**

---

Garai batean, gaur egungo basilika dagoen lekuan  
ermita txiki bat besterik ez zegoen, eta jatorrizko erai-  
kin horren elementu batzuk bederen zurezkoak ziren.  
Hala, ataritxoa egurrezko hesi batez inguratua zegoen,  
eta Gurutze Santuaren irudia (XIII. mendekoa Manuel

Lekuonaren iritiz) zurezko arku batek babesten zuen,  
non Kristoren Nekaldiaren berri ematen baitzen antzi-  
na-antzinako pintura batzuen bidez.

XVI. mendeko azken hamarkadan, Lezoko gurut-  
zearekiko debozioa handitu egin zen, eta ustezko  
mirakuluen oihartzuna hedatu egin zen Euskal Herri  
osora, eta baita Espainia zein Ameriketara ere. Hala,  
bertan bildu ohi ziren limosna oparoei esker, gaur  
egungo basilika errenazentistaren eraikitze lanak hasi  
ziren, oinplano berriarekin, koru, eritegi eta sakristia-  
rekin, oro harlanduzkoa. Eliza XVII. mendearen lehen  
erdian bukatu zen, Pedro de Zaldua hargin-maisuaren  
gidaritzapean. Eta 1650ean, Juanes de Cialceta hesigi-  
leak egindako burdinsare bikaina jarri zuten, errome-  
sek lotarako izan ohi zuten tokia aldare ingurutik  
banantzeko.

1675etik 1682ra bitartean Domingo de Ruza Sala-  
zar hargin-maisuak berritze lanak egin zituen. Eliza-  
ren nabe bakarra luzatu egin zuen mendebaldetik eta  
linternadun zinborrioa eraiki zuen. 1682an, eliza  
berritua bedeinkatu aurretik, Cialcetaren burdinsarea  
lehen gurutzea zegoen tokira aldatu zuten, alegia lehe-  
nengo arkutik bigarrenera.


## [Gurutze Santuaren basilika]

### **KORTSARIEN GURUTZEA**

---

Itsasgizonek, oro har, beti izan zioten debozio berezi  
bat Lezoko Gurutze Santuari. Eta, beren burua hari

gomendatuz gero, itsasoko arriskuetatik babestuago sentitzen ziren. Hala, Ternuara joaten zirenean arrantzara eta negua bertan igarotzen zutenean, laguntza eskatzen zioten, eta baita itsasoan ekaitzaren mende zeudenean ere, edo etsaia aurrez aurre zutenean. Gero, eskerronez, gurutzea gurtzera etortzen ziren, eta limosna eskaintzen zioten: gantz-uepela, zilarrezko lanpara, urrezko txanponak, arerioari irabazitako bandera, itsasontzi baten maketa edo bestelakorik.



Bestalde, XVII. mendean, nazioarteko egoera nahasiaren eraginez Hego Euskal Herriko korsuak urrezko aro berri bat bizitu zuenean, Lezoko gurutzea zaindari moduko bat bilakatu zen kortsarientzat. Eta korsuan lortutako etekinen zati bat Lezoko elizetako diru-kutxara bideratu zen: esate baterako, 1630ean Ipisticu kapitain hondarribiarrak kobrezko 49 erreal eman zituen, “que los saco de corsso”;

Ferraz kapitainak zilarrezko 47 erreal, “de dos presas que tomo”; Juanes de Bernardo kapitain sanjuandarrak zilarrezko 66 erreal, “por el buen suceso que el Santto Cristo le dio en su biaje del corsso”; 1634an Francisco de Carbuera kapitain pasaitarrak zilarrezko 190 erreal, “que son de media soldada que saco del corsso”; 1637an kapitain-kortsari batek zilarrezko 96 erreal; 1638an Igestegui kapitainak zilarrezko 32 erreal, “de un biaje del corso”; eta Donostiako kapitain-kortsari batek zilarrezko 16 erreal.

Halaber, aipagarria da 1697ko urriaren 12an Donostiako portutik atera zen kortsari-ontziaren izena: “Santo Cristo de Lezo y las Animas”.

### [Gurutze Santuaren basilika (ataria)]

#### (II. PASADIZOA)

1687.04.21

### MARIANA DE DOCAYTIA

#### Elizaren babesa

---

1687an emakume susmagarri bat agertu zen Lezon, Mariana de Docaytia, eta ilunabar batean Txurrupitandegi etxean ezkutatu zen. Herriko agintariak, ordea, jakinaren gainean zeuden. Eta bertara joan ziren miaketa egitera: besteak beste, txanponetatik ebakitako zazpi zilar puska aurkitu zizkioten, eta iruzurra egiteko egokiak ziren guraize motz bezain sendo batzuk. Gauerdi aldera

atxilotu eta plazara eraman zuten, bertako kartzelan sartzeko asmoz. Giltzaren zain zeudela, ordea, korrika joan zen Gurutze Santuaren basilikako atarira, sakratura, elizaren inmunitateaz baliatzeko. Itxura batean alferrik, indarrean atera baitzuten handik, Lezoko kartzelan gaua egin eta biharamunean Hondarribiko kartzelara eramateko. Alabaina, elizako epaitegi baten aginduz, Hondarribiko kartzelako alkaideak berriro Lezoko basilikara itzuli zuen. Gero ihes egin zuen Frantziako erresumara.


## [Kale Nagusia (Marigozonea)]

### **PILOTUAREN ETXEA**

Kale Nagusiko Arpideneak, Marigozoneak eta Argiñe-neak harlanduzko etxe-multzo bikaina osatzen dute. XVI. mendekoak dira, eta nortasun berezia ematen diote kale Nagusiari.

Arpideneak geroago itsatsitako armarri ederra dauka, bere arpa eta guzti –gurea bezalako herri musikazale baten alegoria ederra–; bertako semeen noblezia eta, bide batez, “jatorri garbia”ren adierazgarri.

Marigozoneak, bestalde, bi atari dauzka, erdi-puntuko arkuekin. Bata zabala da, eta garai batean ohikoak ziren IHS hizkiak dauzka giltzarrian, alegia “Iesus hominum salvator” latinezko esaldiaren sigla, nolabait etxea babestearren. Eta bestea estua da, eta iraganeko nagusiaren lanbidea erakusten digu: pilo-



*Gurutze Santua*



*Arpideneako armarria*



Marigozenea



Juanes de Salaberriaren oroitarria

tua. Hala, atearen perimetro guztian itsasontzien abiadura neurtzeko erabiltzen zen soka ageri da harrian zizelkatua, bere korapilo eta guzti; eta giltzarrian nabigazioko beste tresna osagarri batzuk, hain zuzen ere hondar-erlojua, konpasa, ipar-izarra eta haize-arrosa.

Pilotu lezoarrak adituak ziren itsaso zabaleko nabigazioan, eta oso estimatuak Espainiako gerra-ontzietan. Hona hemen horietako batzuk: Sebastian de Arbelaz, Miguel de Arizabalo, Domingo de Arizpe, Martin de Arpide, Pedro de Aurela, Jorge de Echeberria, Ramus de Irura, Juan Martin de Iturain, Miguel de Iturain, Domingo de Mancia eta Jaimes de Zamora –“Mareas derrotas” izeneko tratatuaren egilea–.

### [Kale Nagusia (Urbietaenea)]

## JUANES DE SALABERRIAREN OROITARRIA

1646ko uztailaren 9an Nicolas de Muru y Lezoandia jauna erail zuten; eta 1648ko abuztuaren 16an, kale Nagusiko Urbietaenea etxearen ondoan, Juanes de Salaberria. Gaur egun, ordea, Lezon gertatutako bi hilketa horien aztarnak ia erabat galdua daude. Hildakoen heriotza-agiri laburrak ditugu, eta bietan esaten da elizakoak hartzeko denborarik ez zutela izan, baina gutxi gehiago. Halaber, Urbietaeneako horma batean, Juanes de Salaberriaren oroitarria dugu. Honela dio, hizki dotorez zizelkatuta:

AQVI MATARÔ<sup>1</sup> A  
JVANES DE<sup>2</sup> SALABE  
RIA YENDO SV CA  
SSA RVEGAN A DI<sup>3</sup>  
OS POR EL A DIEZ  
Y SEIS DE AGOSTO  
AÑO 1648

1. MATARON esan nahi du.  
2. "E" hizkia "D"ren barrenean doa.  
3. "I" hizkia "D"ren barrenean doa.

Alabaina, herriko agiritegian badago gertaera larri horien gaineko aipamen interesgarri bat. Bertako paper-sorta batean esaten denez, Onofre de Muru y Lezoandia lizentziatua, hots, Nicolas beraren anaia, bi hilketa horiengatik hamar hilabete baino gehiago egon zen preso Valladolideko kartzelan. Eta aipatutako bi anaien amak, alegia, Lezoandiako etxeoandrea zen Maria Domingo de Aristiburuk, zilarrezko berrehun eta berrogeita hamar dukateko mailegu bat hartu zuen Zarauzko mojen komentutik, hain zuzen ere Onofre kartzelatik ateratzeko egin zituen gastu handiei aurre egitearren.

## [Puntale]

### **ITSAS IHARDUERAK**

Jada Antzin Aroan, Oiasso hiriaren babesean, erromatarrek Pasaiaiko itsasadarra erabili izan zuten. Hain zuzen ere, Arditurriko meategietatik erauzitako burdina, beruna eta zilarra bertan ontziratu eta itsasoz garraiatzeko. Garai hartako bi aztarna ditugu: Pasaian agertutako txanpon erromatarra, eta Errenterian aur-

kitutako brontzezko estatuatxoa, jainkosa bat irudikatzen duena.

Mila urte geroago, ordea, 1180an Nafarroako erregeak Donostia fundatu zuen, erresuma zaharra nazioarteko itsas merkataritzan murgiltzearren. 1203an, bestalde, Gipuzkoa Nafarroatik banandu eta hiru urtera, Gaztelako erregeak Hondarribia fundatu zuen. Horren ondorioz, urte horietan Lezon finkatu ziren gaskoi anitzek –Pasaia, Donostia eta Hondarribikoek bezala– itsas eskubi-



de garrantzitsuak izan zituzten, eta itsasoarekin zerikusia zuten lanbideak indartu egin zituzten, batik bat merkataritza. Hala, besteak beste, Nafarroako artilea eta Oiartzun aldeko burdinoletako produktuak esportatzen ziren, eta oihalak eta oinarritzko elikagaiak (garia, ardoa...) inportatzen. Esate baterako, XVI. mendeko seigarren hamarkadan Miqueo de Isastik Frantziako garia garraiatu zuen, Lezo eta Errenteriako beharrak asetzearren, eta 1574an Onofre de Isastik Gipuzkoa osoa hornitu zuen Andaluziako bihiz. Gaskoiek itsas kutsuko bi toponimo utzi zituzten Lezon: Port de la Borda (Bizkaia auzoan) eta Port de Lazon –Lezoko herriaren jatorrizko izena– (egungo hirigunean), alegia, [Guillermo de] Lazon-en portua.

XVI. mendean Lezon era guztietako itsasgizonak bizi izan ziren merkatariez gain: marinela, pilotuak,

kapitainak, arrantzaleak, baleazaleak, kortsariak zein kanoilariak, eta horietako zenbait oso adituak ziren. Itsas armadetan nabarmendu ziren; eta baita Ternuan ere, balearen ehizan eta bakailaoaren arrantzan; hala nola Ameriketako bideetan. Lezoko elizetan, beraz, maiz jasotzen ziren gantz-upelak edo bakailao kargak limosna gisa.

XVII. mendeko krisi orokorraz geroztik, ordea, itsasoari lotutako iharduera gehienak poliki-poliki ahultzen joan ziren, 1728an sortutako Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarra urte askotan pizgarri ederra izan bazen ere. Horren ondorioz, XVIII. mendearen azken aldean ia herriko itsasgizon guztiak baxurako arrantzaleak ziren. Alabaina, hiru txalupa hondoratu ziren oso denbora gutxian (1795, 1816, 1817), eta hogeita bat arrantzale ito, umezurtz eta alargun andana utziz beren gibelean. 1821ean oraindik baziren 4 tonako lau arrantza-ontzi, bakoitza 12-19 laguneko tripulazioarekin; eta lau batel, bakoitza lau lagunekoa. XIX. mendeko industrializazioak, ordea, Lezoko arrantzaren galera ekarri zuen.

### [Puntale (Errege Ontzigintzaren parean)] **LEZOKO ERREGE ONTZIGINTZA**

Lezoko Errege Ontzigintza (Gipuzkoako lehenengo errege ontzigintza Lourdes Odriozola Oyarbideren iritziz) 1597an eraiki zuten Port de la Bordan (Bor-

dalaborda), bertako superintendentea Antonio de Urquiola jenerala zela. Eta itzain, zurgin, itsasartotz, sokagile eta errementari askoren irabazpide bilakatu zen. Dena dela, Lezon izan zen ontzigintzarik urte hori baino lehen. Hala, esate baterako, 1574an ontzigile ezezagun batek “Maria” izeneko 850 tonako naoa eraiki zuen Lezon. Eta 1576an Juanot de Villaviciosa “El viejo” almirante lezoararak 700 tonako “Capitana” naoa eraiki zuen Port de la Bordan bertan, eta 1578an 346 tonako beste ontzi bat.

Lezoko Errege Ontzigintzan tamaina handiko itsasontziak eraiki ziren, batik bat itsas armadak eta Ameriketako ontzidiak hornitzeko. Baina, guztien artean, 1.200 tonako “Nuestra Señora del Pilar y Santiago” galeoia izan zen ospetsuena, “Capitana Real de la armada del mar Oceano”, 1609an Sevilako Juan de Beas maisuak eraiki zuena. Eta Lisbonan, halako handitasunarekin liluratuta, Felipe III.a berbera sartu zen galeoi horren barrenean. Halaber, besteak beste, 1612an Domingo de Idiaquez koronelak lau galeoi eraiki zituen. Eta 1632an Alonso de Idiaquezek beste bi: “Capitana Real” eta “Almiranta Angel de la Guarda”.

1632az geroztik Port de la Bordako ontzigintzaren gainbehera hasi zen, eta XVIII. menderako oso egoera txarrean zegoen. Hala, berrikuntza lanen kostua aztertu ondoren, Felipe V.ak leku hura abandonatzea erabaki zuen.



## [Puntale (Errege Ontzigitzaren parean)] (III. PASADIZOA)

1621.10.01

### NICOLAS DE ARIZABALO BIKARIO ORDEA

#### Galeoiaren bigarren bedeinkazioa

1621ean Martin de Navejas Villaviciosa kapitainak galeoi bat eraiki zuen Lezoko Errege Ontzigitzan. Eta, Domingo de Orcain San Juango bikarioak, haren baimenarekin, bedeinkatu egin zuen, eta San Juan Bautista jarri zion izena. Hurrengo goizean, ordea, zazpiak aldera, Nicolas de Arizabalo Lezoko bikario ordeak berriro bedeinkatu zuen, ia ezkutan oraingoan, eta zilarrezko gurutzea jarri zuen ontzi-muturrean. Hamarrak aldera Orcain ontzira igo zen, Lezoko gurutzea kendu eta San Juangoa jarri zuen haren lekuan. Gero, hiruretarako, jendetza handia bildu zen Port de la Bordan, eta dena prest zegoen galeoia uretaratzeko: jendea, idiak eta tresneria guztia. Kapitaina kapelua kenduta zegoen eta inguruko guztiak abemaria errezatzen. Orduan, ontzia mugitzen hasi zenean, Arizabalo galeoian sartu eta bigarrenez Lezoko gurutzea jartzen saiatu zen. Orcain, ordea, atzetik segika joan zitzaion galarazteko, eta sotana apurtu zion. Iskanbila izugarria piztu zen lezoarren eta sanjuandarren artean. Eta galeoia ez zuten uretaratu bi egun geroago arte.



*Andreone; urrunean Port de la Borda*



*Portua*



*Hazitokia*



*Markesane*

## [Polentzarrene kalea (portu aurreko parkea)]

### PORTUAREN BILAKAERA FISIKOA

Hasiera batean, eta denbora luzean, natura izan baldin bazen portuaren itxura eraldatzen zuen eragile garrantzitsuena (batik bat Oiartzun ibaiak -lehen Lezo ibaia- eta itsasoak) XIX. mendearen amaieratik aurrea gizakiaren ekintzak izango dira portuaren itxura--aldaketaren erantzuleak: paretan eraikuntzak, kanalizazioak, dragatzeak...

Erromatarren garaian, Pasaiako badia Oiartzun inguruko lurretaraino iristen zela esaten da; baina ibai honek ekarritako materialak hango inguruak betetzen joan ziren, azkenean herria itsasotik bananduz.

Pasaiako portua beti izan da garrantzi handikoa. XV. mendean bere iharduera nagusiak arrantza, merkataritza eta ontzigintza ziren. Bestalde, portu hau zatikaturik zegoen: ekialdea (Pasai Donibane eta Lezo) Hondarribiaren menpe; mendebaldea (San Pedro) Donostiaren menpe; eta Errenteria. Hori dela eta, hainbat mendetan zehar hainbat auziren iturri izan da.

Badiaren azaleraren baitan, Pasaiako portuaren mapa zaharretan (XVIII. mendekoak) bi eremu argi bereizten ziren: sarrera kanala (beti urpean) eta senaia (marearen arabera, zati handi bat agerian edo urpean gelditzen zena). Portuaren barneko erdialdea, senaia alegia, erreka estu batek (Oiartzun ibaia) zehar-

katzen zuen hondartza handi baten antzekoa ageri da.

XVIII. mendean hondoaren garbitze lan batzuk egin baziren ere, 1870ean egin zen portuaren lehenengo dragatze ofiziala. Ondoren kaiak, euste-paretak, eta abar eraiki ziren portua zeharkatzen duten uren (bai ibaiarenak, bai itsasoarenak) hidrodinamismoa aldatuz (abiadura, ibilbidea...). Bestalde, itsasontzietan erregai likidoaren erabilerak uren kutsatzea ekarri

zuen. XX. mende hasieran portuak izugarritzko itxura aldaketa jasan zuen, batez ere barrualdeko erdialdean (lehen senaia deitu dugun horretan).

Honekin guztiarekin batera, portuko uretan eta hondoetan bizi baldintzak aldatzen joan dira. Gaur egun portua osatzen duten horma eta itsaspeetan ia

*Hona hemen Jon Garbizu "Zubigar"ek idatzirikoa (Nere erriaren bazterra, 1925):*

**1**

*Erri-inguruko itxasparrendik  
ur aundi ayek juan dira  
ixil-ixilik ain aundia dan  
itxasoaren erdira;  
orain loi utsa gelditu zaigu,  
baña ala ere begira  
zein alai eta polita dagon,  
begira bazter guztira.*

**2**

*Loitan dabilta mutil koxkorrak,  
baita ere emakumeak,  
gizonak ere ageri dira  
emen bat eta an besteak;  
oju ta txistu, abesti ta par  
alai dabilta gazteak  
eta gu ere alaitzen gaitu  
ayek pozez ikusteak.*

**3**

*Beso batetik askok darama  
zintzilik otarretxoa  
eta barruan ailtzur-motx-motx bat  
arrotzeko loi-mordoa;  
ailturtxo motkaz arrotzen duten  
txirla edo muxkuiloaz  
berealaxe betetzen dute  
damaten otarretxoa.*

**6**

*Beste aldean ageri dira  
zizare biltzen gizon bi;  
auzo erriko arrantzaleak  
izan bear dute noski;  
barrentxeago ikusten ditut  
dabiltzala beste zazpi  
putxuloetan gelditu diran  
ixkirak biltzen poliki.*

**9**

*Lenago juan dan ura badator  
berriz loya estaltzera  
ta arrantzaleak irten zaizkigu  
loitatikan legorrera;  
zizarez bete dute batzuek  
zeramaten txukoera  
ta badijuaz arrantzarako  
guztia gertu jartzera.*

**12**

*Txirla biltzaile alayak ere  
juan dira ur ixkiñera  
beren otarre, pazi, eltze ta  
ailturtxoakin batera;  
tresna guztiak txirlaz betea  
dijuaz garbi janztera  
gero errira txukun juateko  
txirla ayek danak saltzera.*

**14**

*Aate ederrak "kua kua" egiñaz  
dabiltz arroxko urean  
eta arraitxoak berriz xaltoka  
ur axaletik aidean;  
"plaxta plaxtaka" ur aundi ura  
errira eltzen danean,  
ura da gauza gelditzen dana  
nere erriaren aurrean!*

**19**

*Asi ta laister kortxo ariña  
urpera zayote sartu  
ango arrayak janari ura  
amutik nai du ta kendu;  
orduan ordea arrantzaleak  
"dsi dsa" goruntz egiten du  
arraitxo ayek iñolan ere  
ez ditezen an gelditu.*

**22**

*Oso polita agertzen da ba  
beti nere erri basterra  
ur gabe dagon garayan, alai,  
urakin berriz ederra;  
arrantzarako ura bear da  
txirletako ordea legorra;  
ondo zekian Jaunak nola ein  
nere erriaren bazterra.*

bizitarik ez badago ere, garai ez oso urrunetan bizitza ugari zuten.

XX. mendearen lehenengo erdian, nahiz eta gizonaren eragina oso nabarmena izan, bai portuaren diseinuan (kanalizazioak eta dragatuak zirela eta), bai portuaren "osasunean" (kontaminazioa zela eta), portuaren egoera ez zen oraindik egun ezagutzen dugun bezain txarra.

1948ko datuen arabera, itsasorako irteeratik gertu dauden arrokatan lanpernak, lapak eta karra-  
kelak aurki zitezkeen; erdialdeko arroka eta hondarretan, muskuiluak, ostrak, berberetxoak, almejak, nabajak eta bestelako bibalboak; eta Lezo inguruan, barrualdeko lohietan, arrantzarako erabiltzen ziren zizareak. Jasotako izaki hauek guztiak merkatuan saltzen ziren. Gainera, ez da ahaztu behar, probetxu gabeko beste izaki asko ere izango zirela.

Gaur egun, ordea, jateko baliagarri den izakirik ez dugu portu barnean aurkitzen; eta bere hondoetako bizi baldintzak ere oso gogorak izan dira duela gutxi arte, batez ere Lezoko alderdian, ia ingurune guztiz abiotikoa izanik, hots, bizirik gabea. Azken urte hauetan, emisario bat egitearekin batera, Oiarzun ibaira zikinkeria eta zabor gutxiago isurtzen denez, portutik itsasoratzen den ura garbiagoa da; ondorioz, neurri batean bederen, portua ez da lehen bezainbeste kutsatzen eta bere bizi baldintzak pixkanaka-pixkanaka hobetzen doaz.

Dena den, portuaren itxuraldatzea ez dela inoiz amaituko dirudi. Eztabaida berri bat piztu da duela denbora gutxi: Jaizkibelen atzealdean portu berria egin eta hala portua handitzeko ideia, alegia. Azken batean, portuaren itxuraldaketak, honen magnitudearen proportzio berean, bailara osoaren itxuraldaketa ekar dezake.

### [Hipolito Gezala kalearen hasiera] **GIZAKIAREN PRESIOA, PADURAK**

Ingurune bizi-baldintza baten aldaketak izakiengan eragina izan dezakeela gauza jakina da. Lehen portuaren kasua aipatu dugu. Hona beste adibide bat.

Orain gauden lur zati hau artifizia da. Ere mu  
hau, lehen, padura zen, itsas mareen eraginpean zeuden lur sailak ziren hauek. Gizakiaren lur "beharra"rengatik, itsas eremu hauek bete eta erabat lehortuak izan ziren. Ondorioz, paisaia erabat aldatu da eta bertan bizi ziren landare eta animaliak ere zeharo aldatu edota desagertu egin dira.

Errekaren eta itsasoaren eragina pairatzen duten lur hauek, baldintza bereziko gunek dira: landare mota ugari agertzen da, animalia askoren bizileku dira... Aldi berean, lurak ere oso aberatsak eta baliagarriak izaten dira nekazaritzarako.

Itsasoari leku-irabazte ekintza hau aspaldiko giza-  
iharduera da. Bailara aldapatsu honetan itsasoaren bazterreko zabalgunek lau bat balio handiko bihurtzen da,

beste arrazoien batzuen artean, nekazaritzarako lur bihurtzeko (hastapenean gertatu zen bezala) eta eraikin handiak egiteko (etxebizitzak, lantokiak, biltegiak...). Azken honekin, alde batetik erabilera mugatu batzuentzat lurrak irabazten dira, baina bestetik, eta betiko gainera, biologikoki oso aberatsak diren lurrak galtzen dira.

Eremu hau lehortu aurretik, Erreneria aldera joateko bidea Zubitxo aldetik igarotzen zen, padura hauek inguratuz (gaur egungo errepidea dagoen lekutik gutxi gora behera).

1847tik aurrera Bekoerrotako senaia eta Altamirako azpiya padurak sikatzeko baimenak ematen hasi ziren. Hasieran, landu zitezkeen lur bihurtu zituzten, eta ondoren, gaur egungo itxura hartu baino lehen (eskola, parkea, kiroldegia, portuko zabalgunea) desagertu diren hainbat lantegiren (arrain-haztegi, kontserba-industria...) eta eraikinen kokaleku izan da.

Gizakiaren ekintzak berriz ere inguru honetako baldintzak aldatu ditu.

## [Lezo Herri Eskola]

### HAZITOKIA

Goiko Plazako pilotalekuaren atzeko aldetik pasatzerakoan, zuhaitz eta lorez betetako berdegune bitxi bat ikusten da. 1988 inguruan, Txerrimuñoko gazte batzuk lur sail hori garbitzeari ekin zioten. Garai haietan leku hori erabat utzita zegoen, dena hondakinez beterik. Udalarekin hitz egin ondoren, lanean hasi ziren bertan.



*Hagina*



*San Juan Bataiatzailearen parrokia*



"Guillermo de Muru eta Esteban de Villaviciosa borrokan"  
(Lander Zurutuza. 2005)



Parrokiako jarleku honetan eman zuen azken hatsa Guillermo de Muruk

Tailer moduko hau, interesatua zegoen jendeak landare eta zuhaitzez zer edo zer ikasteko baliagarria zen eta, era berean, hor hazitako landare eta zuhaitzak kalean edo mendian aldatzeko aukera ematen zuen.

Geroztik, hazitoki honetan mota askotako landareak (zuhaitzak batik bat) hazi izan dira (haltza, gereziondoa, erramua, pikondoa, udareondoa, muxika, haritza, gaztainondoa, lizarra, astigarra, platanondoa, sahatsa, makala, arkazia, aranondoa...) eta hauek udal barruti guztian barrena aldatuak izan dira: bai Altamira aldean, bai Jaizkibel aldean, bai Gaintzurizketa aldean, baita herrian barrena ere. Honetarako hainbat bide erabili da: urtero egiten den zuhaitz egunean herritarren bitartez, udalaren langileen bitartez, partikularren bitartez, Lezoko eskoletako ikasleekin antolaturiko ekologia-tailerren bitartez...

Talde honek, gaur egun ere, jarraitzen du herriko zuhaitzak zaintzen hazitoki honetako eta, zenbait kasutan, kanpotik ekarritako aleekin. Landutako zuhaitz hauekin ingurunea zaintzeko eta errekuperatzeko beharrezkoak diren ekintzetan laguntzen dute: basoak errekuperatu, bide bazterrak apaindu, erreka bazterrak babestu...

### [Markesane]

## KOMUNITATE HIRITARRA

Lezoko paisaia gizonak eskua sartu gabeko espazio naturalik ez dago. Udalerrri honetan hiru unitate nagu-

si bereizten dira: Azalera urbanizatuak, Landa zabala eta Ote lur Atlantikoa.

Azalera urbanizatuak gizakiaren presentzia eta eragin handieneko eremuek osatzen dituzte: etxebizitza-guneak, industria-guneak, trenbideak, errepideak, parkeak, lorategiak, kanposantua, portua... Fauna eta flora hiritarrak gizakiak ia erabat mugatuta daude.


Hainbat espezieik ingurune hiritartuetan beren garapenerako moduko girorik aurkitzen zail dute, baldintza oso zailak eta gorrak baitira. Beraz, egokitze-ko gaitasun handia duten edota beren beharretan exigentzia gutxikoak diren espezieen presentzia errazten da. Bestalde, etengabeko aldakuntzek eraginda, komunitate honen dinamika oso bizia da; gehienetan ez da garatzen hobekien egokituriko espeziea, aurrena iristen dena baizik.

Herri batean dagoen kutsadura maila (kutsadura atmosferikoa, akustikoa...) izaki hauen presentzia eta ugaritasuna aztertuz jakin daiteke neurri batean: likenak, landareak (murruntzak, haritz-iratzeak (polipodioak), huntza, pikondoa, asuna, mairu-belarra, txikori-belarra...), animaliak (labezomorroa, etxe-sagua, arratoi arrunta, horma-sugandila, sorbeltza, enara azpizuria...).

Dena den, hiri bateko izakirik ikusgarrienetarikoa zuhaitzak dira: handiak dira eta beti leku berean daude. Zuhaitzak garrantzi handikoak dira gizonarentzat, eta oro har, lurrarentzat eta bertan bizi diren izaki guztientzat. Arrazoi ugari dago zuhaitzen garrantzia erakusteko,

baina hemen hiriko ingurunean lor daitezkeen abantaila eta onura batzuk aipatuko ditugu soilik:

- Kutsadura atmosferikoa gutxitzen dute: zuhaitzek karbono dioxidoa xurgatzen dute. Auto eta lantegiek, ikatza eta petrolioa erretzean, gas honen kantitate erraldoiak botatzen dituzte airera. Gizakiaren eraginagatik kutsadura handituz doa eta zuhaitzak gutxitzen. Zuhaitzak landatzea gure ingurugiroa babesteko egin dezakegun gauzarik onenetakoa da.



- Biodibertsitateari eusten diote. Zuhaitzek basoak eratzen dituzte eta, beren babesean, izaki bizien barrietate eta kantitate handiak gordetzen dituzten komunitateak osatzen dituzte. Beraz, zuhaitzek biodibertsitate

handia mantentzeko ingurugiroa sortzen dute. Zuhaitzen desagertekin berari egokitutako gainontzeko izakiak ere desagertu egiten dira.

- Lurra babesten dute. Zuhaitzek lurraren gainean estaldura handia eratzen dute, euri tantak, kazkabarra edo elurraren bat-bateko erortzea geldiarazten dute, lurra babestuz.

- Ur bazterrak babesten dituzte. Erreka ertzetan, zuhaitzak uraren bideratzaile garrantzitsuak dira eta bihurtune edo meandroetan modu garrantzitsu batez gutxitzen dute urak aldeetan eragiten duen higadura, horrekin moteldu egiten dute lurraren galera, eta oso bereziki uholdeak izaten diren aldietan. Urbazterreko zuhaitz hauek desagertzen direnean, errekek erosio-ekintza azkarragoa burutzen du eta lur kantitate handiak eramaten ditu etengabe ubidean behera.

- Apaingarriak. Zuhaitzak garrantzizko elementu apaingarriak dira lorategi, hiri, kale eta herrietan. Gainera, hostoak elementu itzal emaile nagusiak dira.

### [San Juan Bataiatzailearen parrokia]

### HAGINA (Tejo, *Taxus baccata*)

Hagina orratz-formako hosto motzak dituen koniferoa da. Ez du inolako pinaburu motarik sortzen. Hostoak sekuoia luzearenaren oso antzekoak ditu.

Haginek dituzten orratz-formako hosto gogorrek oso neurritz kanpoko kondizioak, izozte handiak eta eguzkitzapen handiak jasan ditzakete. Gainera, oso

haziera azkarreko landareak dira, eta paira ditzaketen kalte edo inausketa natural edo artifizialeetatik berehala zuzpertzten dira.

Oso azaleko sustrai-sistema handia dute, lurzoru gutxi dagoen alderdietan eta edozein motatako eremuetan arroka arteko arrailaduretan edo hutsarte txikietan garatzeko aukera ematen diena, nahiz eta kare-lurrak gustukoago izaten dituela dirudien.

Txoriek oso estimatuak dituzte beren fruituak, hauen estalki mamitsua jaten dutelarik, baina barruko hazia oso toxikoa denez gero, bota egiten dute; hori dela eta, haziek leku gordeenetara iristeko aukera izaten dute, bereziki harkaiztegi-tara, arroiletara eta leku malkartsuenetara, non beren kabuz garatzen baitira lur pixka bat aurkitzen duten edozein arrailadura, hutsarte edo lekutan.

Horren ondorioz sarri aurkitzen da modu naturalean Euskal Herri osoko mendi askotan, arroila karesuetan, eremu karstikoetan, baso mistoetan eta herrialde honetako erdialde eta iparraldeko beste puntu askotan.

Hala eta guztiz ere, haginak sarrien aurkitzen ditugun tokiak lorategiak dira, non inausketarekiko duten iraupena eta bizitasun handia probetxatzen den, beraiekin hesiak edo esfera, erdiesfera, erroseta eta forma anitzeko irudiak eratzeko. Kasu hauetan, oro har, oin arrak erabiltzen dira, zeren eta emeen haziek, pozointsuak direnez gero, arrisku larria sor dezakete umeentzat.



Haginak dira Lezoko herriaren armarrian agertzen diren hiru zuhaitzak.


## [San Juan Bataiatzailearen parrokia] **ELIZA**

Jatorria batere argi ez badago ere, ezagutzen den lehenbiziko aipamen idatzia 1399koa da. Alabaina, XVI. mendearen lehen erdian berreraikitze lan garrantzitsuak hasi ziren, pareta zaharrak bota eta berriak jasoz. Lan horiek Domingo de Juan Sansoro hargin-maisuak bukatu zituen, hain zuzen ere 1557tik 1563ra bitartean. Honek, ate nagusia eta albokoa eraikitzerakoan Usurbilgo elizako atea hartu zituen erdutzat, eta mendebaldeko paretan dagoen eskailera kiribila eraikitzerakoan Errenteriako Santa Maria elizakoa. Halaber, mendebaldeko paretan bi harri ilara egin zituen, kanpandorre duin baten hastapen gisa, gero inoiz eraiki ez bazen ere.

Eliza, 1557ra arte, sanjuandarren parrokia ere izan zen. Hirigunearen erdiko tontorrean dago, eta kanpoaldeko horma-bularrek gaztelu handi baten itxura ematen diote. Gotikoaren aztarnak ditu, eta barne bakarrekoa izan arren alboetan XVI. mendean eraikitako kaperak dauzka. Aldare nagusiko erretaula (1633) Diego de Mayora eskultorearen lana da, eta bere lekuan jarri ahal izateko absidearen erdiko leiho gotikoa adreiluz itxi behar izan zen. Sagrarioa, gurutzeria-ganga, Ehorzketa Santuaren harrizko irudia, eta



*Parrokiako erretaula nagusia*



*Parrokiako Ama Karmengoaren kaperak*



Ama Karmengoaren erretaulako xehetasuna: Juan Nuñez de Yerobi



Ama Karmengoaren erretaulako xehetasuna: itsasontzia ekaitzaren mende

Ama Birjina Haurrarekin irudikatzen duen Flandesko eskolako koadroa ere (gaur egun elizbarrutiko museoan dagoena) aipagarriak dira.

Bestalde, Independentzia gerraren (1808-1814) amaieran, frantziarrek alde egin eta gero, Wellingtonen soldaduak ia urtebetez egon ziren elizan kantonatuta, kalte handiak eraginez.

### [San Juan Bataiatzailearen parrokia

(alboko ataria)]

(IV. PASADIZOA)

1664.02.03

**GUILLERMO DE MURU Y**

**LEZOANDIA**

**Duelua eta heriotza**

---

1664an herriko zaldun batzuk Pedro de Zuloagaren etxean bildu ziren. Ardo zurrutaden artean karta jokoan aritu ziren. Noizbait jokoa eten egin zuten, eta Guillermo de Muru eta Esteban de Villaviciosa kapitaina liskartu egin ziren, lehenak bigarrenari ezpata ateratzeraino. Giroa baretu eta etxea hustu zenean, Muru Gurutze Santuaren basilikara joan zen otoitz egitera. Gero, ia ilunpean, Lezoandiako bidea hartu zuen. Eta parrokiaren albotik zihoanean Villaviciosa agertu zitzaion, ezpata zorrotik atera eta aurre egiten ziola. Biak, ezpatak airean, bortizki borrokatu ziren. Villaviciosak ezpatakada bat hartu zuen eskuin aiekan, eta burutik ere odola zerion. Ala-

baina, lurrera erori baino lehen ezpatakada beldur-garria eman zion Mururi, gorputza alderik alde zeharkatuz. Muru hiltorian geratu zen parrokiaren alboko atariko harrizko jarlekuan. Arnasestuka ari zela, Palaziotik etxera zihoan bere seme Guillermo inguratu zitzaion. Aitak eskatuta, atzera Palazioraino joan zen lasterka bizian, egoitza bertan zuen bikarioaren bila. Hala, emakume batek burua eusten ziola, bikarioak oliadura eman zion, eta azken hatsa eman zuen. Bestalde, Villaviciosa kaiaren aurreko kaputxinoen komentura joan zen. Han egun batzuk egin ondoren ihes egin zuen Frantziako erre-sumara.

## [San Juan Bataiatzailearen parrokia] HILERRI ZAHARRA

Parrokia antzinatik herriko hilerria izan zen. Eta XVI. mendean, eliza handitu eta alboetako kaperak eraiki zirenean, errotuluak zituzten hainbat hilobi zahar desagertu ziren.

XVII. mendearen hasieran, esate baterako, hilerria bitan banatua zegoen. Batetik, elizaren barreneko gunea zegoen: alboetan bi kaperak partikular, bata Juango de Vizcayarena, eta bestea Cuzcoko (Peru) apezpiku hautatu zuten Domingo de Lezo y Villaviciosa doktorearena; aldarearen inguruan zazpi hilobi berezi, herrian hildako bikario eta apaiz lezoarrak lurperatzeko; eta gainerako lurzoru gutzia, Sarasti etxeko

ehortz-leku partikularra izan ezik, herriarena. Bertan, diru-sari bat ordainduta, zentutako edonor lurperatu zitezkeen. Eta hilarri askok zizelkatutako irudiak zituzten: armak, dorreak, gurpilak, itsasontziak eta beste. Bordandia etxeko hilobi zahar-zahar batek, bestalde, errotuluak eta guzti zeukan. Ohitura hori, ordea, ia galduta zegoen. Bestetik, zimitoria edo elizaren kanpoaldeko gunea zegoen, behartsuak eta ezezagunak lurperatzeko.

Alabaina, elizetan ehortzleak osasun publikoan ondorio kaltegarriak zituenez, 1787az geroztik zenbait errege-agindu aldarrikatu ziren, ohiturak aldatu eta hilerriak herrien kanpoaldera eramateko xedez. Hala,



1823an Lezoko hilerri berria ireki zen itsasbazterrean, hain zuzen ere Errenteriako kaputxinoen komentuaren parean.

### [San Juan Bataiatzailearen parrokia]

(V. PASADIZOA)

1605.05.09

**LOPE DE ISASTI**

**German de**

**Ugarteren**

**hilarria**

1605eko gau batean, Lope de Isasti doktorea eta hainbat herritar parrokian sartu ziren, ezkutuan. Zuzien argitan German de Ugarte inkisidorearen (+ 1532) hilobia ireki zuten; eta bertako harlauza kanpora atera, haren orde zekarten hilarri dotorea ipintzeko asmoz. Honako hau zioen oroitarriak, hizki handiz grabatuta: AQVI YAZE EL SEÑOR DON GERMAN DE VGARTE YNQVISIDOR DE CALAORRA, beste titulu askorekin batera. Herriko agintariek, ordea, zarata entzun egin zuten. Erne jarri eta elizan sartu ziren, Hernando de Zubitola bikarioarekin. Honek, horrelakorik ezin zela egin azaldu zuen. Gero Isastiri arropatik heldu eta kalera ateratzeko agindu zion. Liskarra sortu zen bien artean. Eta, gau hartan, ezin izan zuten bukatu lana. Bai, ordea, hurrengo goizean. Azkenik, Isasti preso sartu zuten Iruñeko apezpikuaren dorrean.

### [San Juan Bataiatzailearen parrokia

(Ama Karmengoaren kapera)]

**JUAN NUÑEZ DE YEROBI**

**KAPITAINA**

Juan Nuñez de Yerobi kapitain eta ontzigilea, Lezon sortutako gizonik boteretsuenetako bat, Felipe IV.aren funtzionarioa izan zen, eta ardura handiak izan zituen administrazioan.

Gaztetan eritasun larri bat izan zuen, baina San Juan Bataiatzailearen parrokian bederatzirena egin ondoren, sendatzea lortu zuen. Eta, gertaera horren ondorioz, betiko errotu zitzaion santu horrenganako debozioa. Hala, esate baterako, parrokiako Ama Karmengoaren kapera eraikiarazi zuen bere kontura, erretaula eta burdinsare bikainekin.

Eta, ospe handiko gizon bihurtuta Sevillan bizi zela, Ameriketako zilarra Espainiara garraiatu ohi zuen ontzidiko administratzaile eta bertako galeoietako maisu gisa, dohaintza handiak egin zituen Lezoko elizetarako: bi lanpara (bata parrokiarako eta bestea Gurutze Santuaren basilikarako), zilarrezko intsentsu-ontzi bat, zilarrezko argimutilak eta bordatutako oihalak, besteak beste. Halaber, dirutza handia eman zuen parrokiako erretaula nagusiaren eraikuntzarako.

Bestalde, kristau gatibu bat ere erreskatatu zuen Argel-etik, hain zuzen ere Francisco de Amezqueta pasaitarra, hiru mila eta gehiago erreal xahututa.



# Altamira - Bordatxo

## Nekazaritza

Beko plaza

Altamira

Darietazarra

Miura

Maritxuenea

Urrileku

Maritxuenea

Bordatxo

Minkura

Zubitxo

Beko plaza

**IRAUPENA:** 3 ordu eta erdi


**ZAILTASUNA:** 1/5 (©0000)

## 2. ibilbidea



### IBILBIDEA ZEHATZ-MEHATZ

Beko plazatik abiatu eta Donibane kalea zeharkatu. Altzateko gañako biribilunera iritsi aurretik, ordea, ezker aldeko oinezkoen tunela igaro. Goiti joan Altamiran barrena, Tomas Garbizu kalea zeharkatu eta Mendebal (Lezo Institutua) pareko kaskotik aurrera jarraitu. Darietaberriko bidegurutzean eskuinera jo, Darietazarra baserriraino. Bidegurutzera itzuli eta bidean aurrera egin, Matejoane baserriaren ondotik. Xoxolarrea eskuinean dugula, Miura baserrira iritsi. Jarraian, Inglesetako erreka-aren iturburua eskuinean dugula, Otsaloia izeneko bidean aurrera egin, Maritxuenea etxeraino (Juanetxoneko lurra). Zuzen jarraitu, Torrejil baserritik behera, eta Gaintxurizketako errepidea gurutzatu. Malda txiki bat igo Urrileku baserriraino. Lehengo bidetik Maritxuenea etxera itzuli. Jarraian, eskuineko bidetik beheiti joan, Bordatxotxoko eta Bordatxo baserrien ondotik. Larrezabalgo bihurtunean ezkerreko bidetik jarraitu, Bordaberri baserriaren ondotik eta Arreskalletatik behera, Beko zelaia ezkerrean eta txatartegia eskuinean ditugula. Argindar-transformadorearen parera iritsitakoan ezkerreko bidea hartu, Minkura baserriraino. Argindar-transformadorearen ondora itzuli eta txatartegiaren paretik behera jarraitu, Gaintxurizketako errepideraino. Elias Salaberria hiribidea zeharkatu. Jarraian, Zubitxotik Lezo Herri Eskolara joan, Marienea etxetik Goiko plazara igo eta, azkenik, Beko plazara jaitsi.







## [Jauregialde (Matxingo lurmuturraren parean)]

### KAPUTXINOEN KOMENTUA

---

Lezoko Kaiaren parean, baina Errenteriako lurretan dagoen Kaputxinoetako lurmuturrean (Matxingo), alegia, gaur egun esportazioko kotxeak ontziratzeko erabiltzen den gunean, garai batean frantziskotarren komentu bat egon zen. Hain zuzen ere, fraide kaputxinoena, eta “Nuestra Señora de la Misericordia y del Buen Viaje”ren izenpekoa.

Lehendik kaputxino horiek Errenteriako errebaletan bizi izan ziren. 1612ko irailaren 22an, ordea, leku berriaz jabetu ziren; 1613ko azaroaren 17an komentua sagaratu zuten; eta, azkenik, 1617ko abuztuaren 15ean bertara aldatu ziren. Ia guztiak euskaldunak ziren, eta aita santuak emandako baimen berezia zuten, hala konfesatzeko nola predikatzeko. Eta horren ondorioz, eragin handia izan zuten eskualdeko herritarren pentsamoldean. Lezora ere maiz etortzen ziren, urteko garai eta jai egun jakin batzuetan sermoia egitera: garizuman, San Juan Bataiatzailearen egunean, eta maiatzeko zein iraileko Gurutze Santuaren egunetan, besteak beste. Elizetako diruzainak batela, sermoia eta bazkaria ordaintzen zien. Bestalde, 1824tik 1835era bitartean bertako fraideak arduratu ziren Lezoko parrokiak.

1835eko apirilaren 5ean, ordea, Errenteria liberalen esku zegoela, komentuko bost fraidek ihes egin

zuten. Eta urte berean, Gipuzkoako komandantearen erabakiz, gainerako hamaika erlijiosoak indarrean atera zituzten, Valladolidera eramateko. Jarraian, liberalek gotorleku gisa erabili zuten komentua. Eta 1837ko otsailaren 22an karlistek su eman zioten. Gero, liberalek bultzatutako desamortizazioaren ondorioz, komentuaren lurrak zein hondakinak esku pribatuetara pasatu ziren. Hala, Joaquín María de Ferrer senadorea bihurtu zen bertako jabe.

## [Jauregialde]

### (I. PASADIZOA) 1633

### NUESTRA SEÑORA DE LA MISERICORDIA Y BUEN VIAJE Kortsari-ontziaren hondoratzea

---

Errenteriako “Nuestra Señora de la Misericordia y Buen Viaje” kortsari-ontzia (Kaputxinoen komentutik hartutako izena zeraman), eskualdeko marinelez hornitua, 1633an atera zen Pasaiako portutik. Ontziaren jabea Domingo de Berrotaran errenteriarra zen, eta kapitaina Sebastian de Echeberria pasaitarra. Harra-pakina lortzearren iparraldera jo zuten, Frantziako itsasbazterretik hurbil. Eta egun gutxira mairuz hornitutako pirata-ontzi batekin egin zuten topo Ingalaterrako Kanalean. Borrokatu ondoren, ordea, beren ontzia urpean galdu zen betiko. Eta une latz hartan bizirik atera zirenak gatibu eraman zituzten Berberriako kostara, hain zuzen ere Rabatetik gertu zegoen Sale hirira.

Sei urte geroago, ontziko kapitaina eta zenbait marinel erreskatatuta etorri ziren atzera beren herrietara. Beste batzuk, ordea, ihesari eman ondoren itzuli ziren.

[**Altzateko gañatik gertu**]

## **ITSASOARI IRABAZITAKO LURRAK**

Garai batean Lezo lintzuz edo padurez inguratuta zegoen. XIX. mendean batez ere, padura-sail handiak lehortu egin ziren, bertako berezko landaretza suntsituz eta soro-lur aberatsak lortuz.

Hasiera batean nekazaritzarako lur berriak sortzeko estali baziren ere, gerora fabrikek eta portuko trafikoak hondatu eta bereganatu zituzten urbazter guztiak. Hori gertatu baino lehen, ordea, Lezoko badia Donibaneko Bizkaia auzotik Errenteriako Gabierrotaraino (Gabierrotarra) hedatzen zen: Bordalaborda (Port de la Borda) – Kosta – Puntale (lurmutur txikia) – Kaia – Portua (Port de Lazon) – Altzateko plaia – Oiartzun (Lezo) ibaiaren eskuineko ertza, Altzateko plaiatik Gabierrotaraino.

Padura batean, naturalki ibaiak ekarritako sedimentu finak (buztin eta limoak batez ere) pilatzen joaten dira, estuarioan sartutakoan urek abiadura galtzen baitute; ondorioz, uharte eta eremu zingiratsu hauek eratzen dira. Estuarioan, alde batetik itsasoko ur gazi eta ibaiko ur gezak nahasten dira eta, bestetik, itsasgoran uharteak eta inguruko beste zenbait lursail urez estaltzen dira; beraz, baldintza gogorreko ingurunea



*Matxingo*



*(Lander Zurutuza. 1993)*



Darietazarra



Matejoaneko inguruak

da hau eta, honen ondorioz, moldapen bereziak dituzten landare-komunitateak topatzen ditugu eremu hauetan. Dena den, estuario osoan baldintzak ez dira berak, izan ere, zoruaren lohitze-maila eta uraren gazitasuna txikituz doaz itsasotik bokale barnerantz goazen heinean, honela, landare eta fauna desberdineko sailak beha daitezkeelarik.

Gaur egun, paduren egoera latza da zenbait giza ekintzek (zaborrekin egindako betelanek, drainaketek, dragaketek edo ibaien kutsaketek ere) paduren hedapen-areak eta beraien naturaltasun-maila izugarri murriztu baitituzte.

## [Darietazarra] UR-BILTEGIA

Lezon erabiltzen dugun urak bi jatorri ditu: bata Jaizkibel mendia eta bestea Añarbeko urtegia.

Añarbeko urtegitik etorritako ura, herrian zabaldu baino lehen, Darietazarra ondoko biltegi honetara bideratzen da.

Darietako ur-biltegia 1973. urtean eraiki zen eta, kapazitate aldetik, Lezon dagoen handiena da.

2003ko lehenengo bi hiletako datuetan oinarrituz, biltegi honetatik Lezon kontsumitu den uraren % 30 atera da, gainontzeko % 70 Jaizkibelgo biltegietatik atera delarik.

Biltegi honetako ura Lezoko hirigunera, batez ere auzo berrienetara, eta Gaintxurizketako industrialde-

ra bideratzen da, guztira, 3.425 biztanle hornituz, hau da, Lezoko populazioaren erdia baino gehiago.

Urtean, batez beste, 2001-2002 urteetako datuetan oinarrituz, eguneko 1.108,5 m<sup>3</sup> ur bolumena banatzen dela kontuan hartuz, biltegi honetatik hartutako ura 324 l/biztanle/egun da (Bunotxoko biltegitik 2.631 l/biztanle/egun eta Iparragirreko biltegitik 164 l/biztanle/egun).

## [Dariatzarra]

(II. PASADIZOA) 1749.04.27

### JOSEPH ANTONIO DE ELIZEGI

#### Liskarra sagardotegian

---

1749ko afalondo batean sei laguneko gazte koadrila bildu zen Dariatzarra baserrian, bertan salgai zegoen sagardo upelaren aitzakian. Zurrutaden artean berriketan aritu ziren. Bat-batean, ordea, Ambrosio de Garralde esan zion Joseph Antonio de Elizegiri bi egun lehenago difamatu egin zuela Altamira baserrian, esanez Juan de Aristizabalen lepotik barre egin zuela; eta bazeukala horren lekukorik. Ezta-



baidan hasi ziren. Orduan Garralde ukabilkada eman zion Elizegiri, lurrera botetaz. Elizegi lurretik altxatu zen amorru biziz eta, atalaga eskuetan, Garralde kolpatzen saiatu zen, baina tartean sartu zen Antonio de Etxebeste adiskidearen bizkarra astindu zuen ustekabean. Gero berriro saiatu zen Garralde kolpatzen. Baina atalagak, oraingoan, Juan de Aristizabal lehengusaren burua jo zuen. Eta honek, azkenik, haserreari ezin eutsirik hiru ukabilkada eman zizkion aurpegian.

## [Dariatzarra]

### LIBERALEN GOTORLEKUA

---

Azken mendeetan zehar Lezok gerraren ondorio latzak jasan ditu behin eta berriz. Hala, esate baterako, 1476an, 1638an, 1719an, Konbentzioko gerran (1793-1795) eta Independentzia gerran (1808-1814) Frantziako armada herrian sartu zen, eta kalte izugarriak eragin zituen bide, etxe eta soroetan. XIX. mendeko karlistadek ere gogor astindu zuten herria; eta zer esanik ez 1936ko Gerra Zibilak.

XIX. mendeko karlistadetan (1833-1839 eta 1872-1876), bestalde, herriko zenbait eraikin gotortu egin zituzten. Hala, lehenengo gerran, 1835etik aurrera karlisten tropak herrian kantonatuta egon ziren, eta Andreone etxea gotortu zuten –bertako nagusiak Donostiara ihes egin zuen familia osoarekin batera–, harik eta 1837ko maiatzean

gobernuaren armada (liberalak) herriaz jabetu zen arte. Etxea, jakina, suntsituta geratu zen. Eta bigarren gerran, 1874an, gobernuaren armadak Gurutze Santuaren basilika gotortu zuen, eta baita gotorleku berri bat eraiki Darietazarra baserriaren lurretan.

Darietazarrako kaskoa oso leku estrategikoa da. Bertatik Lezoko udal-barruti guztia ikusten da, baina baita Donostia –Urgull mendia–, Pasaiako portua, Errenteria –San Marcos– eta Aiako harria ere. Gotorlekua Errenteriako gobernadore militarren aginduz egin zen. Behartutako 114 lagun aritu ziren lan horretan, eta denen artean 2.041 lanegun osatu zituzten. Gaur egun gotorlekua desagertuta dago.

### [Gabiria baserriaren parean]

(III. PASADIZOA) 1555.03.26

## LEZO ETA OIARTZUN VERSUS

## ERRENTERIA

### Gabirierrotako zubia

---

1555ean hogeita gehiago lezoar bildu ziren Gabiria baserriaren inguruan. Eta, oiartzuarrekin hitzartuta, zurezko zubi berri bat eraikitzeari ekin zioten Gabirierrotako ubidean, Errenteriako muga-mugan. Era berean, Errenteriako lurretan sartzan ere ausartu ziren, eta gurdibide bat egiten hasi ziren. Asmoa zen Oiartzungo burdina eta gainerako produktuak zuzenean Lezotik porturatzea, Errenteriako lonjan errege eskubiderik ordaindu gabe. Hiribilduko agintariek,

ordea, beren basozainak jakinarazita, bertara jo zuten herritar multzo batekin. Beraientzat auzia oso larria zen. Orduan zalaparta handia sortu zen. Oihuak eta mehatxuak izan ziren alde bateko eta bestekoen artean, eta lezoarrek ezin izan zuten lanean jarraitu. Baina beraiekin batera zebilen Esteban de Lartaun oiartzuarrak erronka egin zien errenteriarrei: zubiaren eraikuntza galaraziz gero Oiartzun aurrean izango zuen Errenteriak, Lezorekin bat eginda.

### [Matejoane (Agerrezar baserriaren parean)]

## SALBATORE ELIZA

---

Gaur egun desagertuta dagoen Salbatore eliza Oiartzungo lurretan zegoen, Lezoko lurrekin mugakide den Agerrezar (Agirre) baserriaren beheko aldean, hain zuzen ere. Erdi Aroan eraiki zen, eta Santiagoko bidearekin lotura zuen. Hala, 1756an erromes baten hilotza agertu zen bertako estratan, Gabiria eta Matejoane baserrien artean. Hango alabastrozko irudi zaharrak Donostiako San Telmo museoan daude gordeta.

XVI. mendean, bestalde, errogatiba garaietan lezoarrak eta oiartzuarrek prozesioan joaten ziren Salbatore elizara, letaniak kantatuz. Alegia, lehorte luzeak edo eurite etengabeak uzta arriskuan jartzen zuenean, besteak beste, herri guztia bildu eta bertara joaten zen Jainkoari arren erremedioa eskatzera. Ohitura hau, beraz, lurrari estu lotutako gizarte nekazari baten erakusgarri da.

Lezon, ordea, beste leku batzuetara ere egiten ziren errogatibak: Gaintxurizketako gurutzera, Gurutze Santura... Esate baterako, 1770eko apirilaren 7an horietako bat egin zen Lezoko kargudunen aginduz. Hala, elizgizon, agintari zein herritar xumeak prozesio orokorrean joan ziren San Juan Bataiatzailearen parrokiatik Gurutze Santuaren basilikaraino. Eta han, udaberri hasiera hartako eguraldi ekaiztsua baretzearen, meza abestua eskaini zioten gurutzeari.

## [Matejoane - Miura]

### **GEOLOGIA, LUR AZPIKO URAK**

Errekak eta ibaiak mendi gorenetan gertatzen den elurra urtzearen ondorioz sortzen direla ikasi dugu. Baina hemen (Lezoko inguruetan, alegia) ez dugu ez mendi alturik ez elurrik. Nondik sortzen dira bada gure errekek?

Naturan hainbat harri mota dago, eta euren urarekiko erantzuna edo portaera ere ezberdina da. Lurrak eta harriak iragazkaitzak edo iragazkorrak izan daitezke urarekiko. Margak eta buztinak iragazkaitzak dira. Hareak eta karriak iragazkorrek dira.

Urak lur sail iragazkorrek zeharkatzen ditu zati iragazkaitz batekin topo egin arte. Orduan, kararren zirrikitu eta harearren tarte guztiak urez betetzen dira, lur azpian ur-poltsak edo putzuak eratuz.

Gipuzkoan karria ugaria da, eta, ondorioz, berorren iragazkortasun altua dela eta, formazio harritsu



*Miurako mugarrria*



*Miura*



Miurako ikuilua



Bordatxo

hauetan munta handiko gordailu hidraulikoak dituzten akuifero inportanteak izateko posibilitate handiak daude. Akuifero hauek lurralde-azaleraren % 20a osotzen dute.

Lezo eta bere inguruko lurretan hareharriak eta kararriak oso ugariak dira.

Lurralde karetsuen ezaugarri bat ur-lasterrak barrutik igarotzen direla da, eta kanpoko ibai edo errekarik ez dagoela. Gogorra izan arren, kare-haitza ur gazi eta hotzei esker kimikoki higitzen da, bere baitan leize-zulo handiak sortzen direlarik -hemen aipatu behar da, Lezoko Altamira auzoan, Altzateko gañaren inguruan, 1997. urtean autobidearen tunelaren lanak egiten ari zirenean, bi leize-zulo agerian geratu zirela; baita berehala porlanez bete ere-. Zirrikitu eta zulo handi hauek erreken desagertzea eragiten dute askotan, hots, erreken lur azpiratzea. Ur hauek, lur azpiko zulo eta labirinto bat iragan ondoren, berriro azalera-tuko dira iturri naturalen modura.

Lur azpitik doazen ur hauen eragina kontuan hartzekoa da, lur mugimenduekin erlazionaturik zenbait ondorio arriskutsu erakar baititzakete. Aipagarrienak lur labainketak (infiltrazioko urak eraginda; ura, lur iragazkorrak zeharkatu ondoren, lur iragazkaitzetan pilatzen joaten da pixkanaka-pixkanaka, azkenean lur geruza hori irristakor bihurtuz) eta lur apurketak (kararriaren disoluzioa dela eta, bere barneko zirrikituak eta zuloak handitzen doaz) dira.

[Miura]

**MUGARRIA**

Lezoko udal-barrutiak laukizuzen itxura du, eta 8,5 kilometro karratuko azalera. 1897ko agiri baten arabera bere perimetroan guztira 47 mugarri zeuden, baina gaur egun horietako batzuk desagertuta daude. Gehienak gizakiak landu eta bertan jarritako harriak dira, baina Jaizkibelen badira bertako harkaitza aprobetxatuz egindakoak ere, batere landu gabeak.

Bestalde, Lezoko herriak Oiartzunekin dituen mugak udal-barrutiko zaharrenak dira. Garai batean bi herrien arteko mugarriak (edo zehaztasun handiagoz esateko, Hondarribiko hiriaren jurisdikziopeko Lezoko unibertsitatearen eta Oiartzungo haranaren artekoak) Usategietako gaineratik Pasaiaiko itsasadarre-raino hedatzen ziren. Geroago, ordea, 1320an Gaztelako erregeak Villanueva de Oiarso fundatu zuen, alegia, gaur egungo Erreterria; Oiartzungo lurak murriztuz, eta etorkizunean sesio iturri izango zen eskubide bat emanez, hain zuzen ere Erreterriako portutik itsasoratzen ziren produktuak bertako lonjan zergapetzeko ahalmena –hiriaren izena bera hortik dator–.

1897ko agiriaren arabera, hamahiru dira Lezo eta Oiartzunen arteko mugarriak, Usategietatik Gabiriako errekaraino; eta beste hainbeste Lezo eta Erreterriaren artekoak, aipatutako errekatik Arraitokiko zabaldegiraino. Guztiak landutako harri prismatikoak dira, hareharrizkoak. Bestalde, Oiartzun ibaiaren inguruan, lehorreko lurak Lezorenak dira, eta itsasoari irabazitakoak Erreterriarenak.

Miurako mugarria izen bereko baserriaren parea dago, bideaz beste aldean. Seinale bezala bi letra dauka: L (Lezo) alde batean, eta O (Oiartzun) aurkakoan; eta baita marra bat ere goiko aldean. Halaber, Hondarribia eta Oiartzunen arteko garai bateko mugarri zaharra dauka ondoan, zenbaki erromatar eta guzti.

[Miura -



**Maritxuenea  
(bide bazterra)]  
SASIARKAZIA  
(Falsa acacia,  
*Robinia pseudoacacia*)**

Arkazi eta sasiarkaziek (*Sophora*, *Robinia*) hosto konposatuak eta inpari-pinatuak dituzten leguminosen familiako zuhaiska sail bat osatzen dute. Tximeleta formako lore zuriak, horiak edo tarteka zurigorriak dituzte, eta beren fruituak leka leunduetan dituzte.

Sail honetan, Euskal Herrian ugarien izaten den zuhaitza sasiarkazia da. Adar guztiak babesten dituen arantzak ditu. Oso haziera azkarreko zuhaitza da, eta leku hezeak hobesten ditu. Bestalde, izozteak, kutsadura atmosferikoa eta zementuari darion berotasuna ere ondo pairatzen ditu; horregatik, hiri, lorategi, erreka ertz eta errepideetan asko erabiltzen da.



## [Maritxuenea]

### NEKAZARITZA

---

Historian zehar nekazaritza oso garrantzitsua izan da Lezoko ekonomiarentzat, eta baserritarrek populazioaren zati handi bat osatu izan dute. Esate baterako 1926an, industrializazioa jada garatua zegoela, 72 baserri eta 103 etxebizitza zeuden herrian. Alabaina, oinarrizko elikagaien ekoizpena defizitariora izan da beti, inoiz ez da nahikoa izan bertako beharrak asetzeko. Horren ondorioz, garia, ardoa eta olioia bezalako zenbait produktu kanpotik ekarri behar izaten ziren, hala itsasoz nola lehorrez. Eta populazioaren zati handi bat itsasoko lanbideetatik bizi izan zen, edo Elizakotatik, edo Ameriketara emigratu behar izan zuen. Hala, sakramentu liburuen arabera, 1641 eta 1750 bitartean zendutako herritarren % 18 baino gehiago, itsasoan edo Euskal Herritik kanpo hil zen. Ameriketatik etorritako artoak eta patatak, ordea, nekazarien bizi-baldintza gogorrak leundu zituen.

Ia beti baserritarrak maizterrak ziren, eta nagusiei uztaren zati garrantzitsu bat ordaintzen zieten. Hauek, aldiz, maiorazkoaren ohiturari esker, baserri bat baino gehiagoren jabe ziren askotan. XVII. mendean, esate baterako, Guillermo de Muruk honako jabetza hauek zituen: Lezoandia eta Mitxelkonea etxeak; Bekoerrota eta Goikoerrota; Olazar baserria; Hondarribiko Altxakoa, Altxakoandia eta Martitxonea; eta Tolosako zen-

bait etxe. Eta Esteban de Villaviciosa kapitainak: herriko hiru etxe, Serorarena eta Perusanzenea barne; Urdalamarta baserria; Hernaniko Sastia eta beste zenbait etxe. Eta, XVIII. mendean, Josepha Antonia de Emparanek: Bordandia etxea; Errotetako bi errotak; Eiro baserria; Irungo Emparan eta Otazeazpi baserriak; eta Puerto Cabelloko (Venezuela) bost etxe. Eta, XIX. mendean, Joaquín María de Ferrer senadoreak: Ferrerandia baserria, besteak beste.

Antzin Erregimenaren bukaera aldera, hain zuzen ere 1859an, hau izan zen Lezoko nekazarien urteko ekoizpena: garia, 260 anega; artoa, 2.100 anega; babarruna, 80 anega; baba, 50 anega; algarrobo-leka, 7 anega; patata, 60 kintal; barazkiak, 150 libra; gaztaina, 40 anega; eta sagardoa, 180 karga. Hain zuzen ere, Lezon sagardi-sail handiak izan dira beti eta, ia baserri guztiek dolarea zuten, sagardo asko produzitu izan da. Hala, bertako marinela bakailaotara joaten zirenean ere, gainerako elikagaien artean sagardoa eramaten zuten. 1565ean, esate baterako, Miguel de Arrieta kapitain lezoarraren alargunak 24 sagardoupelel zamatu zituen Ternuara abiatzekotan zen Juanes de Illumberen naotan.

Bestalde, gaurdaino, etxeko abere multzoak eman izan du baserri bateko aberastasunaren neurria, batez ere behi-azienda. Eta jeneralean ikuiluak eraikinarren behe solairuko zatirik handiena hartu izan du. Hala, ongari industrialen erabilera hedatu aurretik, bertan ondutako gorotzarekin eta inguruetako karo-

biren batean erretako karearekin ongarritzen ziren lurrak.

Gaur egun, Lezoko nekazaritza bidegurutze batean dago, eta soilik modernizatze prozesu sakon batean murgildutako baserriek iraungo dute. Bide horretan, ordea, oztopoak dira nagusi: dedikazio erdiko nekazaritza, lur eremu txikiko esplotazioak, lurraren espekulazioa...

**[Maritxuenea - Torrejil (bide bazterra)]**

## **URKIA (Abedul, *Betula sp.*)**

Makal beltzen (álamo negro, *Populus nigra*) antzekoak dira, eta sarri berauetatik bereizten zailak gertatzen dira.

Hosto triangeluarrak eta puntaluzeak izaten dituzte, ertz hortzakatu-zerratua dutela. Loreak gerba zintzilikarietan pilatzen dira, nola arrak hala emeak.


Beren hazi txiki hegaldunak haizeak edo urak erraz eramaten ditu, horrela harkaiztegieta, aldapa handiko mendi-hegal harritsueta, mendiko errekatako ur-bazter hareatsu edo harritsueta eta halakoetan nagusitzen dira.

Haziera azkarra duten zuhaitzak dira, baina bizitza motzekoak. Beren ezaugarri nabarmenena zilar koloreko azala da, bereizgarri egiten dituzten lentizela (=pitzadura ilunak) erronboide beltz ugarirekin.

Ederki pairatzen dute udan harkaitzei darien berotasuna eta beren hosto erorkorrek ere neguko



*Urkia*



*Karobia (Lezo Institutuko Turismo Agentzia; Lezo ezagutuz. Ibilaldia Altamiran zehar)*



Urrilekuko dolarea; atzean Urrileku



Urrilekuko karobia

izozteei aurre egiteko aukera ematen diete, baina itzala ez dute ongi jasaten, eta horregatik bakarrik zuhaitz luzeagoak iristen ez diren alderdietan kokatzen dira, beheko aldeetan horien lekuan haritzak edo pagoak agertzen direlarik.

Bereziki arroila karetsuetan eta erreken goialdeko ibarbidetan izaten diren zuhaitzak dira. Euskal Herriko erdi iparralde guztian aurkitzen dira, degradatuta dauden zenbait pagadi eta hariztietako agerrune batzuetan. Europako zenbait lekutan lurra finkatzeko landatzen dira, gerora malda handietan dauden eta zuhaitzak kenduta dauden lurraldeetan beste espezie zuhaizkara batzuk sartzeko.

Beren hostoak herri mailako medizinan erabiltzen dira hezueria (gota), artritisa, andezak (edemak) eta abarren tratamendurako, dituzten dohain diuretiko ahaltzuengatik.

Garai batean, baserri eta herrien mugak urkiekin adierazten ziren, "mugarri" bezala, beren egurra zuria-ri esker oso urrutitik ikus baitzitezkeen.

### [Torrejil]

## LIZARRA (Fresno, *Fraxinus sp.*)

Lizar gehientsuenak lorategietan apaingarri gisa edo abeltzantza erabilerarako landatzen dira. Horregatik, adarrak urtero inausten dira, lizarrei benetako tamaina eta itxura hartzen uzten ez zaielarik.

Hosto handiak dituztenez gero ur kantitate handiak lurruntzen dituzte; hori dela eta, giro hezeak eta lur freskoak eta hezeak behar izaten dituzte. Beren hosto erorkorrek ere neguko gogortasuna jasateko aukera ematen diete; hori dela eta, oro har, beren banaketa Euskal Herriko erdi iparraldera mugatzen da gehienbat.

Beren fruitu hegaldunak haizeak eta urak eramaten ditu hesi, bide ertz, erreka ertz, arroila eta abarrek in topo egin arte. Lizar arrunta, *Fraxinus excelsior*, izozteak hobekien pairatzen dituena da eta horregatik bera da Euskal Herri osoan gehien hedatua dagoena, bai forma naturalean, bai forma landatuan.

Lizarren hostoak ganaduari emateko probetxatzen dira, batik bat belarretarako urte txarra izaten denean; eta oso malguak diren urteko adarrak hesiak egiteko, artilea jotzeko, indaben eta tomateen euskarriak egiteko eta abarretarako probetxatzen dira.

## [Urrileku] **KAROBIAK**

Karobia (=kisolabea), kararria kiskaliz kare bizia egiteko erabiltzen den labe berezia da.

XVI. mendeaz geroztik nekazal teknika eta kultibo berriek (batez ere artoa) ekarri zuten labore-lurren ustiaketa bortitzek, lurzorua pobretzea eragin zuten. Honi aurre egiteko, soroak, gorotzez gainera, XVII. mendetik aurrera kareaz ere ongarritzen hasi

ziren. Karea, egurrezko suarekin kiskaltzen ziren kararriei esker lortzen zen labe hauetan. Kararria erretzeko egur, ote eta txilar kantitate handiak behar ziren, paduratik gertu zeuden karobietan ihia ere erabiltzen zelarik.

Labe hauetako batzuk lurrean industutako hutsune konikoak ziren, zenbaitetan paretak harriz estaliak zituztelarik. Beste batzuk harriz eraikiak, enbor koniko baten itxura dute; azpiko aldean atetxo bat (erre-gaia sartu eta karea ateratzeko) eta goialdean kebidetean antzean moldatutako irekidura bat.

Labeak 2-7 egun irauten zuen piztuta 800 eta 1.000 °C artean. Itzali ondoren, bi egun itxaron behar izaten zuten karea ateratzeko.

Baserrien inguruetan egiten ziren, gehienek beren labe propioa zutelarik. Lortutako karea etxeak margotzeko, lurrak ongarritzeko eta hildako abereak (baita izurrite garaiko gorpuak ere) desagerrarazteko erabiltzen zen.

Lehenengo Gerrate Mundialaren ondoren, karobiak baztertuak geratzen hasi ziren, harrobietako labe industrialak martxan jarri zirenean. Gaur egun penagarria da hauetako zenbaiten egoera, zabortegi bihurtuta baitaude, eta gainera erdi ezkuturik daude, sasiz estalita.

Karobiaren atalak: Ataka: beheko zuloa, erregea sartzeko eta karea ateratzeko; Goialdea: kararria sartzeko; Kontrahormak: karobia ez erortzeko; Ganga (arkua): sasikupula, kararria altuago egoteko eta sua

ez itzaltzeko; Kainua (tunela): suari indarra emateko.

## [Urrileku] DOLAREA

---

Dolarea, besteak beste mahatsari edo sagarrari zukua ateratzeko erabiltzen den tresna da; funtsean, fruitua zapaltzen duen gainazala eta hura jaitsarazten duen torlojudun mekanismoa. Tresna hori dagoen toki edo eraikinari ere izen bera ematen zaio.

Sagardoaren produkzioan, sagarra bildu eta pisoiekin zanpatzen da, ondoren zenbait orduz beratzen utziz. Pitarra (sagardo urtsua) egin nahi izanez gero, momentu horretan ura gehitzen zaio eta dolarean estutzen da –pitarra, baserri askotan eguneroko edari gisa erabiltzen zen–. Bestela, sagardoa egiteko, dolarean sagar txikitua estutzen da urik nahastu gabe, eta lortutako muzttoa upeletan sartzen da. Bi astetan, hau da, lehenengo fermentazioa gertatu arte, upelaren goiko irekiunea zabalik uzten da. Prozesua momentu horretan mozten bada, zizarra daukagu, hau da, alkohol-graduazio baxuko edari gozoa. Bestela, upela itxi eta zenbait hilabete-tan (4 edo 5) utzi behar da, sagardoa egin arte.

Lezon zenbait baserriek dolare jatorra zuen: Agaramontenea, Bordatxo, Errekalde, Iturrinea, Kabiteaundi, Lopene, Matejoane, Olazar, Txatxamendi eta Urri-lekuk, besteak beste. Dolare txikiak edonon ziren. Eta kalean bertan ere baziren dolare jatorrak: Adrian Salaberriarena (Andreseneko Tolarieta etxean), Bonifacio

Salaberriarena (Felipenea etxean) eta Joxe Salaberriarena (Marigozonea etxean).

Urrilekuko dolarea etxebizitzatik bereizita dago –gaur egun ikuilu baten erabilera ematen zaio– eta ikuspegi arkitektoniko batetik interesgarria da. Laukizuzeneko oinplanoa du, bi isurialdeko teilatua, eta bi solairu: behekoa eta ganbara. Barruko egitura guztia zurezkoa da. Eta inguruko lurzorua osatzen duen kare harri arrosaz eraikia dago, beste inolako harri motarik gabe (atezangoen hareharrizko oinarriak izan ezik). Beste eraikuntza batzuetan, Miura baserrian esate baterako, kare harria eta hareharria elkarrekin erabili ziren: lehenengoa hormak altxatzeko, eta bigarrena atea eta leihoak inguratuz; edo soil-soilik hareharria, kaleko etxe zahar askotan bezala. Hareharriarekin alderatuz gero, kare harria zakarragoa da, baina lurretik erauzteko orduan lan gutxiago eskatzen du. Bestalde, Urrilekutik gertu, ipar-mendebaldean, karaitzezko harrobi handi bat kontserbatzen da: Arrobieta.

## [Torrejil (Bordatxoko bide zaharraren parean)]

(IV. PASADIZOA)1675.03.31

**DOMINGO DE YANZI**

**Heriotza bidean**

---

1675eko igande batean, San Juango lau adiskide Guadalupeko ermitara joan ziren meza entzuterara. Gero Hondarribian bazkaldu zuten, eta bertako lagunekin

entretenu ziren. Azkenik bi zaldi hartu zituzten, zerbitzari banarekin, eta etxerantz abiatu ziren. Joseph de Pilan eta Domingo de Yanzi bigarren zaldian zihozten. Halako batean, Urrileku eta Bordatxo baserrien arteko bidean, lehenari galtzerdia askatu zitzaion, eta berau lotu ahal izateko eskuetan zekarren eskopeta eman zion oinez zetorren Jacobe de Borda zerbitzariari. Hau, ordea, irristatu egin zen, mugimenduarekin eskopetak tiro egin zuen eta Yanziren bizkarra harraipatu zuen bete-betean. Yanzi, hilzorian, konfesio eske hasi zen. Hala, Juan Bautista de Alcayaga eta Sebastian de Ameztoy zerbitzaria Lezoko apaizaren bila joan ziren; eta Bartolome de Ribadeo, Pilan eta zorigaiztoko Bordak Bordatxora eraman zuten zauritua. Kutxa baten gainean jarri zuten, eta bertan eman zuen azken hatsa.

## [Bordatxo] SAGARDOTEGIA

Garai batean sagardi handiak ziren Lezon, edo hobeto esateko, ia bakarra, Arretxenetik hasi eta Gaintxurizketaraino sagardi-saila baitzen bidearen bi aieketan. Gainera, Lezoko sagarra oso famatua zen, eta inguruetakoa baino gehiago pagatzen zen. Beste herrietako sagarraren aldean hezea zen, pisu eta likido gehiagokoa. Kanpoko sagardogileek (Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Oiartzun eta abarrekoek) sagardoari grazi berezia, bizitasun bat emateko erabiltzen



*Bordatxotxoko*



*Bordatxo*



Sagarra biltzen Goikotxabalen



Bordatxoko sagardotegia

zuten hemengo sagarra. Bazen gainera Lezo izeneko sagar mota bat, Marzial sagarra bezala ere ezaguna, pertsonak jateko mikatz samarra zena. Hala, Lezo sagarraren hiriburu bihurtu zen; urtero, irailaren erdi aldera, baserritarrak eta sagardogileak Gurutze Santuaren plazako Indionean biltzen ziren, eta sagarraren tratua ixten zuten. Gero, beste herrietakoak hor egiten zen prezioarekin errenditzen ziren, baina beren sagarra Lezokoa baino merkeago saltzen zuten beti.

Lezoko zenbait baserri sagardotegi ere baziren, Bordatxo eta Errekalde, besteak beste. Guztien artean, ordea, Bordatxo izan zen arrakastatsuenaren ondoren, 1946an ireki zuten berriro. Zortzi upel zeuden (bost 3.300 litrokoak, eta hiru 2.200 litrokoak), eta sagardoa bertan egiten zen. Urte on batean 100.000 litro ekoizten ziren: 30.000 bertarako, beste horrenbeste Txerrimuñorako, eta gainerakoa kaleko familientzat. Bordatxo Aste Santu ingurutik abuztura arte egoten zen irekia. Astean zehar lagun mordoska etortzen bazen ere, jai egunetan jendetza izugarria biltzen zen. Kanpotik ere jendea erruz etortzen zen: irundarrak, errenteriarak... Eta egun on batean 1.000 litro inguru saltzen ziren. 1960an itxi zuten, neurri apalagoan beste hogeita hamar urtez sagardoa egiten jarraitu bazuten ere.

**[Bordaberri (Gaintzurizketako errepide aldera)]**

## PAGOA (Haya, *Fagus sylvatica*)

Pagoa, basogintzako espezie garrantzitsuenekin batera (haritzak, zumelak, arteak, gaztainondoak...), Fagazeoen familiakoa da.

Lautadetako baso itxietan 20 m baino goragoko goiera har dezake eta haizeak asko jotzen duen mendiko lekutan metro 1 edo 2 besterik ez.

Hostoak plano horizontaletan antolatutak agertzen dira argiari eraginkortasunez eragozten dioten estratu antzeko batzuk eratuz, eta horrela oso espezie gutxik jasan dezaketen izugarritzko konpetentzia egiten die tamaina txikiagoko landareei.

Pagoak hosto-azalera handiko hostaia ugaria duenez gero, ur kantitate handiak lurruntzen ditu, eta horregatik ingurugiroko hezetasun handia eta hezetasun edafikoa behar izaten du, lurra ondo aireatua baldin badago behintzat.

Ezin du oxigeno falta jasan, eta horregatik idoiak dauden alderdian, haranen edo sakanen barrenetan eta lurra idoitzen den alderdian beste espezie batzuei uzten die lekua, adibidez, haritzei edo izei zuriei.

Hosto galkorreko zuhaitza denez gero, ezin hobeki pairatzen ditu izozteak eta astiro hazten da. Nagusitasun handiko zuhaitza da. Oso sentikorra da kutsadura atmosferikoarekiko eta arroka eta kaleei darien gehiegizko beroarekiko.

Oso hedatua dago Euskal Herriko Erdialde eta hegoalde guztian: lurrekiko eta altuerakiko ez du

joerarik, hezetasun asko, klima freskoa eta idoirik gabekoa baldin badu behintzat. Antzina Euskal Herrian hedatuena zegoen zuhaitza zen.

Pagoaren zura oso gogorra da, zurgindegian eta eraikuntzetarako balio handikoa; hori delat a ,

basogintzan oso ustiatua izan da eta oraindik ere ustiatzen da.

Bere fruituek elikadurarako balio handia dute, haritzen ezkurak bezala, eta animalia belar-jale askoren oinarrizko elikadura osatzen dut: basurde, txerri, orein, eta abar.

Hala eta guztiz ere, pagoen balio handiena beren garrantzi ekologikoan dago: lur ezin hobeak eta Euskal Herrian dauden klimax-komunitate garrantzitsuenak eratzen dituzte.

## [Minkura]

## BASERRIA

Minkura baserria ikusgarria da, oso handia eta zaharra –1638ko inbasioaren aurrekoa–. Abendaño, Apai-ziartza, Barunga, Bordandia, Bordatxo, Darietazarra, Gabiria, Itsu, Juandemuru, Juanmartindegi, Kostabu-





ru, Lopene, Martizkone, Olazar, Peliar, Sarasti, Urdalamarta, Urrileku eta abarrekin batera herriko baserri zaharrenetako bat da.

“L” formako oinplanoa du, eta hiru isurialdeko teilatua. Hiru solairu ditu: behekoa (ikuilua, belartegia), lehenengoa edo etxebizitza (sukaldea, sala, logelak, kaperatxoa), eta goikoa (ganbara); eta kanpoan, atzealdean, simaurtegia. Eraikinaren egitura, sabaia eta balkoiak zurezkoak dira; hormak oro har kare harri arrosazkoak, baina kantoiak eta leiho zein ateen ertzak hareharrizkoak, harlandu ederrekoak. Aurrealdean, lehenengo solairua eta ganbara karez zurituta daude, zurezko armazoiak agerian utzita. Aurrealdeko atariak gain, ekialdeko alboko horman harmailak daude, beheko solairutik pasa gabe etxebizitzan sarbide zuzena izateko –arkitektura militarren aztarna garbia–. Bestalde, mendebaldeko alboko hormaren ondotik erreka doa.

Garai batean meza ematen zuten bertako kaperatxoan. XX. mendean hiltegia ere izan zen, enkantean saldutako behientzat.

**[Elias Salaberria hiribidea (Goienetxe-garai bateko Babilonia- parean)]**

**(V. PASADIZOA) 1777.08.14**

**EGIPCIACA DE ARISTIZABAL**

**Bordalabordako lapurreta**

---

1777ko udako gau batean hiru lezoar Bordalabordara joan ziren txalupa batean, Caracaseko Errege Konpai-

niak bertan zeukan biltegia lapurreta egitera. Leiho batetik sartuta lau manta, olio pizar batzuk eta itsasorako bizkotxoak betetako zortzi zaku eraman zituzten. Gero Bekoerrotan lehorreratu zuten guztia, eta bizkarraren garraiatu beren etxeetaraino. Herriko agintariek, ordea, berehala aurkitu zituzten errudunak: Maintzine baserriko maizterra, Juanes de Inchaurren dieta alegia, eta Babilonia baserriko Esteban eta Juan Cruz de Zubizarreta aita- semeak. Eta azken hauen baserri inguruko artasoroetan aurkitu zituzten lapurtutako gai gehienak. Izugarria izan zen auzi honetako epaia: Iruñean bete beharreko hiru urteko presondagi-zigorra bakoitzarentzat. Eta, okerrean, Babiloniako etxeoandrentzat bi urteko kartzela-zigorra, semea eta senarra ez salatzeagatik.

**[Zubitxo]**

## **DEMOGRAFIA ETA AUZOEN BILAKAERA**

---

XVI-XIX. mendeetan, Gurutze Santuaren plazara biltzen ziren antzinako Kale Nagusiak eta San Juan kaleak, eta parrokiatik hurbileko zenbait etxek osatzen zuten Lezoko hirigunea. Pasai Donibane aldean, Bizkaia auzoaren zati bat Lezokoa zen hasiera batean.

Ondoren Zubitxo kalea sortu zen. Beraz, Lezoko parte zaharra Gurutze Santuaren plazak eta aipaturiko hiru kaleek (Nagusia, Donibane eta Zubitxo) osatzen

dute.

XIX. mendean abiatutako industrializazioak XX. mendean zehar hazkunde demografiko handia eragin du.

1950az geroztik, Francoren diktadura garaian, industrializazioa asko indartu zen estatu eta lurralde mailako inmigrazio-olde handia eraginez. Horrek ekarri zuen hiritartzearen ondorioz, etxe asko egin ziren, karrika eta auzo berri ugari sortu eta baserri asko desagertu ziren (Mendebal, Altamira, Altzate, Burruntene, Maintzine, Arretxene, Plazeta, Lopene, Barunga, etab.).

Demografiaren hazkuntzarekin herria ere zabaltzen joan da: 1950 inguruan San Pedro eta Pysbe auzoak; ondoren, Jaizkibel hiribidea zatika (1954, 1965, 1970); 1960 inguruan, Gaintxurizketa aldeko industrialdearen hastapenak; 1965 inguruan, Tiñelu elkar-tearen etxea eta Elias Salaberria kalea; 1970 aldean, Ijurko, Hipolito Guezala, Antonio Pildain eta Guillermo de Lazon kaleak; 1975 inguruan, Tiñelu elkar-tearen atzekaldea; 1980 inguruan, Altamirako etxeen lehenengo atala eta Joanes Etxeberri eskolak; 1990 inguruan Arretxene (Musika Eskola inguruak); 1995tik aurrera Polentzarrene, Lopene, autobidea, kiroldegia; 2000 urtean igerilekua, Altamirako bigarren atala eta Plazeta futbol zelaia.

Populazioaren igoaldirik nabarmenenak, 1950 eta 1960ko hamarkadetan eta bai gaurdainoko aldiari gertatu dira. Lehenengo igoaldia industriagintzari eta



*Pagoa*



*Minkura*



*Goikotxabaleko sagardia*



*Marienea*

honek ekarri zuen kanpoko inmigratioari egotzi behar zaio. Azken igoaldia, berriz, eta industriak jasan duen beherakada kontuan izanda, inguruko herrietatik etorritako jendeari, hau da, barneko inmigratioari zor zaio. Kasu honetan, Lezo egoitz-herri bilakatzen joan da.

2001 urtean Lezoko populazioa 5.918 biztanlekoa da. Esan behar da % 50 (2.957) gizonezkoak eta % 50 (2.961) emakumezkoak direla. Gipuzkoako populazio-arekiko Lezoko gaur egungo populazioa % 0,87 da.

### [Txerrimuño] SAGARDEGIA

---

Baserrietan bezala kalean ere baziren sagardotegiak: Gurutze Santuaren plazan Galardi etxeko sotoa eta Gure Borda (Indionea) –frontoi eta guzti–, Kale Nagusian Itsue etxeko sotoa eta Marigozonia etxekoa, eta Zubitxo kalean Txerrimuño, besteak beste.

Txerrimuñon zortzi upel zeuden (sei 3.000 litrokoak, bat 2.000 litrokoa eta beste bat 1.800 litrokoa), eta bi barrika (600 litrokoak), baina bertan ez zen dolarerik. Hasiera batean Urrilekuko Blas eta Luis Zabaletak izan zuten errentan, baina gero utzi egin zuten, eta Bordatxoko Gregorio Arrutiri saldu zizkionten ontziak. Bordatxokoek ere errentan hartu zuten Txerrimuño, eta 1952 inguruan ireki zuten hango sagardotegia. Bordatxon bertan egiten zuten sagardoa. Eta gero idiekin garraiatzen zuten, kardia, ale-

gia, gurdiaren gainean eramaten zen 600 litroko barrika luze batean. Irailaren hasieratik urriaren bukaera bitartean, zizarra saltzen zuten, lehenengo bildualdiko sagarrarekin egindako edari gozoa; eta urtarrilaren hasieratik udara bitartean sagardoa. 1980 inguruan itxi zuten.

Hori baino lehen, ordea, sagardiak galtzen joan ziren, eta gainerako sagardotegiek ere ateak itxi zituzten. Horren zergatia bilatzerakoan, arrazoi bat baino gehiago aipatzen dira: errentagarritasun eza, sagarrondoaren gaitza edo industriak sortutako kutsadura (Quincasa, Industrias y Abonos de Navarra...). Sagarrondo zahar asko erre egin ziren, eta berriak, hiru edo lau urtetan poliki hazi ondoren, ihartu egiten ziren. Gero, fabrika kutsagarrienetako batzuk gelditu zirenean, asko garbitu zen dena, eta berriro ere arbolak hobeto etortzen hasi ziren. Baina, gaur egun beste kutsadura mota batzuk indartzen ari dira, eta horrek izango du ondorioz.


## [Marienea] BASERRIA

XX. mendeko hiri-garapenaren ondorioz zenbait baserri desagertu baziren ere, gaur egun hirigunean bertan badago garai batean baserri izandako eraikinik. Marienea esate baterako. Baina zutik iraun ahal izateko, baserri handi bat izan zena etxebizitza soil bilakatu da. Hala, adibide hori hiri ase-ezinaren alegoria bat

ere bada: hiriak baserria irentsi du, haren lurrez jabetu da eta erabilera berriak eman dizkio (eskola, etxebizitzak, parkea...).

Bestalde, Marieneako ataria berezia da. Bertako giltzarrian iraganeko nagusiaren lanbidearen ezaugarriak ageri dira zizelkatuta, eta irudi horien azpian IHS monograma –“S” hizkia, ordea, alderantziz egina dago; garai hartako harginek askotan ez baitzekiten idazten–.

Marieneatik oso gertu Lezoandia etxea egon zen, auzi larri askoren iturri. Hala, XVII. mendean bertako nagusiek besteak beste Marieneatik Zubitxorako herri-bidea itxi zuten, herritar askoren kalterako. 1656an, ordea, herriko agintariekin hitzarmen bat sinatu eta amore eman zuten. Bi aldeek peritu bana izendatu zuten eta, Hondarribiko alkatearen aurrean, herri-bidea berriro libre geratu zen.





# Lorbide - Alarguntzagaña

## Basogintza - Industria

Beko plaza  
Buztinzulogaña  
Iparragirre  
Tiñeluko txokoa  
Gaztaintxulo  
Lorbide  
Sarastizabal  
Amezti  
Bidegorrieta  
Elortegi  
Mandaputzu  
Alarguntzagaña  
pista  
Sorotxo  
Iparragirre  
Kabiteaundi  
Beko plaza


**IRAUPENA:** 4 ordu eta erdi

**ZAILTASUNA:** 4/5 (○○○○○)

## 3. ibilbidea

## IBILBIDEA ZEHATZ-MEHATZ

Beko plaza utzi eta Pikukalen barrena abiatu. Aralar, Urda-buru eta Auñamendi kaleak zeharkatu. Goikoerrotta baserria eskuinean dugula, Iparragirreko erreka (Martizkone eta Olazar baserrien arteko erreka) gurdibidean aurrera egin. Xoxolurra eskuinean utzi eta Buztinzulogañako bidezidorretik goiti joan, Iparragirreko ur-biltegraino. Jarraian, eskuineko bidea hartu, Iparragirreko oianan barneratu, Tiñeluko txokoatik igaro eta Erlietako bidegurutzera iritsi. Olazartik datorren gurdibidean aurrera egin, Gaztaintxulon barrena. Luberriberria ezkerrean dugula, Bordatxabalara (Orbegozoko ur-biltegi zaharra) iritsi. Zuzen jarraitu, Malkerru soro malkartsua ezkerrean utzi, Lorbide baserriaren hondakinen ondotik igaro eta Sarastizabalgo harrobitik goiti joan, Eguzkibizkarren barrena. Eskuineko bidezidorretik Amezti baserrira jaitsi eta Urkietako bihurtunean goiti joan Frantsesaren langan barrena, Bunotxo etxeraino. Goiti doan bidean aurrera egin, Bidegorrietan barrena, Elortegi baserriraino. Zuzen jarraitu porlanezko bidetik, Lizarraundi zuhaitzaren ondotik eta Mandaputzuko aska atzean utzi bezain laster goiti joan, ezkerreko abelbidetik. Larrakako zelaia ezkerrean dugula, Goizargibordara iritsi. Alarguntzagañako bihurtunetik goiti doan bidezidorrean aurrera egin, Guadalupeko pistaraino. Pista mendebal aldera zeharkatu, Epertxoko, Arkirungo tunboa, Tuneltxoko eta Zaskuneko iturrian barrena, lehendabiziko dorrearen pareraino. Jarraian, maldan behera joan zuzen, Sorotxon barrena. Iparragirre baserriaren hondakinetara iritsitakoan porlanezko bidea hartu eta Kabiteaundi baserriaren ondotik igaro. Maldaxarra eta Olaso soroa ezkerrean ditugula, Andreone etxera jaitsi. Azkenik, Kale Nagusia zeharkatu eta Beko plazara iritsi.



PASAIA

J A I Z K

PASAIA

Donibanealdea

Lezo

ERRETERIA

Gaintzurik







*Goikoerrotako hondakinak*



*Buztinzulogañaako karobia*

## [Iparragirreko erreka (Goikoerrotako hondakinak)]

### ERROTAK

---

Erdi Aroko garaietatik zenbait errota izan ziren Lezon. Batetik, Lezoandia etxeko nagusienak: Bekoerrotta (Errotazar), bi errotarriz osatua, eta Goikoerrotta –Lezoandiako errotak izenez ere ezagutu zirenak–. Eta bestetik, Bordandia etxeko nagusiarenak: Errotetakoak (Errotatxo eta Bekoerrotta) –Bordandiako errotak izenez ere ezagutu zirenak–. Guztietan, ekoitzitako irinaren zati bat limosna gisa ematen zen, Lezoko elizetarako. 1629an, esate baterako, Lezoandiako errotetan jasotako limosnengatik 20 erreal eskuratu zituen Lezoko elizetako diruzainak, eta Bordandiako errotetan jasotako limosnengatik 200 erreal.

Hondarribiko agintariek urtero ikuskatzen zituzten Lezoko errotetako pisu eta neurriak. Alabaina, garai batean Bordandiako Bekoerrotta marea iristen zen lekuan egon zen, alegia, Donostiako hiriaren jurisdikzioan –Pasaiaiko portua Donostiako hiriaren barrutia zen–, eta Donostiako alkate eta agintariei zegokien bertako pisu eta neurrien kontrola. Hori ekiditearren, ordea, XVII. mendean Bordandiako nagusi Esteban de Echezarretak errota lekuz aldatu zuen, goraxeago eraman zuen, Hondarribiko jurisdikzioraino.

Bestalde, XVII. mendearen erdi aldean Lezoandiako nagusiek monopolioa eta menpekotasuna ezarri nahi izan zituzten herrian. Beren errotak besterik ez

erabiltzera behartu nahi zituzten lezoarrak, Bizkaia auzokoak izan ezik, eta kanpoko erroterien lehia ezabatzen saiatu ziren. 1656an herriko agintariekin halabarrez sinatu zuten hitzarmenean, ordea, puntu horretan ere amore eman zuten.

## **[Iparragirreko erreka (Goikoerrotako hondakinak)] (I. PASADIZOA) 1655. Igokunde eguna MARTIN DE IRIARTE MORROIA Guillermo de Muru y Lezoandiaren amorrua**

1655eko Igokunde egunean, askotan bezala, Martin de Iriarte morroia etorri zen Oiartzungo Arangurengo erro-tatik. Bere bi zamariekin Lezoko kaleak zeharkatu zituen, etxez etxe bezeroen bihi zakuak biltzen, gero irin bihurtuta itzultzeko. Ohitura hori, ordea, ez zen Lezoandiako Guillermo de Mururen batere gustukoa, bere errotentzat nahiago baitzuen monopolioa kanpoko erroterien lehia baino. Hala, Iriarte gazteak etxerako bidea hartu zuenean, Muru bera atera zitzaion aurrez aurre Zubitxoko parean. Sokak askatu eta gari zaku guztiak lurrera bota zizkion, lohi artera. Eta, mehatxu artean, alde egiteko agindu zion, zakuak jasotzeko aukerarik ere eman gabe. Alabaina, gehiegikeria horren aurrean herri-tar orok agertu zuen aurkako jarrera zela medio, Lezoko kontseiluak auzitara eraman zuen Muru, eta preso sartu zuten probintziako kartzelan, Azkoitian hain zuzen ere.

## **[Buztinzulogaña]**

### **KAROBIAK**

Bi karobiren aztarnak ikus daitezke leku honetan. Bata zaborrez beteta dago eta sasi artean ezkutatuta. Bestea, baratza baten ondoko txabola egiteko erabilia izan dena, ongi ikusten da bide bazterrean baitago. Oraindik paretak nahiko ongi kontserbatzen dira.

Karobia, karea lortzeko erabiltzen zen labe berezia da. Egurra erreaz lortzen zen beroarekin kararria desegiten zen bertan, hala karea lortuz. 500 kintal kare lortzeko (25.000 kilo inguru), karobian 45 tona harri eta 15 tona egur sartzen zen gutxi gora behera.

Kareak erabilera ugari izan du gure baserrietan: lurrak ongarrizteko, baserrien barne paretak zuritzeko (alde batetik osasun helburuekin desinfektagarri gisa, eta bestalde, adierazle gisa, gizakiaren erabilerarako bakarrik ziren gelak bereizteko), etxeak kanpotik zuritzeko, animalia larruak ongi garbitzeko, arrautzei fresko iraurazteko....

## **[Iparragirre]**

### **UR-BILTEGIAK**

Lezon erabiltzen dugun urak bi jatorri ditu: bata Jaizkibel mendia eta Añarbeko urtegia bestea.

2003ko lehenengo bi hileko datuetan oinarrituz, Lezon kontsumitzen den uraren % 70 Jaizkibelgoa da, eta gainontzeko % 30 Añarbeko urtegitik dator.

Jaizkibelen hiru iturri edo kaptazio ditugu: Buztinzuloko iturburua (manantial), Buztinzuloko ubidea (regata) eta Bunotxoko tunela. Bi lehenengoetako ura, bonben bitartez, lehenengo Martizkoneko biltegiara (1920 urtean eraikia, 176 m<sup>3</sup>ko kapazitatea) eta ondoren Iparragirreko biltegiara (1915, 220 m<sup>3</sup>) eramaten da. Hirugarrenekoaren ura, Bunotxoko banagailutik Jaizkibelgo magaleko Amezti (1984-85, 183 m<sup>3</sup>), Bunotxo (1984-85, 134 m<sup>3</sup>), Elortegi (1984-85, 82 m<sup>3</sup>) eta Arriandiko (1975, 480 m<sup>3</sup>) biltegietara bidaltzen da.

Iparragirretik hirigunera bidaltzen da ura, batez ere parte zaharreko inguruetara (2.140 biztanle hornitzen ditu). Lezoko baserrigunean banatzen den ura (394 biztanle hornitzen dituen) ostera, Bunotxokoa da.

Ur-hornitzaile garrantzitsuena Bunotxokoa da, 2003ko lehenengo bi hiletan Iparragirreko biltegitik baino 2,5 aldiz ur gehiago erabili baita.

Udara aldean, Jaizkibelgo iturriek ur gutxiago ematen dute. Orduan, Añarbetik bidaltzen da beharrezkoa den ur kopuru hori.

Jaizkibelgo urak beti izan du on fama, eta honen arrazoia Jaizkibel osatzen duten harkaitzen ezaugarrietan datza: harkaitz hauek, mendiko ura iragazten dute, eta ura garbi-garbi jaisten da herrira. Herritarren artean, ur hau Pirinioetatik datorren ideia ere zabalduta dago.

2000. urte inguruan Jaizkibelen banaturik dauden ur-biltegiak konpondu ziren eta kalitatearen kon-

trolaren aldetik zenbait berrikuntza egin ziren. Hauekin, gaur egun, herritik bertatik uraren kalitatea beti kontrolpean egotea bermatzen da, biltegieta edo ur kalitatean edozein aldaketa badago ere, ordenadore batek abisua ematen du eta. Sistema honi esker momentu oro zehatz-mehatz jakiten da uraren kalitatearen berri.

### [Iparragirre - Tiñeluko txokoa]

## ARBOLEN GAITZAK

---

Baso askotan, eta batez ere gune urbanizatuen inguruan daudenetan (gure kasua den bezala), zuhaitz batzuk gaixotasunak jota hil egiten dira.

Gaixotasunez hiltzea izaki bizidun guztiek (bai animalia, bai landare) daukagun arriskua da. Ahulezia momentu batean, gorputzaren defentsak ongi ez badaude, hainbat arrazoiengatik are ahulago senti gaitezke. Orduan, gaixotasunak jota denbora bat pasa ondoren, izaki hori sendatu egingo da edo ez.

Dena den, osasun egoera onean dauden izakietan ere gaixotasuna ager daiteke: kasu honetan, izaki horrek eragin dion faktore "berri" horren aurkako babesik ez duelako izaten da.

Izaki guztiak ez gara berdinak. Faktore batzuekiko babesak geureganatuak ditugun heinean, beste batzuen aurrean ahulak gara. Beraz, sentsibilitate maila desberdina erakusten dugu baldintza edo gaixotasun iturri baten aurrean.

Faktore edo baldintza hauen artean gizonak sorturiko kutsadura dago. Kutsadura hau, kimikoa batez ere, modu askotara zabal daiteke (airez, urez...). Faktore berri honen aurrean izaki asko ez dago egokituta eta hainbat modutara kaltetua izan daiteke: zuzenki (sorturiko substantziak zuzenean ondorio kaltegarriak eragiten dituelako) edo zeharka (kutsadurak lehen aipaturiko ahulezia eragin ondoren, beste faktore kaltegarri baten ekintzari bidea ematen diolako, esate baterako, mikroorganismoei). Beste modu batera esanda, substantzia kimiko batek, bere toxikotasunaren arabera, zuzenean zuhaitz bat honda dezake (euri azidoa, adibidez), edo ahuldu ondoren izaki txiki edota mikroorganismoen ekintza ahalbidetu dezake. Bi kasutan, hasierako eragilea bera bada ere, kutsadura alegia, zuhaitzaren gaixotasuna sortzen dutenak ez dira berak (lehenengoan substantzia kimikoak eta bigarrenengoan mikroorganismoak).

## [Iparragirre - Tiñeluko txokoa]

### **HARITZ MOTAK**

Oro har, giro guztietan nagusitzen diren tamaina oneko zuhaitzak dira eta denek zura noblea dute, kalitate, gogortasun eta iraupen handikoa; hori horrela izanik, zurgindegian eta eraikuntzetan oso estimatuak dira.

Euskal Herrian dauden *Quercus* guztiek ezkurrak ematen dituzte fruitu. Fruitu hauek animalia askok oso estimatuak dituzte eta basurdeen, urtxintxen,



*Iparragirreko ur-biltegia*



*Iparragirreko oiana*



Goroldioa



Mihura

arratoien, animalia belar-jale anitzen eta marraskari-  
rien oinarrizko janari dira.

Haritzak oro har, astiro hazten dira eta bizi luzea dute. Horregatik, ikuspegi ekonomiko batetik, gizonaren mesprezua jasan izan dute; honek beti hauen ordeztuaz haziera azkarreko beste zuhaitz espezie batzuk edo komunitate txikiagoak nahiago izan ditu, esaterako belardiak, larreak, labore lurrak, eta abar. Hori dela eta, desagertzen ari dira.

Euskal Herrian hamarren bat *Quercus* espezie desberdin eta berauen bitarteko hibrido eta forma anitz aurki ditzakegu. Beraien arteko hibridatze erraztasun honengatik, askotan zaila izaten da zuhaitz espeziea zehaztea.

Euskal Herriko isurialde atlantikoko klima-bal-dintzak haritzarentzat egokiak dira. Hemengo haritza kanduduna (*Quercus robur*) izenekoa da. Honek osaturiko basoak egitura konplexua du, espezieetan aberatsa delarik: haritzekin batera, lizarra (fresno, *Fraxinus excelsior*), haltza (aliso, *Alnus glutinosa*), urkia (abedul, *Betula celtiberica*) edo gaztainondoa (castaño, *Castanea sativa*) ere aurkitzen dira; ondorioz, baso misto izena hartuz.

Jaizkibelen hiru haritz espezie aurkitzea erraza da: haritza (*Quercus robur*) lurzoru sakon eta aberatsak eskatzen dituena; ametza (*Quercus pyrenaica*), mendi-hegaleko lurzoru pobreetan eta eguzkitzapen handiko ingurune ondo drainatutan garatzen dena; birpopulatutako basoetan haritz amerikarra (*Quercus*

*rubra*), beste fagazeoek ez bezala zurtoina zuzena duena.

Espezie hauek bereiztea erraza da hostoaz baliatuz: haritzarena gingilduna eta ilerik gabekoa da; ametzarena gingil oso handiak eta ile zuriskak dauzka; haritz amerikarrarenak udazkenean kolore gorrixka hartzen du, tamaina handikoa da eta gingil puntadunekoa. Badira beraien arteko hibridazioz eratutakoak ere, eta ondorioz, tarteko ezaugarriak erakusten dituzte.

Ezkurrari dagokionez, haritz kandudunarenak, izenak ondo adierazten duen bezala, kandu luzea aurkezten du, ametzarena berriz, adarrean bertan sortzen da. Haritz amerikarrarena bereizgarria da ahotza (ezkurraren oinarria) zapala duelako.

## [Iparragirre - Tiñeluko txokoa] IRATZEAK ETA GOROLDIOAK

Orain dela 400 milioi urte, uretako landare batzuek lurreko ingurunearen konkista hasi zuten. Lehorreratu ziren lehendabiziko landareak Briofitoak (goroldioak) izan ziren; hauetatik Pteridofitoak (iratzek) sortu ziren; eta azkenik, goi mailako landareak.

- Goroldioak

Goroldioak lurreko ingurunera hurbiltzea lortu dute, baina ez daude guztiz adaptatuak lehorrera. Ura-rikiko menpekotasun nabarmena dutenez, giro hezeetan aurki daitezke gehienbat.

Beren garrantzi ekologikoa handia da. Nahiz eta

ornodunek oso gutxitan erabili janari gisa, goroldioak elikagai-iturri garrantzitsua dira animalia ornogabeentzat. Babes gisa ere baliagarriak dira. Bestalde, goroldioek animalia hauek erabil ditzakete beren esporak hedatzeko. Gainera, arrokatan haztean, briofitoek lurra osatzen laguntzen dute.

Gaur egun gizakiak goroldioa ia erabiltzen ez duen arren, antzina oso erabiliak izan ziren; paretetako hut-suneak eta zuloak estaltzeko, koltxoak eta kutxinak betetzeko, apaingarri gisa... Goroldioen beste erabile-ra bat, "kutsaduraren iragarle" izatea da: eremu bateko kutsadura graduaren arabera, espezie bat edo beste egongo da.



- Iratzek

Iratzea hitz generiko bat da, eskualde tropikal edo epeleko hainbat espezie izendatzeko erabiltzen dena. Leku heze eta ospelak maite ditu batez ere. Interes ebolutibo handiko landareak dira, lurreko ingurunearen konkistan berezko landareen lehendabiziko urratsa adierazten dute eta.

Iratzeak izan ziren lurretik fotosintesia burutzen zen atal berdeetaraino elikagaien garraioa bideratzen zuten hodiak erdietsi zituzten lehendabiziko landareak. Kasik paraleloki babes-ehun batzuk ere erdietsi zituzten, "kutikulak", iragazkaitz bihurtzen zituztelarik.

Hormatan, paretetan, harriartetan, enborretan, motzondoetan eta zuhaitzetan ere aurkitzen ditugun arren, Euskal Herrian ezagunenak eta handienak larre eta basoetan ikusten ditugunak dira. Basoetan, zuhaitz handiek sorturiko giro hezeaz baliatzen dira. Iratze arruntak lurpeko errizoma sakonari esker, suteak edo segaketak ederki jasaten ditu.

Iratze arrunta segatu egiten da, zelaian sikatzen uzten da eta, gero, hain gure ditugun metatan pilatzen da, ondoren ganaduaren ohantzerako, edo zuhainentzat txarrak gertatu diren urteetan ganaduarentzako janari gisa erabiltzeko. Iratzea baserrietan aziendei azpiak egiteko erabiltzen denean, ondoren, simaur gisa, soroak ongarrizko balio izaten du.

Dena den, iratzeak kalteak ere badakarzkio baserriarrari: soroetan sartuta dagoenean, zaila gertatzen da bertatik kentzea, bere zurtoina lurpekoa baita gehienetan ("errizoma").

### [Gaztaintxulo]

## MIHURA (Muérdago, *Viscum album*)

Espezie dioikoa da, hau da, ale arrak eta ale emeak izaten dira. Eguberrian mihura asko biltzen da apaingara

rri eta zorte onaren ezaugarri gisa erabiltzeko.

Landare bizkarroia (parasittoa) da, sagarrondo, makal, konifero, eta abar bezalako zuhaitzen kontura bizi dena. Bere hostoen klorofilari esker, fotosintesia egiteko aireko anhidrido karbonikoa asimilatzeke gai bada ere, ur eta gatz mineralen hornikuntzarako landare parasitatuaren menpean gertatzen da. Mihurak bere sustriak beste zuhaitz batean barneratzen ditu eta bertatik doan izerdia zurgatzen du. Nekazaritzarako espezie kaltegarria da, zuhaitzen produkzioa murriztu egiten baitu.

Gipuzkoako sagastietan ugari izaten da: sagasti asko abandonatuta dauden seinale da.

### [Lorbide]

## LORRAK GARRAIATZEKO BIDEA

Olazar baserritik Sarastizabalera doan gurdibidea oso zaharra da, eta hainbat lekutan garai bateko harlauza handiak ikusten dira –Olazartik hurbil dagoen maldan, eta Malkerru soroaren parean, esate baterako—. Bide hau gero ontzigintzan erabiliko ziren haritzen eta beste motatako zuhaitzen enborrak garraiatzeko erabili izan zen. Hala, Olazar baserria bera garai batean zerrategia izan zenaren hipotesia ere badago.

XVI. mendean Lorbide baserria eraikita zegoen. Gaur egun, ordea, sastrakak irentsitako horma zati batzuk baino ez dira geratzen zutik. Baserriak lehen aipatutako bidetik hartu zuen izena: Lorbide; eta bide-

ak lehen aipatutako ihardueratik. Hain zuzen ere, “lorbide” izen arruntak hau esan nahi du: “lorrak garraiatzeko bidea”; eta “lor” hitzak: “irristatuz garraiatzen den enborra” (SARASOLA, Ibon: *Euskal hiztegia*).

## [Lorbideko erreka]

(II. PASADIZOA) 1594.07.16

### JAIZKIBEL

#### Lur-jauzia eta uholdea

---

1594ko uztailaren 16an, larunbata, euri-erauntsi beldur-garria egin zuen Lezon. Jaizkibelen, esate baterako, lurra lehertu egin zen Lorbide baserritik gertu, Lorbideko errekaen goiko aldean hain zuzen ere, eta lur-jauzi handia gertatu zen, mendi zati bat behera etortzeraino. Eta oso ur korronte indartsua sortu zen bertatik, erreka erraldoia, goiz eta arratsalde iraun zuena. Uholdeak errege bidea ere harrapatu zuen, eta inork ezin izan zuen handik pasa egun osoan. Bailarako etxe eta baserrietan beldurra nagusitu zen. Jendeak uste zuen, Noe-ren garaian bezala, itsaso bihurtuko zela lehorreko eremu oro. Gauerako, ordea, agortu egin zen ur korrontea; “Jainkoak nahi izan zuelako”, lekuko baten esanetan.

## [Lorbide – Sarastizabalgo harrobia]

### PINUTEGIAK, BIRPOPULAKETA

---

Birpopulatutako basoak, berezkoak ez bezala, homogeenak (ia eksklusiboki espezie bakar batez



*Sagarrondo*



*Olazarretik Sarastizabalera doan gur dibidea*





*Olazarretik Sarastizabalera doan gurdibidea*



*Malkerru*

osatutako zuhaitz multzoak) direla esan daiteke; alde batetik, zuhaitzek adin bera dutelako eta, bestetik, basoaren egiturari dagokionez, zuhaitzak lerrotan landatuta daudelako. Ekosistema hauek artifizialak dira.

Birlandatutako basoen artean ugariena koniferoena da. Koniferoek, formaren arabera azikula edo ezkata deritzen hosto estu eta gogorak izaten dituzte jeneralean. Gehienak hosto iraunkorrekoak izaten dira; ez dute benetako lorarik ekoizten, pinaburuak baizik.

Pinuak konifero tipikoak dira (100 espezie inguru daude): orratz-formako hostoak izaten dituzte eta beren haziak pinaburu gogorretan garatzen dira. Pinuen egurra, orokorki, bigun samarra izaten da eta usteltzetik babesten laguntzen dion usain gogorreko erretxina izaten du.

Bidasoaldean, Euskal Herriko beste inguru askotan bezala, agertzen zaizkigun koniferoak birpopulatutakoak dira, ez dago bertako koniferorik, Pirinioetako pinu edo izeien hedapen-azalera ez baita honaino iristen.

Jaizkibelen, XIX. mende hasieran, baso autoktonoa zegoen. Baina Industria Iraultzaren etorrerarekin, XX. mendean, Gipuzkoan papergintza industria indartuko da. Industria berri honen beharrei erantzuteko, beste euskal mendi askotan bezala Jaizkibelen ere insignis eta itsas pinua landatzeari ekingo zaio. Bertako basoak kendu eta pinua sartu. Guda Zibilaren ondorengo urteetan kanpoko zuhaitzen birpopulatze honen intentsitatea areagotu egin zen.

Insignis edo Monterrey pinua (*Pinus radiata*), jatorriz Kaliforniako kostaldekoa, antzina haritzek eta ametzek betetzen zituzten eremutan aldatua izan da joan zen mendez geroztik, hemen, garatzeko oso baldintza aproposak baititu. Hala, Euskal Herriko basorik ugariena bilakatu da.

Lezoko mendi-hegaletan landaketa-area batzuk irauten dute gaur egun, insignis pinuz eta itsas pinuzko (pino marítimo, *Pinus pinaster*) beste zenbait saillez osatuak. Landaketa hauek 20-30 urteko epetan ustiatzen dira.

Pinuak oro har, haziera azkarreko zuhaitzak dira; beren sustrai-sistemak oso azalekoak eta hedadura handikoak dira, eta lurzoru gutxiko alderdian bizirik irauteko aukera ematen diete, eta beren hosto estu eta gogorrek neurritz kanpoko kondizioak jasaten laguntzen diete, nahiz hotzak, nahiz beroak edo lehorteak. Hori horrela izanik, oihaneztapenetarako apartekoak dira.

Hala ere, pinuak, eta bereziki insignis pinuak, bi arazo aipagarri ditu: sua eta harrak.

Pinuek oro har, konifero guztiek bezala, erretxin kantitate handiak izaten dituzte: erretxin hau hostoetan edo eroritako adarretan lehortzen denean erregai ezin hobia gertatzen da, txinparta txikienarekin ere erraz sua hartzen duena. Honela, eguraldia oso lehortza denean, komunitate osoan eragina izango duen sute handia sorraraz daiteke. Dena den, pinuen erretxin atera berriak babes gisa ere jokatzen du, beren

gunea erretzea galarazten baitio suari eta urte gutxi batzuetan zuhaitz batzuk sute handi batetik zuzpertz daitezke. Baina ez da gauza bera gertatzen pinudia inguratzen duten edo bertan bizi diren gainontzeko landareekin, eta are gutxiago animaliekin; hori dela eta, desoreka ekologiko handiak sorrarazten dituzte eta beren landaketa gehiegi hedatzen denean, benetako arazo bihurtzen dira.

Bestalde, baso hauen garapena eragozten duen izurritea ere kontuan hartzekoa da, hain hedaturik dagoen prozesionaria (*Thaumetopoea pityocampa*) alegia.

Baso hauen ustiapenak, gehienetan, behar den bezala egiten ez direnez, lurzoruari kalte izugarriak eragiten dizkiote. Ekintza negatiboen artean aipagarrienak, basoak botatzea, pista kopuru izugarriak egi-tea eta bertatik makineria astuna sartuz higadura edo erosioa areagotzea dira.

## [Lorbide – Sarastizabalgo harrobia] AZERI-BUZTANA (*Cola de caballo, Equisetum sp.*)

Azeri-buztana, ekiseto izenez ere ezaguna, iratzeen taldekoa da.

Kriptogamoa da; lorerik ez duena, beraz.

Bi zurtoin mota erakusten ditu, tente eta artikulatuak, oso bereziak eta ahulak: bata antzua eta adartsua, eta bestea emankorra eta adargabea.

Azeri-buztana oso espezie zabaldua da eta labore,

bide-bazter, karez pobreak diren lekuetan, lurzoru hareatsuetan eta abarretan hazten da. Lurpeko errizoma dute, metro bateko sakoneran egon daitezkeelarik, giroaren erasoak gogor jasaten ditu beraz, eta zaila da desagertarazten, larre soroetan benetako izurriteak eragin ditzakeelarik. Errizoma hauetatik lurpeko sust-traiak irteten dira elikatzeko, eta aire-zurtoinak, ugaldutza eta fotosintesia burutzeko.



Zuntzezko landarea da, gogorra, liseri ezina eta ganaduarentzako elikagai gutxikoa. Dena den, ekisetoak landare arriskutsuak dira ganaduarentzat neurri batetik gora jaten badu bederen, bere silize kantitate handiak hes-teetako min gogorrek edota heriotza eragin diezazkioke.

Herri sendakuntzan oso preziatuak dira ekiseto infusioak odol garbitzaile gisa eta giltzurrunetako gaitz guztietan, diuretiko ontzat jotzen baitira, odola garbit-

zen eta toxinak kanporatzen laguntzen dutelarik.

Hemostatiko gisa (odol jarioak eteteko) ere erabili izan dira, sudurreko hemorragia, barne hemorragia eta hilerokoarentzat ere bai.

**[Sarastizabal (Hernando erreka parean)]**

**(III. PASADIZOA) 1612.12.05**

## **MARTIN DE GUERECIETA** **Mugarriak**

1612an Martin de Guerecieta Urrileku baserriko maizterrak, bertako nagusi Francisco de Zubietaren aginduz, bi mugarri jarri zituen Hernando erreka herri-lurretan, alegia Urrileku eta Sarastiren arteko mendietan. Egiteko horretan Txarranea baserriko Juanes de Arrascue eta Martin de Chipres Errenteriako danbolina izan zituen lagun. Bestalde, eta hau ere Franciscoren aginduz, Juanesek hirurogei su-egur karga moztu zituen aipatutako herri-lurretan, ikatza egiteko xedez. Urrilekuko nagusiaren helburua herri-lur mugakide horiez jabetzea zen, eta bertako onurez bera bakarrik baliatzea. Abenduaren 9an, ordea, Hondarribiko alkatea Hernando erreka inguruak ikuskatzen izan zen, Lezoko agintari eta herritarrekin batera, eta bere aginduz mugarri berriak atera eta suntsitu egin ziren. Halaber, abenduaren 11n, ordurarte moztutako egur guztia enkantean saltzeko agindua eman zuen.

[Eguzkibizkar]

## URAK ERAMANDAKO BASERRIA

*(Kokapen zaharra: Sarastizabalgo harrobitik Amezti baserrira doan bidearen goiko aldean, karobi zuloa dagoen lekutik gertu.)*

Eguzkibizkar baserri polita zen: behean ikuilu ederra zeukan; lehenengo solairuan hiru logela eta sala handi bat, besteak beste; eta goian ganbara. Etxe aurrean, bestalde, intxaurrondo handi bat zegoen. XIX. mendearen erdi aldean Rafael Picandia apaiz ehiztaria zen bertako nagusia. Eta hara zihoan batean, 1852an, bere bi zakurrek ardi bat zauritu zuten. Picandia entzute handiko herritarra zen, eta Daniel Garbizu “Iruzubi” olerkariak “Eizera, goiz jua” ipuineko protagonista bilakatu zuen, hain zuzen ere Praixko errotariaren lagun mina.

XX. mendean gauzak okertu egin ziren. Baserriaren goiko aldean harkaitz handi bat zegoen, eta mugitu egin zen. Hura ez erortzeko Amezti, Batxillerborda eta bertakoek hesolak jarri zituzten. Bestalde, Eguzkibizkarreko teilatua aldatu egin behar zen, eta nagusiak asko igo nahi zien errenta maizterrei. Hauek orduan, 1932ko San Martinetan, baserria utzi eta kalera etorri ziren bizitzera. Hilabete batzuk geroago, 1933ko ekainaren 17an, egundo halako eguraldi txarra egin zuen. Hala, goiko harkaitza baserriaren gainera etorri zen; lurra mugitu zenean, bes-



*Lorbideko hondakinak*



*Birpopulatutako pinutegiak*



*Sarastizabalgo harrobia*



*Urkieta*

te harkaitz bat ere sartu zen teilatutik; eta azkenean uholdeak oso-osorik eraman zuen baserria, erreka ikaragarria utziz. Etxe aurreko intxaurrondoa besterik ez zen geratu zutik.

Eguzkibizkar desagertu zen egunean, errekan behera zegoen Urune baserria tximiniatik ura ateratzen zela egon zen. Eta inguruko baserritarren laguntzarekin atera zituzten bertako behi eta zezenak lehorrera.

Mende batzuk lehenago antzeko zerbait gertatu zen Elortegi parean. Hala, Lorbideko errekan bezala, mendi zati bat behera etorri zen, eta Arkirungo tunboa sortu zuen.

### [Eguzkibizkar]

## MEATEGIAK

---

Historian zehar Lezon ez da burdinolarik ezagutu. Eta meatzaritzak ez du inoiz garrantzirik izan. Dena dela, XIX. mendearen bukaera aldera meategi gutxi batzuk ustiatu ziren, eta iharduera ekonomiko horren lekuko dugu Minazulo toponimoa.

1900ean, esate baterako, Enrique Arizpe donostiarrak Eguzkibizkarreko parajearen 12 hektareako (200 x 600 metro) burdin meategi bat ustiatzeko kontzesioa lortu zuen. Meategiaren izena “Guadalupe” zen, eta 2.387 zenbakia zeraman. Eguzkibizkar baserritik ekialdera zegoen, bidearen bi aieketara. Ez dirudi, ordea, arrakasta handia izan zuenik. Urte

berean, halaber, Georgina Barrie donostiarrak Iparagirre baserriaren inguruan 99 hektareako (1.100 x 900 metro) beste burdin meategi bat ustiatzeko kontzesioa lortu zuen. Meategiaren izena “Iparraguirre” zen, eta 2.406 zenbakia zeraman.

Bestalde, Sarastizabalgo harrobia XX. mendeko bigarren erdian ustiatu zen. Eta bertatik hondarra ateratzen zen, eraikuntza-lanetarako. Gaur egun ikus daitekeenez, mendiari egindako zauria sendaezina da.

## [Urkieta (Juanotene baserriaren parean)] BASOGINTZA

Aro Modernoan ontzigintza izan zen Lezoko industriarik garrantzitsuenak. Hala, euskal kostaldeko ekonomiaren zutabe nagusienetako bat izan zen iharduerari hori, zeharka edo zuzenean herritar askoren bizibidea bilakatu zen. Ontzigintzak, ordea, Gipuzkoan hain ugari ziren burdinoletoen produktuak eskatzen zituen etengabe, eta baita ondo zaindutako basoetako zura ere.

Lezoko Errege Ontzigintzak, beste askok bezala, itsas armadak hornitu zituen. Horren ondorioz, koroak basoak sustatu eta ustiatzeko interes berezia izan zuen. Eta Gipuzkoako herri bakoitzari landatu beharreko zuhaitz kopuru bat esleitzen zitzaion urtero. Gero, tarteka, errege komisarioa etortzen

zen herrietara, eraikuntzako maisuez lagunduta, tokian tokiko mintegiak eta birlandaketak ikuskatuz.

1768an Lezoko agintariek mintegi garrantzitsu bat zeukaten, Juanotenekoa, hogeita mila zuhaitz-landare har zitzakeena. Baina, urte berean, errege komisarioak Batxillerbordako iratzelekuan mintegi berri bat eraikitzea proposatu zien, hogeita hamar mila landare hartzeko modukoa. Halaber, mendiko lekurik emankorrenak –ordurarte iratzetarako erabiltzen zirenak– zuhaitz landaketetara zuzentzeko agindu zien, antzuenak utziz iratzetarako. Hauek dira zenbait urtetan Juanotenekoa mintegitik atera eta herri-lurretan birlandatutako haritz kopuruak: 1771n 1.630 (onak ateratakoak, 915); 1772an 2.315 (onak, 1.622); 1773an 1.380 (onak, 918); 1774an 960 (onak, 645); 1775ean Bunotxon 200 (onak, 150); 1776an 180 (onak, 170); 1777an Alarguntzan 322 (onak, 280); 1778an Alarguntzan 440 (onak, 376); 1779an Bordatxo inguruan 380 (onak, 320); eta 1780an Errikoetxe (Luzuriaga) inguruan 820 (onak, 580). Inoiz, ordea, beste motatako zuhaitzak ere jarri izan ziren. 1781ean, esate baterako, Fermin de Sistiagari erositako 286 gaztainondo, 50 haritz, 14 makal eta 7 lizar birlandatu ziren, Juanotenekoa beste 610 haritzez gain.

Kanpotik ezarritako politika horrek, beraz, herri-lurren erabilera gero eta mugatuagoa ekarri zion herritar xumeari.

### [Alarguntzagaña]

(IV. PASADIZOA) 1814

## IGNACIO DE ECHEVESTE     ART-ZAINA

### Gerraren herentzia

---

Alarguntza baserriko Ignacio de Echeveste artzaina zen. Hirurogeita sei buruko artaldea zeukan bere kargura, nahiz eta guztiak ez ziren bere jabetzakoak. Alabaina, garai gogorrek bizitza egokitu zitzaion, Independentzia gerrakoak (1808-1814), esate baterako. Hala, 1814an, aipatutako artaldearekin Etxalarreko larreetan ziharduela, ardi guztiak galdu zituen. Horietako batzuk lapurtu egin zizkieten, baina gehienak Castaños jeneralaren ilobak kendu zizkion, bere agindupeko soldaduen otorduetarako. Kalteen ordaina eskatu zuen, baina alferrik, ez zioten sosik eman. Gero artalde berri batekin saiatu zen bizimodua ateratzen, irabaziak eta galerak lagun batekin banatuz. Oraingoa ere porrot egin zuen. Eta, halabeharrak hartaratu-ta, lapur bilakatu zen, eta Valladolideko errege kartzelara sartu zuten.

### [Alarguntzagaña]

## HERRI-LURRAK

---

Antzin Erregimenean, Jaizkibel mendiko lur gehienak eta herri inguruak asko herri-lurrak ziren, Alarguntzako inguruak bezala. Beraz, ez ziren jabetza pri-

batukoak, herri osoarenak baizik. Eta edozein auzotar balia zitekeen haietaz: su-egurra egin, otea eta iratzea moztu, gaztainak bildu, ura eraman, lurrak landu, abereak larratu, ikatza egin, harria atera, karea egin edo zuhaitzak mozteko, besteak beste.

Alabaina, 1203az geroztik Lezo Hondarribiaren jurisdikziopean egon zenez, herri-lurren gaineko istilurik izan zen bi herrien artean. 1667an, esate baterako, Hondarribiko agintariek auzitara eraman zituzten Lezokoak; beraien baimenik gabe Bordatxo eta Torrejilen arteko komunaletan ehundik gora haritz moztu eta saldu zituztelako. Batzuk zioten lur horiek Hondarribikoak zirela, eta besteek aldiz Lezokoak.

XVIII. mendeaz geroztik, ordea, liberalismoa indartzearekin batera herri-lurrak desamortizatzen joan ziren, alegia, pribatu bilakatzen. Hala, presio demografikoaren eraginez baserri berriak eraiki eta luberriak hedatu ziren lur horien kontura. Gerrateek ekarritako hondamendiaren ondorioz ere ondasun komunalak saldu behar izan ziren, 1813an Errikoetxe baserriarekin gertatu zen bezala.

### [Alarguntzagaña]

(V. PASADIZOA) 1755-1756

## ESTEBAN DE OLAIZOLA

### Su-egurra

---

1755eko abenduan Esteban de Olaizola baserriar-  
rrak, inolako baimenik gabe, su-egur karga bat era-

man zuen Alarguntzako herri-lurretatik; eta Pasaian saldu zuen, bere familia ugaria mantendu ahal izateko. Gehiagotan ere izana zen bertan, gaueko ordu txikitan, bere etxerako otea eta elorri zein haritz adarrak mozten. Antonio de Inchaurrendieta baserritarak, halaber, urtebete lehenago elorri zuri karga bat eraman zuen leku beretik. Eta haren seme Salvador de Inchaurrendietak, 1756ko urtarrilean, beste su-egur karga bat Josepha de Zabala andere lezoarrentzat. Hondarribiko agintariak, ordea, gertatutakoaren berri izan zutenean, Esteban eta Antonio auzitara eraman zituzten; eta dukat banako isuna ezarri zieten –diru hori mendietan haritzak landatzera bideratuko zelarik–. Bestalde, Salvadorri ere epaiketa egin zitzaion, Alarguntzatik gurdikada bete su-egur eraman zuen Apaizartzako Bautista de Salaberriarekin batera; lehenari dukat bateko isuna ezarri zioten, eta bigarrenari bi dukatekoa –diru hori Hondarribiko harresietako Santa Maria atearen aurrean makalak eta lizarrak landatzera bideratuko zelarik–.

**[pista (Epertxoko)]**

## **EPERTXOKO: EKOLOGIA**

Urtetik urtera Jaizkibelen, Gipuzkoako Foru Diputazioaren eskutik, zuhaitzen birpopulaketa bat egiten da. Bestalde, Lezoko zenbait taldek ere parte hartu izan dute mendia birpopulatzeko lan honetan. Lezoko



*Urkieta*



*Barrutia*





Haritza



Artalde

Ekoloji Taldeak 1990. urtean hektarea bat birpopulatzeko apustuari heldu zion, Epertxokon (Elortegi gainean dagoen hektarea bateko herri lurra). Hemen, galtzeko zorian dauden bertako zenbait espezieren errekupeazioa lortu nahi da, beti ere birpopulaketa naturala bultzatuz. Birpopulaketa naturala mendiaren prozesu naturala errepikatzea besterik ez da, ahalik eta berdintsuena eginez.

Monokultiboaren aurrean, landareen barietateak basoa aberasten du, maila guztiak kontuan harturik (belar, iratze, zuhaiska, zuhaitz, eta abar). Aberastasun honek plaga edo gaixotasunei aurre egiteko gaitasun handiagoa du. Zuhaitz guztiak berdinak badira, oreka naturala hautsita dago eta edozein gaixotasunek baso osoa pikutara joatea ekarriko luke (pinuaren adibidea oso adierazgarria da).

Zuhaitzak ordezkari ditzakeen ezer ez dago naturan. Aireari garbi eusten laguntzeaz gain, hegazti zein beste animaliek bizi ahal izateko tokia, mendiaren oreka, lurrunaren eraketa, edertasuna, fruituak... eskaintzen dizkigute.

Zuhaitzek basoak eratzen dituzte, lurrean dauden komunitate finkoenak eta konplexuenak direlarik, bere barnean izaki bizi barietate eta kantitate handia gordetzen dute eta. Desagertzen direnean, landaretzaren eta faunaren pobretze handia eta ekologiaren desoreka gertatzen da, horren ondorio zehatzak aurretik iragartzetik ez dagoelarik.

Beraz, zuhaitzak garrantzi handikoak dira eta babesteko arrazoi asko ditugu:

- Aire kutsatua garbitzen laguntzen dute bertan doazen hauts partikulak zuhaitzen hostoekin harra-patuz.

- Zuhaitzek karbono dioxidoa xurgatzen dute. Auto eta lantegiek, ikatza eta petrolioa erretzean, gas honen kantitate erraldoiak botatzen dituzte airera. Gas hau da berotegi-efektuaren eta, beraz, munduko klima-aldaketaren eragile nagusia.

- Izaki gehienok bizitzeko behar dugun oxigenoa fotosintesiaren bidez ekoizten dute.

- Zaratak (trafikoarena adibidez) ahultzen dituzte.

- Izurriteen aurkako etsai naturalak ematen dizkigute. Baso artean kokaturik dauden landak, basoan bizi diren animalia zomorro-jale eta hegazti harraparien laguntzaz baliatzen dira, hauei esker parasitoen kopurua asko murriztuz.

- Mikroklima baten presentzia baimentzen du. Eguraldi eguzkitsuetan, berotutako haizea baso batera iristean, hezetasunez saturatu eta euria probokatzen du. Baso inguruetan zuhaitzik gabeko lekuetan baino euri gehiago, maizago eta erregularrago egiten du.

- Mendi aldapetan kokatutako zuhaitzek elur kopuru handiak euts ditzakete, elurte hondatzaileak galeraziz.

- Zuhaitzak, beren sustrai garatuekin, lur-eraketan gehien laguntzen duten landareak dira.

- Beren sustrai luzei esker, lurra eraginkortasunez finkatzen dute; horrela, euri, haize, ur-korrante eta atmosferako agente guztien aurrean lurra erosi-eragozten dute, bereziki aldapak dauden alderdietan.

- Zuhaitzek lurra gainean estaldura handia eratzen dute, euri tantak, kazkabarra edo elurraren bat-bateko erortzea geldiarazten dute. Eguzkiaren ekintzaren aurrean ere lurra hezetasunari eusten laguntzen dute.

- Erreka ertzetan, zuhaitzak, uren bideratzaile garrantzitsuak dira, eta bihurtu edo meandroetan modu garrantzitsu batez gutxitzen dute urak aldeetan eragiten duen higadura, horrekin moteldu egiten dute lurra galera, eta oso bereziki uholdeak izaten diren aldietan.

- Basoetako lurak erreken altueraren igoera eta jaitsiera abiadura kontrolatzen dute, lur azpiko ur erreberben bitartez.

- Garrantzizko elementu apaingarriak dira lorategi, hiri, kale eta herrietan; apaintzeaz gain, itzala egiten dute eta ingurunea garbitzen dute.

- Beren produkzioa ikusiz, zuhaitzak gure gizartean hain beharrezkoa den zuraren iturri nagusi dira. Zuhaitzetatik papera eta fruitu jangarriak ere ateratzen dira.

Dena den, basoaren ahalmena mugatua da. Orain arte lurra izan duen oreka egunetik egunera hausten ari da. Gizakiaren eraginagatik munduko baso asko

desagertzen ari dira, zuzenean zuhaitzak moztu direlako edo kutsaduraren ondorioz zuhaitzak kaltetuak gertatzen ari direlako (euri azidoa...).

Hori dela eta, basoei eustea, azken urteotan, lehenetasun garrantzitsu bihurtu da (zenbait lekutan, baso eremuen jabeak laguntza ekonomikoak jasotzen ari dira).

### [pista (industrialdeen parean)]

## INDUSTRIA

---

Antzin Erregimenean Lezok ezagutu zuen industria tradizionalik: labeak, errotak eta ontziolak, besteak beste. Baina bertako demografia, ekonomia eta gizartea eraldatuko zuen industrializazio kapitalistaren hastapenak XIX. mendean gertatu ziren.

Hala, XIX. mendeko bigarren erdian Aro Garaikideko lehenengo lantegiak eraiki ziren: “La Mercedes” izeneko teileria mekanikoa Altzateko gañan, eta bolbora fabrika Arizbakarren. 1901ean, ordea, hiru baino ez ziren Lezoko industriak: “La Ocasión” teila eta adreilu fabrika (34 langile), “Sociedad Anónima Española de Productos Tártricos” (30 langile), eta “Ustekabekoa” ehun fabrika (6 langile). Dena dela, 1845etik aurrera Errenteriako industrializazio goiztiarrak eragin handia izan zuen, eta herritar askok bertako lantegietan egin zuen lan –“Sociedad de Tejidos de Lino” (1845ean sortua), “Real Compañía Asturiana de Minas” (1859an sortua) eta abarretan—. Portuaren

hurbiltasunak eta trenbidearen trazatuak (trena 1863an iritsi zen Lezora) zerikusi zuzena izan zuten inguruko garapen industrialarekin.

Industriak, jakina, onura ekonomikoak ekarri zituen, baina baita ingurugiroaren kutsadura ere. 1859az geroztik, esate baterako, Kaputxinoetako lurmuturrean zegoen “Real Compañía Asturiana de Minas”eko labe garaietatik jariatutako azido sulfurosoak, kalte handiak eragin zituen Lezoko soroetan.

XX. mendean industria Lezoko sektore ekonomiko garrantzitsuena bihurtu zen. Horren ondorioz, emigrazioaren ziklo historikoari amaiera eman zitzaion, eta inmigrazio-ziklo batean sartu zen herria, mendean zehar populazioa boskoizteraino. Hala, lehenengo hamarkadetan lantegi berriak ireki ziren: “Unión Alcoholera Española” legami fabrika, “Unión Comercial Pakers” gailera fabrika, “Guittet y Cía” berniz fabrika, eta “Castellanos y Cía” upel fabrika, besteak beste. Baina industrializazioa 1950az geroztik sendotu zen, Francoren diktaduraren garaian, Espainiatik eta Euskal Herritik etorkin-uholdeak erakarriz. Industria-sektoreei dagokienez, zurarena, kimikoa eta metalurgikoa gailendu ziren. Mendea amaitzerako, ordea, lantegi handiak desagertzen eta txikiak zein ertainak ugaritzen joan ziren neurrian, ekoizpena asko dibertsifikatu zen. Eta lantegi horiek, aurrekoak ez bezala, hirigunetik kanpo kokatu ziren, espreski eraikitako industrialde berrietan.

Jaizkibeldik argi ikusten da Gaintxurizketa aldean industriak izan duen eragina: lantegiak, biltegiak, pabilioiak, komunikabideak... Lurralde bat betiko okupatu da, eta ezingo da berriro landa-lur gisa erabili, alegia, lur baten balioa kontuan hartuta, bere mailarik baxuenera eraman da. Lur baten gainean eraikitzen denean, lur hori betiko galdu dela esaten da.

[pista]

## AZPIEGITURA BERRIAK

Jaizkibel azpiko paisaia etengabe aldatzen joan da. Hasiera batean natura zen itxuraldaketa honen eragile nagusia, batez ere haizea eta uraren bitartez, higaduraren fenomenoari esker. Mendi eta bailaren itxuran izandako aldaketa hauek pixkanaka-pixkanaka gertatu dira eta urte asko behar izan dira. Horregatik, inguru hauetako biztanle naturalek (animaliek eta landareek) baldintza berrietara egokitzeko nahikoa denbora izan dute. Gerora, gizakia agertu zen eta bera da, zuzenki edo zeharka, azken mendeetan paisaia erakusten ari den aldaketen erantzule nagusia. Aldaketa hauek oso sakonak dira eta azkar ari dira gertatzen, bertara egokitzeko ia denborarik eman gabe.

Herrixken sorrerak, herrien zabaltzeak, nekazaritza, abeltzantza, hirien eraikuntzak, lantegiak, mendien eta basoen ustiapena, birpopulaketak, kutsadura... dira paisaian eragin izugarria duten gizakiaren ekintzak. Baina azken urteotan, naturaren ikuspegitik



*Industrialdea*



*Eskabadora*



Zaskuneko iturria



Iparragirretik Kabiteaundira doan bidea

oso modu erasotzaile batean, azpiegitura berri bat ari zaigu gailentzen, Bidasoaldean eta Oarsoaldean bereziki: komunikabideak.

Bailara honen garrantzi estrategikoa beti egon da bertan eraiki diren komunikabideetan islaturik: asfaltitik ditugu errepide onak, hainbat trenbide, portua, autopista eta aireportua. Inguru hauetan jendetza handia bizitzeak eta bi estaturen arteko muga gertu izateak eragin argia izan du. Dena den, aldaketak ez dira horretan amaitu, aurrera doaz eta erritmo biziago batean gainera.

Behin baino gehiagotan aipatu dira Abiadura Handiko Trena, Autobidea (bere faseekin), N-I errepidearen zabaltzea, Pasaiako Super Portua, Baiona--Donostia eurohiria... Kontuan hartu behar da halaber, komunikabideaz gain, zabalera handia behar duten beste azpiegitura batzuk ekarriko dituztela eurekin: merkantziatarako gordeleku-guneak, atsedeen guneak, erregai gordelekuak, aparkalekuak...

Proiektu hauek guztiak aurrera eramango balira, bailara berri batean biziko ginatke, paisaia zeharo aldatu batekin, gure arteko adineko askorentzat eza-gutezina izango dena. Eta naturaren ikuspegitik, izaki askorentzat jasanezina.

### [pista (Zaskuneko iturria)]

## ITURRIAK

---

Gaur egungo ur-biltegiak eraiki aurretik, eta zenbait

baserritan gerora ere bai, iturrietako urak erabili izan dira eguneroko beharrak asetzeko (edan, garbitu eta abarrerako). Hala, Lezon ugari dira iturriren bat izendatu edo aipatzen duten toponimoak: Iturralde, Iturriondoko larrea, Iturritxikisagardia, Iturritxo, Iturritxulo, Mandaputzu, Plataiturri eta Putzutxo, besteak beste.

Jaizkibelgo urak, bestalde, oso onak dira. Estimatuak izan dira beti. Bertako lurzorua hareharrizkoa da, hondartsua, eta halakoetan barrena iragazitako ura arina eta mehea izaten da, alegia, mineral gutxi eramaten ditu. Horren ondorioz, beste ur motekin alderatuz gero, azkarrago hoztu eta berotzen da. Halaber, Jaizkibelgo iturrietako urak, Zaskunekoan sortzen direnak barne, garbiak eta freskoak dira.

Munduan zehar basamortuak etengabe hedatzen ari diren garai hauetan, Lezoko iturri naturalek balio izugarria dute, eta ondo zaindu beharreko ondarea osatzen dute.

## [Sorotxo]

### **OTEA (Argoma, *Ulex europaeus*)**

Otea, euskaraz otaka, elorri-triska eta saratsa ere esaten zaiona, Euskal Herriko landa edo eskualde baxu, hareatsu eta hezeetako espezie tipikoa da. Gipuzkoan nonahi aurkitzen da lur landugabe, bereziki silizetsuetan eta karez pobreak direnetan.

Otearen loreez esan ohi da, infusio gisa hartuta, mesedegarriak direla gibelesko gaixotasunen aurka.

Su egiteko oso egur ona da. Karobietan asko erabili ohi izan da erregai gisa.

Otalurra, Lezon, Jaizkibel mendiaren hegalean kokatzen da, larreak sortzeko antzina soildutako mendi-hegal horretan. Otalur atlantikoa larre eta sastraka komunitate bat da, basoaren eta belardiaren tartekoa. Euren artean erlazio zuzena duten ote, iratze, txilar eta gramineaz osaturik dago. Larreak behar bezala ez zaintzeak eragiten du horren sorrera eta bilakaera horren hurrengo urratsak hariztiaren garapena ekarriko luke. Alabaina bilakaera hau -segida ekologikoa deritzana- oztopatu egiten da gizonaren aldetik nozitzen duen ustiapenagatik: abere-larratzeak, suteak, segaketak... eta horrek zoruaren azidotzea eta lurzorua galera ekartzen ditu.

Lur-sail batean aurkituko dugun landare-taldea, edo beren arteko nagusitasun proportzioa, bi faktorek baldintzatzen dute: alde batetik, zoruaren azidotasuna (azken batean, elikagai aberastasuna) eta, bestetik, gizakiaren esku-hartzea (segida edo garapen ekologikoa moztuko duena).

Gizakiak lur-sailak aldian-aldian segatzearen ondorioz iralekuak eratzen dira. Iratzearen (*Pteridium aquilinum*) fronde berriak, urtero udaberri aldera agertzen dira lur azpian dagoen errizomatik sortuak. Udazkenean fronde hauek lehortu eta kolore gorria hartzen dute. Sasoi honetan segatu eta metatzen dira,

azienden azpitarako erabiliko direlarik. Azken urteotan, azpitarako erositako lastoa erabiltzen denez, geroz eta iraleku gutxiago segatzen da.

Ondorioz, segida ekologikoaren eraginez, iratzeak beste landareek ordezkatzeko dituzte, iraleku txilardi edo otadi bihurtuz. Iralekuak lurzoru pobreak badiara, hainbat txilar edo inar mota joango dira hedatzen. Lurzorua aberatsa bada, ordea, oteak.

## [Iparragirre - Kabiteaundi]

### MIKROKLIMA

---

Lurralde edo eskualde baten ezaugarri fisikoak garrantzi handikoak dira eremu hori klima aldetik homogeneoa edo aldakorra den jakiteko orduan. Eskualde edo habitat txiki bateko klimak, bere inguruko eskualdeetako klima orokorretik bereizten duten zenbait ezaugarri erakuts ditzake. Ezaugarri hauek, jeneralean, faktore naturalen esku egoten dira. Dena den, gizakiaren ekintzek ere, zenbait kasutan, hainbat lekutako mikroklimetan eragin dezakete.

Aldaketa mikroklimatikoek eremu txiki eta inguru orokorretik isolaturik daudenetan eragiten dute, eta hainbat faktorek baldintzatuak izan daitezke: erliebea, landare estalkiaren hedapena eta lur sailaren orientazioa, besteak beste.

Alderdi zehatz honetan giro fresko eta hezea iraunkor izaten da urte guztian zehar; bai udan, bai neguan, Lezo aldean bero egin edo hotz egin. Egoera

berezi honen erantzule nagusien arteko bat eremu honen eguzkiarekiko kokapena da, alderdi ospela dela alegia (egunean zehar, eguzki izpiak ordu gutxitan iristen dira zuzenean hona). Bestalde, bertan dagoen zuhaitz kopurua handia da: landare estalki honek, alde batetik, bere azpi aldeko lurra are gehiago isolatzen du eguzkitik, eta bestalde, hezetasunarekiko, tenperaturarekiko eta haizearekiko erakusten duen eraginagatik, giroari heze eusten laguntzen du.

Inguruko lekuetako baldintzekiko ezaugarri desberdin eta bereziak edukitzeak, mikroklima bereizgarriaren ondorioz sorturikoa, izaki berezien presentzia ahalbidetzen du eta gertu dauden beste tokitan jeneralean aurkitzen ez diren izaki motak aurki ditzakegu kokagune honetan. Horregatik, leku hauek bereziak izaten dira, babestu beharrekoak, eta bertan eragin dezakeen edozein aktibitate edo ekintza egiterakoan, kontuan hartu beharreko ezaugarria da.

Hiri handiek, atmosferako beheko kapatan duten eraginagatik (atmosferaren kontaminazioa, marruskadura dela-eta haizearen abiaduraren gutxitzea, eraikinen inguruan airearen turbulentsiak, airearen berotzea, lurrintzearen eta isurketaren areagotzea, eta abar), bere inguruko ezaugarri klimatikoetan eragina dute, eta horregatik, zentzu batean bederen, mikroklima berezi bat sortzen dutela onar daiteke: klima urbanoa.

# Lorbide - Alarguntzagaña *Basogintza - Industria*





# Mugitar - Eskulain

## Abeltzantza

Beko plaza  
Martizkone  
Sorotxo  
Mugitar  
Zaskuna  
Amadingurutze  
Eskulain  
Santa Barbara  
Eskulain  
Amadingurutze  
Zaskuna  
Sarastizabal  
Kaserna  
Plataiturri  
Lopene  
Beko plaza

**IRAUPENA:** 6 ordu

**ZAILTASUNA:** 5/5 (○○○○○○)

# 4. ibilbidea



## IBILBIDEA ZEHATZ-MEHATZ

Beko plaza utzi eta Pikukalen barrena abiatu. Aralar kalea zeharkatu eta goiti joan Arrobialde baserriaren paretik. Martizkoneko ur-biltegiaren ondoko bidezidorra hartu, Iparragirreko ur-biltegiaren ondotik igaro, Sorotxon barrena jarraitu, Guadalupeko pista gurutzatu eta Mugitarreko zabaldegiraino igo. Jarraian, Tximistarri eskuinean utzi, Zaskunako zabaldegira jaitsi eta Jaizkibelgo gailurrera daraman bidezidorra hartu. Goiti joan bigarren dorretik aurrera, Zapio eta Amadingurutzen barrena, hirugarren dorrearen ondotik igaro eta harkaitzez jositako bide txar batetik Eskulainera iritsi. Hondarribiko lurretan barrena jarraitu, San Henrike gotorlekura igo, alegia Jaizkibelgo gailurrera, eta Santa Barbarara (paradore zaharra zegoen lekua) jaitsi. Lehengo bidetik Zaskunako zabaldegira itzuli. Jarraian, ezkerreko bidetik beheiti joan, Guadalupeko pista gurutzatu eta, Arresi eta Buztinzulon barrena, Sarastizabalgo harrobira iritsi. Eskuineko bidean aurrera egin, Lorbideko errekaraino. Kaserna baserrira jaitsi eta, Olaurrin eta Sorozar eskuinean ditugula, Plataiturrira iritsi. Portuko biltegi erraldoiaren (garai bateko Lopene eta Barunga baserrien kokagunea; Orbegozo) ondotik igaro, Iturritxulon barrena. Idiataka zelaia eskuinean dugula, beheiti joan Lopene baserriaren ondotik. Azkenik, Eugenio de Ochoa eta Zubitxo kaleak zeharkatu ondoren, Beko plazara igo.





I B E L

Allerru

Gaintxurizketa Goikoa

Gaintxurizketa Iturraide

Gaintxurizketa Errekalde

IRUN

OIARTZUN

1.000 metro



Zaldiak



Basoa

## [pista (San Juan Bataiatzailearen parrokiaren parean)]

(I. PASADIZOA) XVI. mendea

### MAROTA SANTUA SERORA

#### Lapurrak Jaizkibelen

---

XVI. mendean Lezoko parrokiak behi asko izaten zituen Jaizkibelen. Egun batean lapurrak etorri ziren, etaazienda eramaten hasi ziren, baina elizetako serora ohartu egin zen. Orduan, Marota Santua (horrela zuen izena serorak) goiko elizan sartu zen, San Juanen irudiaren aurrean otoitz egiten hasi zen, eta arren eskatu zion behiak lehengo lekura itzul zitezten. Otoitza bukatutakoan Goiko plazara joan zen egoera zertan zen ikustera. Lapurrak, jakina, behiak hartu eta ihesi zihozen. Marota berriro sartu zen elizan, eta oraingoan santuaren irudia besoetan hartu, kanpora atera, eta osin-sail batera bota zuen, esanez handik ez zuela aterako behiak lehengo lekura itzularazi bitartean. Orduan, bat-batean, lapurrak txundituta geratu ziren, eta beren lana bertan behera utzi zuten. Eta behiak, beren kabuz, lehengo larrera itzuli ziren. Jarraian serorak Jainkoari eskerrak eman zizkion, eta San Juanen irudia bere aldarera itzuli zuen.

## [Mugitar]

### ABELTZANTZA

---

Abeltzantza, oro har, eta artzantza bereziki betidanik

nabarmendu izan dira Lezon. Hala, historiaurre hondarreko garaietan, abere-taldeak gobernatzea zen inguru hauetakoko biztanleen bizibide nagusia. Denborarekin, ordea, bizitza ibiltariari uko egin eta bizileku egonkorrak eraiki zituztenean, abeltzantza etxeko ekonomiaren osagarri bilakatu zen.

Beraz, Lezoko herriak beti izan ditu abere asko Jaizkibelgo larreetan, eta baita kale-bazterretan ere: ardiak eta zikiroak, zaldiak eta behorrak, mendi-behiak, txerriak eta beste. Esate baterako, XVI. mendean parrokiako kabildoak, bere ondasunen artean, Jaizkibelen bazkatzen zen behi-taldea zeukan; eta XVII. mendean eskandalu handia eman zuten herriko seroraren txerriek, parrokiaren ondoko hilerrian hilotietako zirrikituetatik muturra sartzen baitzuten. Antzin Erregimenaren bukaera aldera, hain zuzen ere 1857an, hauek ziren zehatz-mehatz Lezoko abeltzantzaren numeroak: ardi-azienda, 800 buru; behi-azienda, 288 buru; txerri-azienda, 70 buru; eta asto-azienda, 30 buru.

Abere guztien artetik, ordea, ardia gailendu izan da beti. Artilea, larrua, esnea, gazta eta haragia bezalako oinarrizko produktuak eskaintzen dituzenez, ia baserri guztiek bazuten bere artaldea. 1713an, esate baterako, Eguzkitzako baserritarrak ardi gutxi batzuk baino ez zituen, Iparragirrekoak 60tik gora, Olazarkoak 25 inguru, Lopenekoak 20, Barungakoek 9 eta 5, Lorbidekoak 40 inguru... XIX. mendean herriko artaldeak handiagoak ziren, 70 bat burukoak, baina aurre-

ko mendeetan bezala baserriko ekonomiari lotuta jarraitu zuten.

1865ean hamasei artalde zeuden herrian. Urtean hamar hilabetez, maiatzetik otsailera, Jaizkibelgo larreak erabiltzen zituzten, hots, Mugitar, Eskulain eta Gaztarrotz ingurukoak, besteak beste. Eta hiru ziren beren etsai nagusiak: erorketak, gaitzak eta basapiztiak. Dolda edo zibela bezalako gaitz arruntengatik, urtean batez beste bi ardi hiltzen ziren artalde bakoitzeko; baina pikota hedatuz gero, izurriak jotako ardi guztiak hiltzen ziren. Basapiztien erasoengatik bost buru galtzen ziren batez beste, eta inoiz egin zen otsoen aurkako uxaldirik.

Gaur egun, oraindik ere abeltzantzak badu nola-baiteko garrantzia Lezon. Hala, 1989an hauek ziren bertako azienda buruak: behi-azienda, 679 (esnetarako eta haragitarako); ardi-azienda, 277; ahuntz-azienda, 3; txerri-azienda, 18; zaldi-azienda, 34; eta hegaztiak, 2.000 inguru. Bestalde, hamar urte geroago, Gaintxurizketa aldeko Goizargibordako artzainak 700 bat buruko artaldea zuen.

## [Mugitar]

(II. PASADIZOA) 1713.04.01

**ARTZAIN EZEZAGUNA**

**Sutea**

1713ko apirilaren 1eko gauean, bederatziak aldera, herriko artzainen batek su eman zion mendiari Mugi-

tarren, Tiñelu eta Lorbide gainean. Olazar baserriko nagusi Jeronimo de Echevestek guztia ikusi zuen etxe ingurutik: norbaitek, eskuan zeraman zuzia hantzen, hemenka astinduz, hamaika bazterretan piztu zuen sua, ardien bazka bizkor eta sendo haz zedin. Orduan, Echevestek dei egin zion ohean zegoen Olazarreko maizterrari, eta elkarrekin joan ziren Martizkone baserrira, bertan bizi zen Juanes de Arpide karguduna jakinaren gainean jartzera. Hala, honen aginduz, Echeveste herrira jaitsi zen agudo, eta goiko elizako su-ezkila joarazi zuen, laguntza eskatzeko. Gero, deia-ri erantzunez, jendea sutea itzaltzera joan zen.

### [Tximistarri]

## MUGARRIA

---

Lezoko herriak Jaizkibelen dituen mugarrak udal-barrutiko berrienetakoak dira. Alabaina, San Juango mugakoak Hondarribiko mugakoak baino zaharragoak dira, hain zuzen ere 1771koak. Eta, 1897ko agiri baten arabera, hamabost dira Lezo eta San Juanen arteko mugarri horiek, Errotetatik Eskulaineraino: lehenengoa errepideko karela bera, beste lau landutako harri prismatikoak, eta gainerako hamarrek bertako harkaitzak.

Tximistarri izeneko harkaitza azken horietako mugarri bat da. Eta seinale bezala gurutze bat darama zizelkatua, eskuin aldean bi letra dauzkana: L (Lezo) goiko aldean, eta P (Pasaia) behekoan.

1203tik aurrera Lezo Hondarribiaren jurisdikziopean egon zen, Irun eta Pasaiaiko San Juan auzoa bezala, harik eta XIX. mendeko lehen herenean burujabetasun osoa erdietsi zuen arte. Irunek, bere aldetik, 1766an lortu zuen Hondarribitik banantzea; eta San Juanek 1770ean. Urte bat geroago Lezo eta San Juanen arteko mugak ezarri ziren. Eta horrek bere ondorioak izan zituen. 1802an, esate baterako, San Juango agintariek erabaki garrantzitsu bat hartu zuten: Jaizkibelgo beren lurretan artaldeak zituzten kanpotarrek, lezoarrak gehienbat, aurrerantzean San Juango elizagintariei hamarrenak ordaindu beharko zizkieten.

### [Zaskuna]

## GIZAKIAREN PRESIOA

---

Gure bailaran eta Jaizkibel mendian azken urteotan izan diren eta izaten ari diren eraso ekologiko batzuk ondoren aipatzen diren giza ekintzek sorraraziak dira. Batzuek zuzenki eta besteek zeharka eragiten dute. Eraso gehienak gizartearen bilakaera eta aurrerapenarekin elkarloturik datoz. Dena den, eta bilakaera hau oztopatu gabe, ezin dugu ahaztu planteamendu ego-kiago batekin eta gure ekintzen eraginaren garrantziaz kontzientziaturik, kalte horiek asko murriztu daitezkeela. Gizakiak izugarritzko indarra eta presioa egiten dio inguruneari, eta askotan ez gara horretaz ohartzen. Natura oso indartsua dela eta dena konpon dezakeen ideiarekin bizi gara. Baina beti dago muga bat.

- **Industriak:** Erreneriako paper-fabrikak, Pasaia-ko zentral termikoak, Erreneriako CAMPSAk, eta abarrek substantzia kimiko eta partikula ugari botatzen dituzte airera, uretara... Hauetako batzuk oso kaltegarriak dira gizakiaren eta naturaren osasunerako. Bestalde, substantzia arriskutsuak erabiltzen dituzte, hauen garraio moduek eta biltegi handiek leherketa eta isurketa arriskua dute.

- **Automobilaren zabalkuntza:** hainbat motatako arazoak dakartza: gasolindegi berriak (leherketa eta kutsadura arriskua), aparkaleku berriak (lur sailen okupazioa), emisio kutsakorren handitzea (kutsadura), trafiko handitzea (istripu kopurua), errepide berriak (lur sailen okupazioa)...

- **Urbanismoa:** herriak hiritartzen ari dira. Herriak handitzen eta zabaltzen doaz, lur-eremu berriak okupatuz eta baserriguneak desagertaraziz. Honek azpiegitura garrantzitsu bat behar du bere inguruan: argindar sarea, zabortegeak, industrialdeak, komunikabideak...

- **Kaia:** handitzen jarraitzen du, inguruko lur eta ur eremu handiagoa bereganatuz eta kutsadura eta istripu arrisku handiagoa ekarriz.

- Eremu militarrek.
- Harrobi eta meategiak.
- Pistak...

Beraz, eskualdearen garapen sozio-ekonomiko orekatua, lurraldearen arazoizko erabilera, baliabide naturalen eta ingurugiro-babesaren kudeaketa arre-



*Ametza; atzean Mugitar*



*Tximistarri; atzean Mugitar*



*Bigarren dorrea*



*Amadingurutze*

tatsua, eta bizi-kalitatea hobetzea helburutzat dituen lurralde antolamendu egoki bat beharrezkoak dira.

### [bigarren dorrea]

## LIBERALEN DORREAK

---

Azken karlistadan (1872-1876) Donostia eta Irun liberalen esku egon ziren. Baina karlisten presioa oso handia izan zen inguru guztian. Hala, 1874ko azaroaren 4tik aurrera karlistek gogor setiatu zuten Irungo hiria, eta Carlos VIIgarrenak Bera aukeratu zuen egoitzatzat. Agintari liberalek, ordea, 10.000 laguneko errefortzua bidali zuten itsasoz. Azaroaren 10ean eta 11n liberalek Irungo setioa altxatu zuten, eta karlistak Berara erretiratu ziren.

Liberalek hainbat dorre eta gotorleku izan zituzten Donostiaren, Pasaiako portuaren eta Irungo mugaren defentsarako. Eta hiru gune estrategiko horiek lotzen zituen korridorearen iparraldean, Jaizkibelgo gailurretan barrena, Pasaia eta Hondarribiaren arteko babes-lerroa antolatu zuten: Lord John Hay gotorlekua, lehenengo, bigarren eta hirugarren dorreak, San Henrike gotorlekua, laugarren eta bosgarren dorreak, eta Guadalupeko gotorlekua.

Aipatutako bost dorreak, beraz, liberalek eraiki zituzten azken karlistadan (ca. 1874), etsaia zelatatu eta argi-seinaleak bidaltzeko xedez. Lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena Lezo eta Pasaiaren arteko mugaren ondoan daude; gainerako biak Hondarribiko



lurretan. Dena dela, bigarren dorrea da Lezoko udal-barrutian dagoen bakarra.

## [Amadingurutze] GURUTZEA

Amadingurutzeren jatorria ezezaguna da. 1592ko lekukotasun bati esker, ordea, badakigu leku horretan Miguel de Amadin pasaitarra hil zutela frantsesek, eta gertaera horretatik datorkiola izena eta, agian, izana bera ere gurutzeari. Lope de Isasti lezoarraren arabera, gizon hori oso itsas kapitain saiatua izan zen, eta inoiz etsaiaren itsasontzirik atzeman zuen.

Gutxienez XVI. mendeaz geroztik, urtero, San Marko egunez sanjuandarrak prozesioan joan izan dira beren parrokiatik Amadingurutzeraino. Letaniak kantatuz, Bordandiatik gora egiten zuten galtzada zaharrena barrena. Gurutzera iritsitakoan errespontsu bat esaten zuten apaiza buru zela, gero mokadu bat jan, eta atzera parrokiara itzultzen ziren meza entzutera. Aldera gutxi batzuk gora-behera, apirilaren 25eko ohitura horrek bazuen parekorik lezoarren artean. Hala, garai bateko Gaintxurizketako harrizko gurutzea zen egun berezi horretan Lezoko prozesioaren jomuga.

1936ko gerra garaian harrizko gurutze zaharra suntsitu egin zuten. Eta ondoren, gaur egungo hormigoizkoak hartu zuen haren lekua. Gurutzearen oinarria, ordea, zaharra da, jatorrizkoa, eta bertako harraitzean egina dago, hareharria zizelkatuz.

Aurrealdean hiru maila irregular ditu, eta atzealdean bakarra, geroztik erantsitako bi harlauzekin osatua.

## [hirugarren dorrea (barnealdea)] GOROSTIA (Acebo, *Ilex aquifolium*).

Gorostia, azken urteotan, beste zenbait zuhaitz hostoiraunkorrekina batera (pinuak, izeiak) gabonetan apaingarri gisa erabiltzen da.

Neguan hostoei eta fruituei eusteagatik, Europako hainbat tradiziok diotenez, bizitzaren adierazle itxaropentsua da, gainerako landaretza erortzen den neguko heriotzari aurre egiten diolarik.

Gorostien adar eta fruituekin egindako Gabonetako apaingarri honek, ale eme (fruituak dituztenak) ugari moztea eragiten du,



hondamen ekologiko larria sorraraziz. Honen aurrean aspaldiko ohitura bat berreskuratzea dugu irtenbide aproposa: mihura erabiltzea.

Oso garrantzitsua da basoetan (batez ere mendi goietan) bizi den ornodun komunitate garrantzitsua-  
rentzat, emigratu gabe neguan bizirik irautea ahalbi-  
detzen baitio ondorengo arrazoiengatik:

- Elikadura iturria: neguaren zati gogorrean, gainontzeko landare janaria urria denean, gorostiaren hosto eta fruituak ornodun landarejale askoren (orkatz, erbi, birigarro...) ia oinarrizko elikadura bihurtzen dira.

- Harrapari eta eguraldi txarraren aurrean babesle-  
kua: jakina da gorosti multzo baten barruko tenperatura kanpoaldekoa baino 3-5 gradu altuagoa izaten dela. Bestalde, bere hostaila trinkoa estalki egokia da haize eta elur boladen aurrean, baita txoritxo askorentzat beraien harrapari naturalen aurrean. Honek esplikatzen du gorostiaren baitan bizi den animalia dentsitate altua.

Garrantzi ekologiko honengatik eta Gabonetan pairatzen dituen mozketak handiengatik, espezie hau babestea erabaki dute.

Lur silizeotan ongi hazten da. Bera baino zuhaitz altuagoen itzala ongi jasaten du, multzo txikitik edo isolaturik agertzen delarik. Toki altuetan, multzo edo basotxo handiagoak eratzen ditu.

### [hirugarren dorrea - Eskulain]

## HARROBI ZAHARRA

*(Kokapena: Hirugarren dorrea dagoen lekutik 150 bat metro Eskulain aldera; bidearen eskuin aldean.)*

Jaizkibelgo lurzorua hareharrizkoa da. Hori dela eta, aurreko mendeetan harrobi asko ustiatu ziren mendi guztian zehar. Eta bertako harria, batik bat Lezo aldekoa, oso estimatua izan zen. Ona zen era guztietako eraikuntza-lanetarako, eta baita errotarriak eta harlauzak egiteko ere.

Esate baterako, inguruko herrietako agintariak, euren elizetan berritze-lanak egin behar zituztenean, harrobi horietara jotzen zuten lehengai bila. 1701ean, bestalde, epaiketa bitxi bat izan zen Hondarribian: hargin batzuk auzitara eraman zituzten, Frantziako erresumara eramateko harria atera baitzuten Jaizkibeldik, une horretan Hendaian egiten ari ziren gaztelurako. Lezoko bi elizak ere, jakina, eta etxe zahar asko eta asko Jaizkibelgo hareharriz eginda daude.

Hala, San Juan Bataiatzailearen parrokia berre-  
raikitzeko 1557an sinatu zen hitzarmenean, espresuki adierazten da erabili beharreko harria Jaizkibelgoa izango dela, eta ez nolana hiko, alegia haizeek jotako harri gorrixka horietakoa, harri zuria, gogorra eta ale onekoa baizik. Hain zuzen ere, hirugarren dorretik gertu dagoen harrobi honetakoa bezalakoa.

Harrobi hau oso handia da, metro kubiko asko atera ziren bertatik (zenbait lekutan harria ateratzeko goitik behera egindako zuloen markak ageri dira). Inguruko harrobi zaharren artean ez du parekorik. Eta ez da une jakin batekoa, urte zein mende luzeetan ustiatutakoa baizik. Harrobi-gunea, bestalde, harrobia bera baino handiagoa da. Alegia, harri-erauzketarako

guneaz gain badago, bidez bestalde, hondakindegiz itzel bat. Eta, euri-urak ez pilatzeko, hustubide bat dago bidearen azpian, harrobia hondakindegiarekin lotzen duena. Gaur egungo bidea, jakina, garai batean gurdibidea izan zen.

## [hirugarren dorrea - Eskulain (harrobi zaharra)] LURRAREN GARAPENA

Lurzorua lurraren gainazala osatzen duen geruza da, tokitik tokira oso sakonera eta osaera desberdina izan dezakeena eta gai mineralez, gai organiko, ur-disoluzioz, gazez (nagusiki airez) eta izaki bizidunetz osatua. Lurzorua landareen euskarria da. Arroka ama kanpo-geodinamikaren -klimaren- ondorioz eta izaki bizidunek eragindako prozesu fisiko, kimiko eta biologikoen ondorioz eraldatzen denean sortzen da lurzorua. Gainera, gorputz natural dinamikoa da, denboran zehar hainbat urrats eginez eboluzionatzen doana.

Konposizioaren arabera hiru geruza nagusi bereizi ohi dira lurzoruan (A, B eta C). Kanpokoanari A horizontea deritzo; gainazaleko horizonte iluna eta materia organikoan (humus) joria. Horren azpian B horizontea dago, A horizontetik lixibiazioz materia organikoa jasotzen duena eta A horizontea bezain meteorizatua ez dagoena. Bi horizonte horiek osatzen dute benetako lurzorua, solum izenekoa. Azpian zorupea dago, C horizontea, meteorizatzen hasitako arroka



*Hirugarren dorrea*



*Harrobi zaharra*



*Lurzorua eta arroka ama*



*Eskulaingo bi mugarriak*

amari dagokiona. Lurzoruaren azpian D horizontea dago, arroka ama alegia.

Harrobi itxurako mozketa honetan, argi eta garbi ikus daitezke lurraren horizonte desberdinak, eta oso aproposa da lurzorua eraketa edo garapena aipatzeko.

Lurzoru baten erabilera-kapazitatea ezagutzeko, ustiaketa baterako lurzoruak duen potentzialitatea alegia, bere ezaugarri batzuk hartu behar dira kontuan: lodiera, malda, higadura gradua, azaleratutako arroka, drainatzea, ehundura, egitura, pH...

Egindako sailkapenaren arabera, Jaizkibel mendian, tontorretik itsasora eta Lezo aldera, erabilera posibleak murriztak dira: forestala (preserbazioa edo birsorkuntza) eta kontserbazioa (berezitasun paisajistikoak). Lurzoruaren lodiera txikia da (<15 zm), higadura gradua altua, malda altua (% >50), arroka ugari lur azalean (>% 50), eskaski drainatua...

Lezoko inguruetan, Gaintzurizketa aldera, Jaizkibelgo erabilera posibleak urriak dira: nekazaritzaz gain, bestek; hau da, abeltzantza, ustiapen forestala, forestala (preserbazioa edo birsorkuntza) eta kontserbazioa (berezitasun paisajistikoak). Lurzoruaren lodiera tartekoa (30-50 zm) da, higadura gradua moderatua, maldak % 10-30, harri kopurua, arrokak lur azalean (% 10-25), inperfektuki drainatua, materia organiko gutxikoa (<% 1)...

Erabilera-kapazitate handieneko lurzoruek azalera murrizta hartzen dute Gipuzkoan. Bestalde, indus-

tria zein hiri-erabilerarako eskari handia ageri da. Beraz, ahal den neurrian, baliabide natural ez-berriztagarri eskas hau kontserbatzeko ahaleginak egin behar dira, betiko gal ez dadin, behin komunikabideak, hiri edota industria-eraikinak egindakoan gertatzen den bezala.

## [hirugarren dorrea - Eskulain] **AMETZA (Melojo, roble negral, *Quercus pyrenaica*)**

---

Ametza haritz, arte, pago eta gaztainondoen familia berekoa da. 10-20 metro bitarteko zuhaitz bat da, eta sarri zuhaiska tankerakoa. Bere egurra haritzarena baino okerragoa da.

Ametzak substratu siliziotako lurzoru hareatsu ondo drainatuak betetzen ditu, ezin baitu istilketarik jasan.

Honez gainera, bere klima egokiena mediterraneo lehor eta ozeaniko hezearen artekoa denez, egutera edo gailurretan kokatuak behar dute izan, hau da, ondo eguzkitzaturiko alderdietan.

Hostoek gingil oso handiak eta ile zuriskak daukate.

Ameztiak betetzen dituen lurrak, orokorrean, haritz eta pagadiak betetzen dituztenen tarteko altueran egoten dira. Hala ere, substratu hareatsua duten kostaldeko mendietan, Jaizkibel kasu, ameztia da baso potentziala. Baso honetan, ametzaz gainera haritz

kanduduna (*Quercus robur*) edo bien arteko hibridoak ere agertu ohi dira.

Ametzek baso ireki samarrak osatzen dituzte eta otalurreko espezieak barneratu ohi dira, esaterako inarrak (*Erica sp.*, *Calluna sp.*, *Daboecia sp.*) edo iratze arrunta (*Pteridium aquilinum*).

Ameztietan tradizionalki aziendak larratu eta hauen azpitarako sastraka bildu izan da. Azienden larraketa honek ametz-plantula eta muluen garapena eragozten du. Ametzaren zura oso kalitate onekoa ez denez, ez da erabili ez eraikuntzan ezta zurgintzan ere, erregai modura edo trenbideko trabesak egiteko baizik.

Baso hau suntsituz gero, otalurreko landare espezieek beteko lituzkete lur hauek.

## [Eskulain] **(III. PASADIZOA) 1809.07.05** **LEZOKO ETA HONDARRIBIKO** **ORDEZKARIAK** **Mugarria jartzea**

---

1809ko uztailaren 5ean, asteazkena, bilera garrantzitsu bat izan zen Eskulaingo kaskoan. Bertan bildu ziren Lezoko eta Hondarribiko ordezkariak eta perituak, Pasaiaiko ordezkariak, eta Domingo Maria de Errazu eskribaua. Hondarribiko eta Pasaiaiko alkateak ere ordezkarien artean zeuden. Hala, Pasaia eta Hondarribiaren arteko mugak ondo bereiztuta baldin bazeuden 1770az geroztik, gauza bera egin behar zuten oraingo-

an Lezo eta Hondarribiaren arteko mugekin. Horretarako, Pasaiak eta Hondarribiak Eskulainen duten hareharrizko mugarriaren ondoan, P eta F inizialak dituen, kare harrizko mugarri berri bat jarri zuten, L inizialarekin. Eta, jarraian, Oiartzunera arteko mugak zehaztu zituzten, mugarri gehiagorekin.

### [Eskulain]

## SAN HENRIKE GOTORLEKUA

San Henrike azken karlistadako gotorleku liberal bat da. Jaizkibelgo punturik garaienean dago, alegia, itsas mailatik 547 metrora, eta bertatik bista ikusgarriak daude alde guztietara.

Gaur egun gotorlekuaren hondakinak baino ez dira ageri. Alabaina, argi eta garbi ikus daiteke bertako oinplanoa: elipse-erdiko oinplanoa duten lau bateriaz babestutako laukizuzen handia. Laukizuzen horren alde nagusiak iparraldeko eta hegoaldeko hormak dira. Eta bi horma horiek batera bikoitz bana dute erdi parean. Hegoaldekoak, gainera, bi batera single ditu ertzetan.

Bestalde, gotorleku honetan bertan, 1979an, Aranzadi Zientzi Elkarteko arkeologia saileko kideek aurkikuntza garrantzitsu bat egin zuten: Antzin Aroko txanpon bat aurkitu zuten, erromatar inperioaren garaikoa, zenbait zeramika pusketarekin batera. Txanpon hori, hain zuzen ere, Nerva enperadorearen as bat da, brontzezkoa, Kristo ondorengo 96koa.

Aurkikuntza hori, ordea, ez da harritzekoa. Jakinaenez, Kristo aurreko azken urteetan baskoien lur hauetara erromatarrak iritsi ziren, eta Oiasso izeneko hirian finkatu ziren, berrehun urtez behinik behin bultzada handia emanaz bertako bizitzari –orain arte egin diren aurkikuntzen arabera, hiri hori Irunen kokatu beharko genuke–. Beren ekonomia meatzaritzan eta merkataritzan oinarritu zuten. Hala, Aiako harria eta inguruetakoa meategietatik burdina, beruna eta zilarra ateratzeaz gain, garrantzi handiko portu bat izan zuten, eta baita ainguratoki bat ere Jaizkibelen, hain zuzen ere Higer lurmuturreko Asturiagan (Playa de los Frailes). Itsasontzien babeserako gune horretan, 1984an, Marte (gerra), Helios (eguzkia), Isis (ilargia) eta Minerva (adimena) jainko-jainkosen brontzezko iruditxo batzuk aurkitu ziren, aztarna arkeologiko gehiagorekin batera. III. mendean gerotik, ordea, hiria gain behera etorri zen.

### [Eskulain (zabalgunea)]

## ISKULIN TRIKUHARRIA

*(Kokapena: Turismo-paradorea zegoen lekutik 350 bat metro hegomendebaldera, eta ur-biltegi batetik 60 metro hegomendebaldera.)*

Jaizkibelen historiaurreko gizakiak eraikitako trikuharrien aztarnak ikus daitezke: mendebaldetik ekialdera, Iskulin, Jaizkibel III eta Jaizkibel IV. Santa

Barbara izeneko trikuharria, bestalde, 1955ean suntsitu zuten, haren lekuan turismo-paradore probintzialaren eraikuntza lanak hasi zirenean.

Trikuharri hauek orain dela hiru edo lau bat mila urtekoak dira, Eneolito-Brontze Arokoak. Orduko biztanle urriak batez ere artzain ibiltariak ziren, artaldeekin larre batetik bestera ibiltzen zirenak. Haitzuloetan eta kanpoan eraikitako bizileku xumeetan bizi ziren. Alabaina, trikuharria da gaur egun ezagutzen dugun garai hartako eraikin mota bakarra. Hain zuzen ere, hilobi bat da, barrenean hainbat gorpu gorde ditzakeena.

Iskulin trikuharria aita Joxe Migel Barandiaranek aurkitu zuen 1935ean, eta industu gabe dago. Barandiaranek berak zioenez, tumuluak 16 metroko diametroa zuen, eta erdiko ganbara laukizuzen itxurakoa zen, hiru harlauza besterik ez bazeuzkan ere. Tipologiari dagokionez, trikuharri labur itxi bat dirudi, albo harlauza bat galduta daukana.

Gaur egun, tumuluak 9 metroko diametroa besterik ez du, eta erdian 3 metroko diametroa eta 80 zentimetroko sakonera duen zuloa dauka. Beraz, oso egocera txarrean dago, gehienbat ehiza-postu gisa erabili izan delako.

## [Eskulain (zabalgunea)]

### SUTEAK

Jaizkibelgo mendian ardi edo behorrekin topo egitea ez da zaila. Azienda hauek mendian aske ibiltzen dira,



*San Henrike gotorlekua*



*Iskulin trikuharria*



*Santa Barbara*



*Eskulain*

belardietako landareak jaten, abeltzainak aldian behin baino zaintzen ez dituelarik.

Hemengo ardia latxa arrazakoa da, klima hezeetara oso ongi moldatzen dena. Ekonomikoki artzantzak duen errentagarritasun baxuaren ondorioz, geroz eta artzain gutxiago dago. Gazta eta arkume salmenta dira batez ere artzainen diru-iturriak.

Jaizkibelgo iparreko saihets aldea soilduta ikus daiteke, ia zuhaitzik gabe. Hau ez da beti horrela izan, orain ordekek diren lurralde hauek basoz estalita egongo baitziren aspaldi. Jatorrizko landaredia, atlantiko aldeko haritzez eta ametzez osatzen zen gehienbat, baina, etengabeko mozte eta suteen ondorioz, ardientzako bazka-leku zabal gertatu diren larreak nagusitu ziren aspaldi samar. Gaur egun oraindik, Jaizkibel mendiko alde garaietan, betizuak ere hazten dira, herrietako sokamuturretara eramaten ziren behitxo horiek: Hondarribira, Irunera, Oiartzunera, Lezora, Erreenteriara eta Pasaiara batez ere.

Dena den, abere hauen mugikortasuna mugatua da, eta hauek ibiltzen ez diren lekuetan ote eta garoak ugaltzen dira, onura gutxikoak biak eta nonahi agertzen direnak.

Zuhaitz-landaketa batzuk ere egin izan dira, baina beti sortu ohi dira zuhaizketa hauek galarazten dituzten suteak. Mendiaren iparraldeko saihets alde hauxe da zuhaitz-landaketak ondoen hartu dituen bazterra, baina hala ere suteak ez zaizkio falta izan.

Azken urteotan ohiko bihurtu da Jaizkibel urtean



bizpahiru aldiz sutan ikustea. Ordu batzuetako suteak izaten dira; kalteak, ordea, urtetakoak. Sute bakoitzean, basoak eta larreak erretzen dira. Basoen artean, birlandatutako ale gazteak eta zuhaitz sendoak erretzen dira. Ondorioztaturiko kalteak errekuuperatzeko, zuhaitzei dagokienez, 50 urte behar izaten dira hainbat lekutan. Sute hauek, askotan nahita piztuak izaten dira.

Gipuzkoako Foru Diputazioak emandako datuen arabera, azken 30 urtean ia urtero izan da suteren bat Jaizkibelen eta, denbora honetan, mendiari dagokion azalera osoa (2.423,6 hektarea) baino gehiago erre da, 3.331 hektarea alegia (erdia baino gehiago zuhaiztia). Urterik txarrenetarikoa 1989koa izan zen, orduan 6 sute izan ziren, guztira 1.346,61 hektarea erre zirelarik.

## [Santa Barbara]

### **ERMITA ETA AKELARREAK**

---

Santa Barbarako zabaldegian trikuharri bat izan zen (Santa Barbara). Baina baita Burdin Aroko bi cromlech ere (Jaizkibel I). Kristo aurreko lehenengo milurtekoan eraikitako hilobi hauek zutarriz egindako zirkuak ziren eta, trikuharrietan ez bezala, hildakoen errautsak gordetzen ziren bertan, erdi-erdian egindako zulo batean. Historiaurreko eraikin hauek guztiak, ordea, 1955ean suntsitu zituzten. Halere, Mendizabalen Arriya izeneko oroitarria dagoen lekutik 130 metro

iparmendebaldera bost cromlech ikus daitezke (Jaizkibel II), 1980an aurkituak –hilobi mota hau Gipuzkoako ekialdetik Pirinio erdialderaino hedatzen da–.

Zabaldegi berezi honetan, XVI. mendean edo behar bada lehenago, Santa Barbararen ermita eraiki zuten, paganismoaren aztarnak ezabatu eta kristautasunaren erritoak indartzeko asmoz. Hala, inguruko herrietako jendea bertara joaten zen promesak betetzera eta errogatibak egitera.

Dena dela, 1611n sorginen aurkako epaiketa bat izan zen Hondarribian. Eta lekuko batzuen arabera, Santa Barbarako zabaldegian akelarreak egiten ziren. 13 urteko Isabel García, esate baterako, aitortu zuen 1610eko gau batean Santa Barbararen ermita ondora eramán zutela, bertan jendetza handia bildu zela, danbolinaren doinua gailentzen zela, eta deabruak Ama Birjinaz, Jesukristoz eta santu guztiez arnegatzeko agindu ziola. 69 urteko María de Illarrak, bestalde, aitortu zuen gaztetatik sorgina zela, deabruarekin sexu-harremanak izaten zituela, eta aurreko 48 urteetan maiz joan izan zela Santa Barbarako bileretara.

## [Santa Barbara]

### **(IV. PASADIZOA) XVI**

### **MARI MARTIN DE OLAIZ**

### **Santa Barbarako ermitaua**

---

XVI. mendeko azken herenean ermitau bat bizi izan zen Jaizkibelgo Santa Barbara ermitan. Hain zuzen

ere, Mari Martin de Olaiz, jaiotzez hondarribiarra, eta agustindarren ordenako moja Erreterian. Gregorio XIIIgarrena aita santuak (1502-1585; aita santu, 1572-1585) baimena eman zion komentutik atera eta bakar-dadean bizitzeko. Hala, hamar urte eman zituen mendi gailurrean, urritasunean, penitentzia handia eginez. Lo ere ermitako kutxa baten barrenean egiten zuen. Azkeneko, ordea, oso zaharra zela, lehen utzitako Erretereriako Trinitate Santuaren komentura erretiratu zen, bere konfessore lezoarraren aginduz. Halere, Santa Barbarako ohiturari eutsiz, ez zuen oherik onartu, eta koruan egiten zuen lo. Santu-hotsean hil zen 1600ean.

### [Eskulain - hirugarren dorrea]

## HISTORIA GEOLOGIKOA

Lezoko udalerrriaren material litologikoak itsas-jatorriko jalkin-harkaitzez eratuak daude. Lur zati gazteena hareharri horiz eratuta dago, udalerriko iparraldean, Jaizkibel mendiaren hegala hartuz. Hareharri hauen ondoren, jadanik udalerrriaren behe alde lauan, kararri eta marga tarte bat aurkitzen dugu, gris-zuriska eta arrosa kolorekoak. Udal barrutiaren hegoaldean bakarrik aurkitzen ditugu harkaitz zaharragoak; kararriak, margak, hareharriak eta mugerrak, baina sakabanaturik daude lurrazalean.

Gure eskualdean, arrokarik zaharrena Aiako harriko granitoa dugu.

Historia geologikoari buruz, duela 350 milioi urte inguru (Debonikoan) sakonera gutxiko itsaso beroak estaltzen zituen inguru hauek denak.

Duela 300 milioi urte inguru, mugimendu orogeniko bat gertatu zen (Orogenia Hertzinianoa), inguruetan mendiak sortuz, baina Lezoko eremua artean urpean zegoen. Urte hauetan lurraren gunetik lurrazalerantz magma kanporaketa gertatu zen, arrokararen aldaketa eraginez. Klimaren aldaketekin arrokarak eraldatzen doaz. Erosioaren eraginez, erliebe kontinentala asko beheratzen da eta ur-hondoan jalkin geruzak eratuz doaz.

Duela 40 milioi urte inguru, plaka Iberikoaren eta europarraren arteko talka gertatu zen; talkaren ondorioz erliebea berriro tolestu zen, itsas jalkinak lehorretatuz (Orogenia Pirenaikoa). Jaizkibel eta Lezo eremuak lehorrean daude orain.

Erosioa etengabe doa erliebea moldatzen, gero eta apalagoa bihurtuz. Gaur egungo Lezoko udalerria eta bere inguruak, 40 milioi urtetako erosioaren fruitu dira.

Duela 20.000 urte, aldaketa estrukturalik gabeko azken gertaera bat izan zen: Würm glaziazioa: klima hotza eta lehorra. Poloetako izotz hedakuntzarekin, ur likidoaren murrizketa medio, itsasoaren maila 120 metro inguru jaitsi zen eta kosta-lerroa asko aurreratu zen: Jaizkibelgo kostatik aurrera 14 kilometro irabazi zizkion kontinenteak itsasoari.

Azken glaziazioaren ondoren, itsas-maila duela

12.000 urte hasi zen berriro igotzen. Baldintza klimatikoek aldaketa honekin batera bertara egokitutako paisaia eta landaredi mota agertu ziren: estepatik (zuhaitz bakanezko belazeak, hotzari eta idorrari egokitutako koniferoak), baso hostoerorkor epela deritzanera. Lezoko eskualdea, gehienbat, haritz kandudunez, ametz arruntez eta haltzez bete zen; eta landare ingurune honetan mota askotariko animaliak eta bes-telako landare espezieak erroto ziren.

Glaziazio garaian urri izandako beste espezie batek, artean ehiztari eta fruitu-biltzaile bizitza zermanak, klimaren hobekuntzari esker garapen handia jasan zuen. Alde batetik bestera belarjaleak harrapatzen ibiltzea baino, haiek zaintzen aritzea erosoago eta errentagarriago zela ohartu zen, eta nekazaritza egonkor bat hartu zuen bizibide, neguari aurre egiteko janariak pila zitzaizkeelarik.

Hala espezie hori, gizakia alegia, paisaia bere era-ra moldatzen hasi zen, baso batzuk desagertaraziz eta beste batzuk ustiatuz, nekazal lurak landuz, gerrateak, eraikinak, industria-garapena, eta abar.

## [Amadingurutze]

(V. PASADIZOA) 1677.04.25

**LEZO VERSUS SAN JUAN**

**Ehiztari hila**

1677ko San Marko eguneko prozesioan Amadingurutetik bueltan beren parrokiara zihoazen sanjuanda-



*Jaizkibelgo itsaslabarrak*



*Labetxu; atzean Ixkiro*



Eskuinean Eskulainetik hirugarren dorrera doan bidezidorra



Pinutegia

rrek ustekabeko galanta izan zuten: Tellatutxeta ize-neko lekuan, galtzadatik urrats gutxira eta harkaitz baten ondoan, Jacinto de Aguirre lezoarra zerraldo zetzan, ehizako eskopeta eta gainerako trepetak aldean zituela. Hilotzari non lur eman erabakitzerakoan, ordea, eztabaida handia piztu zen. Lezoko elizgizon, agintari eta auzokideek zein hildakoaren gurasoek Lezoko parrokiari ehortzi nahi zuten, Lezoko aiekan hil zela argudiatuz. Sanjuandarrek aldiz, hildakoaren alarguna barne, ezetz zioten, San Juango aiekan hil zela, San Juanera ezkondua zegoela eta bertako parrokiak zegokiola. Hondarribiko alkateak izan zuen azken hitza, eta haren aginduz sanjuandarrek eraman zuten ehiztari hila.

### [pista - Sarastizabalgo harrobia] **GURBITZA (Madroño, *Arbutus unedo*)**

---

Hosto handiak eta iraunkorrak dituen gero, gurbitza, laurisilbako zuhaiska txiki bat da; izotzik gabeko klima bero eta hezeak behar izaten ditu, mediterraniarrak edo ozeaniarrak diren klimak alegia.

Alderdi degradatutan eta baita erreta daudenetan ere nagusitzen den zuhaiska tipikoa da, haziera azkarrekoa baita, eta ongi jasaten baititu sua eta lurraren erosioa.

Bere kabuz hazten da Euskal Herri osoan, karraskal (*carrasca*, encina: *Quercus ilex*) edo erkameztietan

(quejigo: *Quercus faginea*) zuhaiska- edo zuhaitz--estratua osatzen duelarik, gehienbat ozeaniar eragin handia duten Kantauriko ibarretan.

Suteak edo ustiapenak jasan dituzten zenbait alderditan hedadura txikiko komunitateak osatzera iristen da, bere nagusitasuna nabarmen delarik. Sarri agertzen da arroila karetsu eta gerizatueta, babestuetan.

Garai batean bere zura oso estimatua izan zen egur-ikatza egiteko, eta bere fruitu jangarriekin marmeladak egiten ziren.

Herri sendakuntzan tanu ugari dituzten bere hostoak idorreskor gisa erabiltzen dira beheitikoari eta disenteriarri aurre egiteko, hala nola gernu-bideen garbigarri gisa. Ezaugarri hauek bere generokideak diren txilarretan (brezo, *Erica sp.*) ere aurki ditzakegu.

## [Sarastizabalgo harrobia - Kaserna] **PINUAK (Pino, *Pinus sp.*)**

Bai Euskal Herrian, baita Europan ere, hedatuen dauden koniferoak dira.

Orratz-formako hosto handi eta nahiko gogorrak dituzte, binaka, hirunaka edo bosnaka. Gehienek haizearen bitartez sakabanaturiko hazi hegaldunak dituzte.

Ler gorria (*P. sylvestris*), aleppo pinua (pino carrasco, *P. halepensis*), mendi-pinua (pino negro, *P. uncinata*), itsas-pinua (pino marítimo, *P. pinaster*),

Austriako pinu beltza (pino laricio de Austria, *P. nigra*), pinazi-pinua (pino piñonero, *P. pinea*)...

Oihaneztapenetan erabilienak insignis pinuak dira (pino insigne, pino de Monterrey, *Pinus radiata*); azikulak hirunaka sailkatuta izaten dituzte eta tenperatura arinak eta izotz gutxi egiten duen Euskal Herriko Kantauriko ibar guztietan oso hedatuta ageri dira.

Pinuak oro har, haziera azkarreko zuhaitzak dira; beren sustrai-sistemak oso azalekoak eta hedadura handikoak dira, eta lurzoru gutxiko alderdietan bizirik irauteko aukera ematen diete. Beren hosto estu eta gogorrek neurritz kanpoko kondizioak pairatzen laguntzen diete, nahiz hotzak, nahiz beroak edo lehor-teak. Horregatik, oihaneztapenetarako apartekoak dira.

Hala ere, pinuak, eta bereziki insignis pinuak, idoiekiko eta pinu-beldarren erasoekiko oso sentikor-rrak dira, eta, batez ere, beren arazorik handiena sua da, azikula ihartuek eta beste hondakin batzuek erretxin lehortuarekin sua erraz hartzen baitute.

Pinuek oro har, konifero guztiek bezala, erretxin kantitate handiak izaten dituzte; erretxin hau hostoetan edo eroritako adarretan lehortzen denean erregai ezin hobea gertatzen da, txinparta txikienarekin ere erraz su hartzen duelarik. Halere, erretxinak atera berria denean, ez du surik hartzen, edo hartzen badu ere, zailtasun gehiagorekin hartzen du.

Eguraldia oso lehorra denean, edozein txinpartak hostoei eta lureko hondakin lehorrei erraz su eman



diezaieke, eta komunitate osoan eragina izango duen sute handia sor daiteke; baina pinuen erretxin atera berriak beren gunea erretzea galarazten dio suari; hainbestearino, non handik urte gutxi batzuetara zuhaitz batzuk sute handi batetik suspertu baitaitezke. Hala ere, ez da gauza bera gertatzen pinudia inguratzen duten edo bertan bizi diren gainontzeko landareekin, eta are gutxiago animaliekin. Hori dela eta, desoreka ekologiko handiak sorrarazten dituzte eta beren landaketa gehiegi hedatzen denean, benetako arazo bihurtzen dira.

### [Kaserna]

## ERRAMUA (Laurel, *Laurus nobilis*)

Jaizkibelen, harizti/baso mistoan dauden zuhaitzez

gainera (haritz kanduduna, *Quercus robur*; lizarra, *Fraxinus excelsior*; urkia, *Betula celtiberica*; gorostia, *Ilex aquifolium*; etab.), alderdi beroagoetako espezieak ere beha daitezke. Zuhaisken artean, artadiekin erlazioa dutenak ageri dira, esate baterako hosto gogor eta ziratuak dituzten erramua (*Laurus nobilis*), erratza (*Ruscus aculeatus*), txilar portugaldarra (*Erica lusitanica*) edo gurbitza (*Arbutus unedo*).

Erramua hosto erorkorreko eta adar askoko zuhaitz edo zuhaiska da, olio guruin ugariko hostoak dituena. Hostoak mugitzean edo haustean usain sendoa askatzen dute. Jatorriz Mediterraneoko alderdi lehorrekoa da. Apaingarri gisa eta sukaldaritzarako erabiltzen da.

Erromatarrek erramu hostoekin koroa antzekoak egiten zituzten beren heroi eta poetentzat.

Kristau erlijioan, Aste Santu aurreko igandean erabiltzen den landarea da ("Erramu igandea").

### [Kaserna]

## MAKALA (Chopo, *Populus sp.*)

Ugarienak makal beltza (chopo negro; *Populus nigra*) eta zurzuria (álamo blanco; *Populus alba*) dira. Lehenak herrialde osoan errekak, latsak edo edozein eratako ur korronteak oso ederki seinalatzen ditu, eta bigarrena hegoaldeko erreketan ageri da, Mediterraneora drainatzen duten alderdi beroetan.

Loreak gerba zintzilikari izeneko sailetan izaten dituzte, arrak zuhaitz batzuetan eta emeak bestetan. Askatzen dituzten haziak haizeak kilometro askotan eramaten dituen ile kotoidun pila batean guztiz bilduta egoten dira.

Enborren azala gehienetan zuria edo zuriska izaten da eta lentizela edo irekiune asko dituzte gasen eta uren elkartruckerako. Ale helduetan lentizela hauek zarrastatu edo urratu egiten dira bizkar-ildo lodiak eratzera iritsiz.

Herrialde osoko makaldi gehienak oihaneztapenaren ondorio dira.

Haziera azkarreko zuhaitzak dira, baina, oro har, bizi motza dute.

Haziak gordetzen dituen bilotasunak haizeak kilometro askotan eramanez izateko eta ur gainean eusteko aukera ematen die; hori dela eta, erreka ertzetan, latsetan, urtegietan, eta abarretan kokatzen dira, batzuetan leku horietan ernetzen direlarik sortu ziren lekutik ehunka kilometrora.

Ezin hobeki pairatzen dituzte beren sustraiekin aldizkako ur idoitzeak; hori horrela izanik, giro hidrofiloetan beste espezie zuhaiskareei gain hartzen diete. Lur harroak behar izaten dituzte.

Kalitate gutxiko zur biguna ugari ematen dutelako landatzen dira. Hiri eta lorategi askotan ere apaingarri bezala, itzal emaile gisa eta atsegin toki gisa erabiltzen diren lekuetan aldatu ohi dira.

Makalek eta zurzuriek lan handia burutzen dute



*Kaserna*



*Kaletik bueltan Kasernara iristen*



Makala



Goikozelaia

urez gainezka dauden lurren babeskuntzan; errekei lurra eramatea eragozten diete gainezka egiten dutenean, eta aitzitik, errekek ekartzen dituen materialen metaketa laguntzen dute, horrekin inguruko lurrak aberasten dituztelarik; erreken alboetako erosioari oztopo egiten diete bira edo bihurgunetan, eta, oro har, funtzio ekologiko oso garrantzitsua burutzen dute erreken erregulazioan eta urbazterretako komunitatei eusteko lanetan; hori beste ekintza batzuekin nekez lortuko litzateke.

### [Iturritxulo]

## HARRIZKO AIZKORA

---

Barungako aizkora da oraindaino Lezoko udal-barrutian aurkitu den historiaurreko aztarna bakarra, Jaizkibelgo trikuharriak eta cromlechak Hondarribiko lurretan baitaude.

F. Payer-ek aurkitu zuen 1964an, hain zuzen ere Orbegozo enpresaren zimenduak jartzen ari zirenean. Orduan, lan horretarako, bi baserri handi bota zituzten: Lopene eta Barunga. Eta aizkora azken horren lurretan agertu zen, erreka txiki baten ondoan.

Eneolito-Brontze Aroko harri leunduzko aizkora bat da, ofitazkoa, orain dela hiru edo lau bat mila urtekoa. Elipse-formako ebakidura du. Ia zirkularra da buruan, eta zapalagoa gainerakoan. Ahoak arku-forma du, eta oso leundua dago. Hauek dira gehieneko neurriak: luzera, 14,40 zentimetro; zabalera, 5,30 zen-



# Mugitar - Eskulain *Abeltzantza*





## **Iturriak eta bibliografia**



## ITURRIAK

---

ARCHIVO DIOCESANO DE PAMPLONA.

ELIZBARRUTIKO HISTORIA-AGIRITEGIA, DONOSTIA.

ERRENTERRIAKO UDAL AGIRITEGIA.

GIPUZKOAKO AGIRITEGI OROKORRA, TOLOSA.

HONDARRIBIKO UDAL AGIRITEGIA.

LEZOKO UDAL AGIRITEGIA.

## BIBLIOGRAFIA

---

**AGIRRE SORONDO, Antxon:** “Evolución demográfica de Lezo”. Lezo 3. Lezo, Kultur Batzordearen Aldizkaria, 1989. 11-13 or.

-. *Tierra y gentes. 75 temas vascos*. Ediciones Ttarttalo. Donostia, 2002.

**AGIRRETXE, Joxe Luix:** “Gregorio Arrutirekin herriko sagardogintzaz solasean”. *Orratz!* 9. Lezo, 1998, 6-9 or.

-. “Rafa Gaztelumendi: artzantza zainetan”. *Orratz!* 13. Lezo, 1998, 6-9 or.

**ALQUÉZAR, Jesús M<sup>a</sup>:** “Jaizkibel, el litoral. Una sinfonía marítimo-terrestre”. *Pyrenaica*. 2002, 207, 61-71 or.

**APERRIBAY, Jose Luis:** “Lezoko populazioa”. *ASKE* Lezoko aldizkaria 4. Lezo, 1987, 21-28 or.

**ARAGON RUANO, Alvaro:** *El bosque guipuzcoano en la Edad Moderna. Aprovechamiento, ordenamiento legal y conflictividad*. Aranzadi Zientzi Elkartea. Donostia-San Sebastián, 2001.

**ARMENDARIZ, Angel:** *Euskal Herriko dolmenak*. Ed. Krieku, S.A. Donostia, 1988.

**ARMENDARIZ, Anjel:** *Euskal Herriko historiaurreko ehorzketak mundua*. GERO Ediciones Mensajero. Bilbo, 1995.

**AZCONA, Tarsicio de:** *Presencia de los Capuchinos en Rentería. (1612-1837) y (1958-1983)*. Grupo Doctor Camino de Historia Donostiarra. San Sebastián-Donostia, 1983.

**BARANDIARAN, J.M. de:** *El hombre prehistórico en el País Vasco*. Ediciones Vascas. San Sebastián, 1979.

**BARRENTSORO, Karlox:** “Sagardogintza Lezo”. *Lezo* 5. Lezo, 1990, 75-76 or.

**BENITO DOMINGUEZ, Ana M<sup>a</sup> - ESTEBAN DELGADO, Milagros - IZQUIERDO MARCULETA, Maite:** *El bajo Bidasoa en época romana. Guía catálogo para la visita del museo de Santa Elena (Irún)*. Ayuntamiento. Irún, 1995.

**BERRIO, Iñaki:** “Jaizkibel menditik etxeetako iturrietara”. *Orratz!* 34. Lezo, 2000, 10-13 or.

**BURNIE, David:** *Zuhaitza*. Altea-Desclée irudi-gidak. London, 1988.

**CARO BAROJA, Julio:** *Brujería vasca*. Txertoa. San Sebastián, 1992.

**Diccionario de Ciencias de la Tierra.** Dictionarios Oxford-Complutense, Ed. Complutense, 2000.

**DORRONSORO, Perdiñanda - REBOLLEDA, Ramuntxo:** *Txingudi Bidasoa. Ibilbide naturalistikoak*. Irungo Udala. Irun.

**ELEJALDE, Felix - ERENCHUN, Juan:** *Noticias históricas de la villa de Pasajes*. Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. San Sebastián, 1970.

**ELHUYAR KULTUR ELKARTEA:** *Ingurugiro Hiztegi Entziklopedikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila. Eusko Jaurlaritzak. Vitoria-Gasteiz, 1998.

**ELORTEGI BILBAO, Angel María:** *Pasaia*ko toponimia. Euskaltzaindia. Bilbo, 1992.

**ELOSEGUI, Jesus - PEÑA SANTIAGO Luis Pedro:** *Gipuzkoa. Bazterrik bazter*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. 1984.

**ESNAOLA, Imanol:** “Altamirako leizezuloa porlanez itxia eta protesta zuhaitzetara igota”. *Orratz!* 7. Lezo, 1997, 19 or.

**ETXEZURIETA SARASOLA, Karlos:** *Lezo herriaren ikuspegi sozio-ekonomiko-historikoa*. Lezo, 1983. (argitaragabea).

**EXTRAMIANA, José:** *Historia de las guerras carlistas*. L. Haranburu. San Sebastián, 1980.

**GARCÍA BONA, L.M.:** *Euskal Herriko zuhaitzak*. Kriselu. Donostia, 1989.

**GARCÍA LUCAS, Miguel Angel:** *Atlas de Ecología*. Edibook, S.A., Barcelona, 1991.

**HERNÁNDEZ AINA, Javier:** *Gipuzkoako basa-landareak. Plantas silvestres*. Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa Probintzialeko Gaztetxoan Elkartea, 1985.

**ISASTI, Lope de:** *Compendio historial de Guipúzcoa*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1972.

**ITURRIOZ, Fermín:** *Pasajes. Resumen histórico*. Pysbe. San Sebastián, 1952.

**IZAGIRRE IGIÑIZ, Martin:** *Cartografía antigua y paisajes del Bidasoa*. M. Izagirre. Irun, 1994.

*Lezo 1988. Udal-adierazleak / Indicadores municipales*. Eustat. Vitoria-Gasteiz, 1988.

*Lezo 1994. Udal-adierazleak / Indicadores municipales*. Eustat. Vitoria-Gasteiz, 1994.

*Lezo ezagutuz. Ibilaldia Altamiran zehar*. Lezo Institutuko Turismo Agentzia. Lezoko Udala.

**LEZOKO EKOLOJI TALDEA:** “Aurtengo Lezoko zuhaitz eta landare landaketak”. *Lezo* 10. *Lezo*, 1993, 53-54 or.

-. “Ekoloji tailerra. Baztertxo”. *Lezo* 9. *Lezo*, 1992, 52-55 or.

-. “Epertxoko: berpoblaketa baten saiakera”. *Lezo* 8. *Lezo*, 1992, 39-43 or.

-. “Hazitokia”. *Lezo* 6. *Lezo*, 1991, 118-123 or.

-. “Hona hemen, Oarso-Bidasoa (Lezo-Orereta-Oiartzun-Pasaia) inguruko eraso ekolojiko nagusiak”. *Lezo* 10. *Lezo*, 1993, 47-52 or.

-. “Larunbatero landaketa herrikoiak”. *Lezo* 12. *Lezo*, 1994, 75-76 or.

-. “Pysbe auzoko zuhaitzak eta beren ezaugarriak”. *Lezo* 7. *Lezo*, 1991, 74-81 or.

-. “Zuhaitzak landatu, zaindu eta babesteko 17 arrazoi”. *Lezo* 5. *Lezo*, 1990, 59-74 or.

-. “Zuk ere egin dezakezu”. *Lezo* 15. *Lezo*, 1995, 64-66 or.

**NAVAZ, J. M.:** “Estudio de la Ría de Pasajes en relación con su producción de moluscos comestibles”. *Boletín del Instituto Español de Oceanografía*, 1948, 11, 1-31 or.

**O acibo**. Xunta de Galicia. Consellería de agricultura, gandería e montes.

**ODRIOZOLA OYARBIDE, Lourdes:** “La industria de la construcción naval en Fuenterrabía en la Edad Moderna”. *Boletín de Estudios del Bidasoa* 19. Irun, 1999, 7-45 or.

**ORREAGA TALDEA (Gizarte Zientziak):** *Gipuzkoa. Herri eta Eskualdeak*. Gipuzkoako Foru Aldundia. 1983.

**OTERO LANA, Enrique:** *Los corsarios españoles durante la*

*decadencia de los Austrias. El curso español del Atlántico peninsular en el siglo XVII (1621-1697)*. Ministerio de Defensa. Madrid, 1999.

**PRESENTACION BARANDIARAN, Joseba:** “Katastroberria eta Lezo”. Lezo 4. Lezo, 1990, 26-28 or.

**PRESS, Bob:** *Guía de campo. Árboles de Europa*. Libros Cupula. Ediciones CEAC S.A. Barcelona, 1993.

**REGOYOS, Elena de:** “La UE apuesta por la creación de bosques para combatir el cambio climático”. DV, 2002-08-17, supl. 4 or.

**REIZABAL ARRUABARRENA, G. - GONZÁLEZ--AMEZÚA CARRIÓN, P. - GONZÁLEZ GONZÁLEZ, A.:** *Pasajes, un Puerto, una Historia*. Ed. Junta del Puerto de Pasajes/Ministerio de Obras Públicas y Urbanismo. 1987.

**RUDEL, A.:** *Geología. Las ciencias naturales*. Hora, S.A. Barcelona, 1982.

**SAEZ GARCIA, Juan Antonio:** *Gotorlekuak Gipuzkoan*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia-San Sebastián, 2002.

**SILVAN, Leandro:** *Lezo*. Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. San Sebastián, 1970.

**TAMES URDIAIN, P. - MENDIOLA GÓMEZ, I. - PEREZ OLOZAGA, C.:** *Gipuzkoako Geomorfología eta Edafología*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Hirigintza, Arkitektura eta Ingurune Departamentua. Donostia, 1991.

- *Interes Geologikoko puntuak. Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Hirigintza, Arkitektura eta Ingurune Departamentua. Donostia, 1991.

**UGALDE ORDOKI, Joxe Juan:** “Jaizkibelgo suteak”. Lezo 18. Lezo, 1998, 71-72 or.

**URKIZU, Patri – INTXAURRANDIETA, Patxi:** *Garbizu anaiak. “Zubigar”, “Iruzubi”, “Tege” 1921-1936*. Lezoko Udala. Lezo, 1991.

**ZENBAIT EGILE:** *Carta arqueológica de Guipúzcoa*. Aranzadi Sociedad de Ciencias. San Sebastián, 1982.

- *Enciclopedia Histórico-Geográfica de Guipúzcoa*. 3. Haranburu Editor S.A.. San Sebastián, 1983.

- *Euskal Herriko goroldio, iratze eta likenak*. Itzultzailea M.A. Unanua. Kriselu. Donostia, 1989.

- *Gipuzkoako karta arkeologikoa / Carta arqueológica de Gipuzkoa. Megalitoak. Megalitos*. Aranzadi Zientzi Elkarte. San Sebastián-Donostia, 1990.

- *Guía de Lezo. Naturaleza y huella humana*. Lezoko Unibertsitateko Udala. Lezo, 1995.

- *Historia de Rentería*. Ayuntamiento de Rentería. Rentería, 1996.

- *Pasaia. Iraganaren oroigarria, etorkizunari begira / Memoria histórica y perspectivas de futuro*. Untzi Museoa. Donostia-San Sebastián, 1999.

**ZURUTUZA, Lander:** “Amadingurutze”. Orratx! 46. Lezo, 2001, 8-9 or.

- “Korsua, arrisku handiko iharduera”. Lezo 4. Lezo, 1990, 7-11 or.

- “Lezo eta Santiagoko bidea”. Lezo 12. Lezo, 1994, 11-13 or.

- “Lezoko badia”. Lezo 15. Lezo, 1995, 20-21 or.

- “Lezoko sagardogintzaren akabera”. Lezo 9. Lezo, 1992, 11-14 or.

- *Lezo*. Nekar. Lezo, 1996.

**ZURUTUZA SUNSUNDEGI, Lander:** “Lezoandiko jaunaren hilketa”. Boletín de Estudios del Bidasoa 19. Irun, 1999, 77-84 or.



Lezoko Unibertsitateko Udala



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

